

CONSEJO VASCO DE LA ABOGACÍA  
LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUA

# ***LANBIDEKO ORDAINSARIAK***

---

**Ordainsarien inguruko arau orientatzaileak**

2006ko urtarrilak 1

## **AURKIBIDEA**

XEDAPEN OROKORRAK..... 8-12. or.

### ***I. EPAIKETAZ KANPOKO JARDUNAK***

AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA Baremoak

Irteerak, kudeaketak, elkarrizketak eta batzarrak

Irteerak.....	1-5
Kudeaketak.....	6-8
Elkarrizketak eta batzarrak .....	9-12

Izaera orokorreko aholkularitza-jardunak

Kontsultak.....	13-14
Irizpenak eta txostenak.....	15-16

### **KONTRATUAK ETA AGIRIAK**

Agiri publikoetan esku hartzea.....	17-19
Kontratuak idaztea.....	20-24

### **SOZIETATEAK ETA BESTELAKO ELKARTEAK**

Sozietateen eraketa, aldarazpena, transformazioa, bat-egitea, desegitea eta likidatzea .....	25-30
Enpresen eta sozietateen aholkularitza juridikoa .....	31-33
Enpresentzat egindako bestelako azterlanak eta lanak .....	34-37

OINORDETZA..... 38-47

GAUZA ERKIDEA EPAIKETAZ KANPO ZATITZEA..... 48

TRANSAKZIOAK..... 49-50

### **TARTEKARITZA**

Zuzenbideko tartekaritza .....	51-53
Ekitatezko tartekaritza .....	54-56
Tartekaritzen formalizazioa, deuseztasun-akzioa, etab.....	57-62

EPAIKETAZ KANPOKO HIPOTEKA PROZEDURAK ..... 63

FINKAK JABETZA ERREGISTROAN IMMATRIKULATZEA..... 64

## *II. EPAIKETAKO JARDUNAK*

JURISDIKZIO GATAZKAK ..... 65

ESKUMEN GATAZKAK ..... 66

### **ARLO ZIBILEKO JURISDIKZIOA**

Irizpide orokorrak ..... 67-75

Doako laguntza juridikorako eskubidearen aitortpena  
edo ukapena aurkaratzea ..... 76

Adiskidetze-ekitaldiak ..... 77-78

Deklinatoria ..... 79

Prozesuak metatzea ..... 80-81

Atariko eginbideak ..... 82-87

Ezestea ..... 88

Lekukoen eta adituen narria ..... 89

Intzidente-arazoak eta prozesuko bestelako intzidenteak ..... 90-92

Epaitu aurreko arazoak ..... 93

Kautela-neurriak ..... 94-98

#### **Epaiketa arrunta**

Ordainsarien banaketa ..... 99

Muntaren ondoriozko epaiketa arrunta ..... 100-101

Gaiaren ondoriozko epaiketa arrunta ..... 102-110

#### **Hitzezko epaiketa**

Ordainsarien banaketa ..... 111

Muntaren ondoriozko hitzezko epaiketa ..... 112

Gaiaren ondoriozko hitzezko epaiketa ..... 113-123

#### **Prozesu bereziak**

Hiri- eta landa-errentamenduak ..... 124-127

Zortasunak eratzeari buruzko prozesuak ..... 128

Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak ..... 129

Seme-alabatasunari, aitasunari eta amatasunari buruzko prozesuak ..... 130

## **Ezkontzari, egitezko bikoteei eta seme-alaba erkideei buruzko prozesuak**

Irizpide orokorrak .....	131-134
Prozedurak .....	135-140
Betearazpena ezkontza-prozesuetan .....	141-142
Adingabeak .....	143

## **Ondareen banaketa judiziala**

Irizpide orokorra .....	144
Jarauntsiaren zatiketa judizialari buruzko prozedurak .....	145-148
Gauza erkidea zatitzeko prozedurak .....	149
Ezkontzako ondasun-eraentza likidatzeko prozedurak .....	150-152
Prozesu monitorioa .....	153-156
Kanbio-epaiketa .....	157-158
Automobilaren epaiketa betearazlea .....	159

## **Konkurtsu-prozesuak**

Abokatuak zorduna ordezkatzeari .....	160-167
Abokatuak hartzekodunak ordezkatzeari .....	168-175
Bestelako intzidentek .....	176-177
Itsas zuzenbidea .....	178-186

## **Borondatezko jurisdikzioa**

Irizpide orokorrak .....	187
Pertsonen buruzkoak .....	188-198
Azken nahietako egintzei lotutakoak .....	199-204
Ondasun buruzkoak .....	205-212
Merkataritza-negozioetan .....	213-217

## **Erregistro Zibila**

Irizpide orokorrak .....	218
Naziotasuna eta auzotasuna .....	219-221
Jaiotza, emantzipazioa, seme-alabatasuna, izen-abizenak .....	222-227
Ezkontza, lizentziak eta lekapenak .....	228-233
Bestelako jardunak .....	234-244
Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusian egindako errekurtsuak ...	245

## **Errekurtsuak**

Irizpide orokorra .....	246
Birjartze-errekurtsua .....	247
Gora jotzeko errekurtsua eta/edo horren aurkako aurkaratze-errekurtsua ....	248-250
Kexa-errekurtsua .....	251

Prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtsio berezia .....	252-253
Kasazio-errekurtsioa.....	254-255
Legearen intereserako errekurtsioa.....	256
Epai irmoak berrikustea .....	257
Epai irmoen hutsalketa .....	258
Ebazpen judiziala argitzea.....	259-260

### **Betearazpena**

Irizpide orokorrak .....	261-264
Diruzko betearazpenak.....	265-267
Diruzkoak ez diren betearazpenak .....	268-278
Atzerriko auzitegien betearazpenak .....	279-280
Behin-behineko betearazpena.....	281

Jabari-hirugarrengotza eta eskubide hobeko hirugarrengotza .....	282
--	-----

Kostuen tasazioa .....	283
------------------------	-----

Abokatuaren kontua.....	284
-------------------------	-----

## **ZIGOR ARLOKO JURISDIKZIOA**

Irizpide orokorrak .....	285-291
Intzidentziak eta bestelako jardunak.....	292-301
Atxilotuari laguntzea .....	302
Habeas Corpus prozedura.....	303-305

Falta-epaiketa .....	306-314
----------------------	---------

### **Zinpekoen Epaimahaiaren Legearen menpe ez dauden delituak**

Jardunak Instrukzioko Epaitegian .....	315-330
Jardunak Zigor arloko Epaitegian .....	331-334
Epaiketa azkarrak (38/2002 Legea, urriaren 24koa, PKLren eraldaketari buruzkoa)... ..	335
Jardunak Probintzia Auzitegian .....	336-342

### **Zinpekoen Epaimahaiaren Legearen menpe dauden delituak**

Jardunak Instrukzioko Epaitegian .....	343-352
Jardunak Zinpekoen Epaimahaiko lehendakari magistratuaren aurrean.....	353-356
Ahozko epaiketa Zinpekoen Epaimahaian .....	357-364
Jardunak Auzitegi Nagusian .....	365

### **Epaiaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa**

Jardunak Zinpekoen Epaimahaiko lehendakari magistratuaren aurrean.....	366
--	-----

Jardunak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian .....	367
Jardunak Auzitegi Gorenean .....	368

<b>Adingabeen jurisdikzioa .....</b>	<b>369-382</b>
--------------------------------------	----------------

<b>Errekurtsoak.....</b>	<b>383-389</b>
--------------------------	----------------

<b>Arau-hauste penalak eratorritako erantzukizun zibila.....</b>	<b>390-393</b>
--	----------------

<b>Prozeduraren amaiera, largeste-autoa dela bide.....</b>	<b>394-396</b>
--	----------------

### **Epaien betearazpena**

#### **Espetxe-araubidea**

Jardunak Espetxe Administrazioan .....	397-399
Jardunak Espetxe Zaintzako Epaitegian .....	400-402
Baldintzapeko barkamena, zigorren betearazpena etetea .....	403
Baldintzapeko askatasuna.....	404
Zigor-aurrekariak ezereztea.....	405
Indultua .....	406
Erantzukizun zibilaren betearazpena.....	407

## **ADMINISTRATIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA**

### **ADMINISTRATIO BIDEA**

Administratio-prozedurak oro har .....	408-413
Prozedura Lehiaren Defentsako Zerbitzuan .....	414
Prozedura zehatzailea .....	415-416
Funtzionarioen aurkako diziplina-espedientea .....	417
Administratio-errekurtsoak .....	418
Jardunak hirigintza arloan.....	419-429
Jabetza nahitaez kentzea .....	430-433
Atzerriartasuna eta asilo-eskubidea.....	434-436

#### **Bestelako jardunak**

Kontrabandoa .....	437-441
Enkantea, lehiaketa eta lehiaketa-enkantea.....	442-445
Urak, meatzeak, kostaldeak, zerbitzu publikoak, administratio kontratuak.....	446-450
Izaera orokorreko xedapenak.....	451-452
Lurreko garraioari buruzko adiskidetze- eta informazio-batzordeak .....	453
Itsas arrantzako arau-hauste administratiboak.....	454

## **Tributu arloko jarduna**

Eskabideak .....	455-457
Aldizkako aitorpenak.....	458
Aitorpenak eta likidazioak .....	459-466
Jardunak Ogasun Ikuskaritzan .....	467
Itzultze-espeditentak .....	468
Aurrekontuak eta zerga-ordenantzak.....	469
Erreklamazio ekonomiko-administratiboak .....	470-473
Tributu eta zerga arloko ordezkaritza.....	474-476

## **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA**

### **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa**

Irizpide orokorrak .....	477-478
Prozedura arrunta .....	479
Prozedura laburtua.....	480
Bestelako prozedurak.....	481-484
Kautela-neurriak .....	485
Erregu-errekurtsoa .....	486
Jurisdikzio-gatazkak.....	487

## **LAN ARLOKO JURISDIKZIOA**

### **Epaiketaz kanpoko gaiak**

Kontratazioa eta arauketa.....	488-496
Diziplina arloko jardunak eta bestelako komunikazio-egintzak .....	497-499
Gatazka kolektiboak, greba eta ugazabek enpresa ixtea .....	500
Jardunak Lan-ikuskatzailtzan .....	501-506
Enplegu-erregulazioko espeditentea eta kontratua etetea .....	507-511
Jardunak Alokairuak Bermatzeko Funtsean .....	512-513
Prestazio arruntak eskatzea .....	514-517
Lanean segurtasun- eta higiene-neurriak ez egotea.....	518-523
Gatazka kolektiboak ebazteko epaiketaz kanpoko prozedurak.....	524
Jurisdikzio-bidearen aurreko erreklamazioak .....	525-526

### **Epaiketako gaiak**

Intzidentziak eta bestelako jardunak .....	527-539
Prestatzeko egintzak eta zuhurtziazko neurriak .....	540-544
Lan-kontratua azkentzeari eta zehapenei buruzko epaiketa .....	545-549
Kopuru-erreklamazioari buruzko epaiketak .....	550-552
Plantila osatzeari buruzko epaiketak.....	553
Gizarte Segurantzako prozesuak .....	554-572
Bestelako lan-prozedurak .....	573-583

Errekurtsoak .....	584-591
Epaien eta adiskidetze-ekitaldien betearazpena .....	592-599
Kostuen tasazioa .....	600

## **BESTELAKO AUZITEGI ETA ERAKUNDEAK**

### **JARDUNAK KONSTITUZIO AUZITEGIAN**

Jardunak Konstituzio Auzitegian .....	601
Konstituzio-aurkakotasun arazoa .....	602
Gatazkak eta aurkaratzeak .....	603
Babes-errekurtsoa .....	604

### **JARDUNAK NAZIOARTEKO ORGANO ETA JURISDIKZIOETAN**

Irizpide orokorrak .....	605
Europako jurisdikzioa giza eskubideen arloan .....	606-609

#### **Europako Erkidegoko zuzenbidea**

Batzordean izapidetzen diren gaiak .....	610
Lehen Auzialdiko Auzitegian izapidetzen diren gaiak .....	611-617
Justizia Auzitegian izapidetzen diren gaiak .....	618-619
Erromako Ituna edo Europako Konbentzioa .....	620
Estatu kideen ez-betetzeak .....	621
Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegia .....	622

#### **NBEko Giza Eskubideen Batzordea .....**

#### **ELIZ AUZITEGIAK .....**

#### **GORTE NAGUSIAK, EUSKO LEGEBILTZARRA, BATZAR NAGUSIAK, ETAB. ....**

#### **HERRI-DEFENDATZAILEA, ARARTEKOA ETA ANTZEKO ERAKUNDEAK .....**

#### **KONTUEN AUZITEGIA, HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA ETA BESTE ERAKUNDE BATZUK .....**

#### **TARTEKARITZA BATZORDEAK (EUSKADIKO ESTATUTUAREN 39. ART.) .....**

# XEDAPEN OROKORRAK

**Lehenengoa. Aplikazio-eremua.** Baremo orientatzaile hauek Consejo Vasco de la Abogacia-Legelarien Euskal Kontseiluari dagokion lurralde-esparruan aplikatuko dira.

**Bigarrena. Abokatuaren ordainketa.** Abokatuak eskubidea du zerbitzu profesionalaren truke diru-konpentsazio zuzena jasotzeko; zerbitzu horren ordainketak ordainsaria osatzen du. Ordainsarien zenbatekoa bezeroarekin hitzartzen da askatasunez, eta horren muga bakarra abokatutzaren arau deontologikoak eta lehia askearen erregelak errespetatzean datza.

Aurkako itunik behar bezala egiaztatuta ez badago, telefonoa erabiltzeak, faxak bidaltzeak, kopiak egiteak eta antzekoek sortutako ohiko gastuak jardun profesionalarengatik sortutako ordainsarietara bilduta daudela ulertuko da.

**Hirugarrena. Arau hauen orientazio-izaera.** Baremo hauek abokatuaren zerbitzu profesionalari dagozkion ordainsariak kalkulatzeko balio dute, eta bezeroarekin beren beregiko hitzarmenik ez dagoenean ordainsariok finkatzeko erabili beharreko irizpideak jasotzen dituzte. Edonola ere, hitzartutakoaren aurrean izaera ordeztaila izango dute.

Baremoetan jasotako zifra guztiak prezio orientatzailetzat hartuko dira eta ez da komeni ordainsariak horien azpitik ezartzea.

**Laugarrena. Kostuak ordaintzera kondenatzea.** Segurtasun juridikoari, objektibotasunari eta prozesuko alderdien berdintasunari lotutako arrazoiek eskatzen dute ebazpen judizial, administratibo edo tartekaritzako bat dela bide aurkako alderdiari jasanarazi ahal zaion ordainsarien minuta nahitaez baremo hauen arabera kalkulatu beharra, komenigarritzat jotako zenbatekoei begira, eta horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira. Gainera, kasu horietan eta seigarren xedapen orokorreko irizpideak aplikatuz bidezkoa denean, kostuei begira irabazi duen alderdiko abokatuak bere bezeroari eskatu ahal izango dio ordainsari gisa egokitzen jotzen duen kopuru osagarria ordaintzea, betiere, aurretik adierazitako irizpide orokorren arabera finkatu bada.

**Bosgarrena. Lehia aske eta leiala.** Abokatuaren zerbitzuak baremo hauetan ezarritako ordainsariengatik baino gutxiagotatik behin eta berriro eskaini edo ematea abokatuaren arteko lehia aske eta leialaren araubidearen aurka badao, orduan jokabide horiek lanbideko fede onaren eta duintasun-arauek aurkakotzat joko dira.

**Seigarrena. Ordaintzeko irizpideak.** Egindako lan profesionala izango da bezeroen arazoetan esku-hartze profesionalagatik abokatuari dagozkion ordainsarien oinarria; ordainsariok zehazteko hainbat irizpide erabiliko dira, besteak beste, honako hauek: arazoaren zenbatekoa edo oinarri ekonomikoa; abokatuaren esku-hartze profesionalak bezeroarentzat dakarren onura; abokatuaren ardurapean jarritako arazoaren konplexutasuna; abokatuaren dedikazioa eta erabilitako denbora; abokatuaren hautatzerakoan eskatu den edo erabakigarria izan den espezializazio maila; eta, azkenik, abokatuaren lanak geroagoko jardun judizial edo administratiboak saihesteko balio izatea.

Edozein jurisdikziotako prozeduran kopuruak eskatzen direnean edo zenbateko zehatzeko uziak daudenean, zenbait ordezkatu eta/edo defendaturen alde, horien baturari dagokion eskala aplikatuko da, eta horrela lortutako emaitza bezeroen kopuruarekin zatituko da bakoitzak duen interesaren arabera; hala ere, hamaseigarren xedapen orokorra ere aplikatuko da. Irizpide hori ez da aplikatuko zenbait ordezkatu

defendatzen diren transakzioetan; kasu horretan zenbat bezero izan eta hainbat minuta igorriko dira, bakoitzaren interes ekonomikoa kontuan hartuta.

**Zazpigarrena. Jardun judizialeko ordainsariak kalkulatzeko.** Jardun judizialean, auziaren zenbatekoa izango da ordainsariak zehazteko irizpide nagusia; horretarako, auziaren benetako interes ekonomikoa hartu beharko da kontuan, erabaki judizialaren menpe jarritako arazoaren benetako garrantziari eta inguruabar guztiei erreparatuz; modu horretan, saihestu nahi da irizpide nagusia aplikatuz lortutako ordainsariek eta egindako lanak loturirik ez izatea.

Ordainsariak kalkulatzeko unean, auziaren zenbatekoa baremo hauen arabera finkatzea ezinezkoa bada, orduan Prozedura Zibilaren Legean auziaren munta kalkulatzeko ezarritako modua aplikatuko da.

Demandan, erantzunean edo edozein izapide judizialean adierazi eta/edo zehaztutako zenbatekoa loteslea da alderdientzat, ordainsariak zehazteko oinarria finkatzeari dagokionez, aurkako alderdiak onartu eta/edo eztabaidatu ez badu.

Eztabaidarik sortuz gero, Elkargo bakoitzeko Gobernu Batzordeak finkatuko du hura, egokitzen dituen izapideak bete ondoren.

Edonola ere, salbuetsita daude prozeduraren zenbatekoa Prozesuko Legeek finkatu arren ordainsarien baremoek zenbatekoa eta/edo horien oinarria zehazteko beste irizpide batzuk ezartzen dituzten kasuak. Kasu horietan, ordainsarien baremoek izango dute lehentasuna.

Baremo hauek ordainsarien zenbatekoak eta/edo horiek zehazteko oinarriak ondasun higiezinaren balioari aipamen egiten badio —ondasun higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek egindako zerga-egiaztapenerako balorazioaren arabera—, eta balorazio hori ez badago, orduan ondasun higiezinak auziaren hasieran duen benetako balioa hartuko da kontuan.

**Zortzigarrena. Denbora ordainketa-irizpide gisa erabiltzea.** Ordainsariak zehazteko irizpide bakar edo nagusi gisa abokatuak erabilitako denbora kontuan hartzeko, alde aurretik bezeroari adierazi beharko zaio inguruabar hori eta bezeroak onartu; kasu horretan, gainera, bezeroari azaldu beharko zaizkio abokatuak denbora tarte bakoitzeko ezarritako duen prezioa eta lana egiteko aurreikusitako denbora. Alde aurretik bezeroari hori guztia jakinarazi zaiola eta horrek onartu duela inon jaso ez bada, ordainsariak kalkulatzeari inguruko desadostasun oro ordainsarien baremo hauek bildutako gainerako irizpideen arabera ebatziko da.

**Bederatzigarrena. Baremoen barnean hartutako jardunak.** Auzi judizialeko ezarritako baremoek auzi horien izapide guztiak legean arabera egitea barnean hartzen dute, eta barnean daudela jotzen da aurretiazko kontsulta eta bilera guztiak, aurrekariaren azterketa eta idazkiak edo jardun judizialak prestatu eta aurkeztea —zigor-jurisdikzioan eta jurisdikzio zibilean beren beregi ezarritakoak izan ezik—, baita abokatuak bulegoa zein herritan izan eta herri horren barruan egindako irteerak ere. Jardun judizialak eteteagatik sortutako irteeren minutak modu independentean egin ahal izango zaizkio bezeroari, eta ez zaizkio jasanaraziko kostuak ordaintzera kondenatutakoari. Abokatuak bulegoa zein herritan izan eta hortik kanpo egindako irteerak bezeroari jasanarazi ahal izango zaizkio beti, baina kostuak ordaintzera kondenatutakoari jasanarazi ahal izango zaizkio soil-soilik irteera hori eragiten duen jardun judiziala gertatzen denean prozeduraren izapideak zein egoitzatan egin eta hortik kanpo.

Transakzioetan irizpide bera aplikatuko da.

Auzian zehar agertutako errekurso eta intzidente guztietatik sortutako ordainsariak eta arazo nagusiaren ordainsariak independenteak izango dira.

Prozeduran abokatuak zuzentzen duen alderdiaren ordezkapena ere baldin badauka, orduan ordainsariak gehienez %25 gehitu ahal izango ditu, ordezkapen hori aginduzkoa ez denean, lege edo erregelamenduen arabera.

**Hamargarrena. Aurretiako komunikazioa kostuen tasazioan.** Prozedura judizialean kostuen tasazioa eskatu aurretik, nahitaezkoa izango da aurkako alderdiko abokatuari ordainsarien zenbatekoa jakinaraztea, baita horiek finkatzean erabilitako baremoak eta irizpideak ere, bost eguneko epean alderdi kondenatuak egokitzat dituen ohar edo eragozpenak adieraz ditzan. Desadostasunik badago, gaia Abokatuen Elkargoen irizpenaren menpe jarri ahal izango da, testu honen hamalaugarren xedapenean ezarritakoaren arabera.

**Hamaikagarrena. Ordainsariak jasotzea.** Abokatuak ordainsariak komenigarrien iruditzen zaion moduan eskatu ahal izango ditu, bai balizko azken zenbatekoaren kopurura egokitutakoari dagokion fondo-hornidura gisa, bai egindako lanen gain likidazio partzialak eginez edota amaieran minuta bakarra igorritz.

Zerbitzu profesionalen ordainketa aldizka jasotako kopuru finko bat izan daiteke, betiere, zenbateko hori, elkargoko baremoei dagokienez, emandako zerbitzuen ordainketa zuzena bada.

**Hamabigarrena. Litis kuota.** Litis kuota ituna esangura hertsian hartuta erabiltzea debekatuta dago. Itun hori abokatuaren eta bezeroaren artean dagoela ulertuko da, azken horrek abokatuari emaitzaren atal bat modu eksklusiboan dirutan, ondasunetan, mozkinetan edo balioetan ordaintzeko betebeharra hartzen badu. Izan ere, abokatuak esku-hartzearen kostuei dagokien kopurua jaso beharko du gutxienez.

Ez da litis kuota ituna izango ordainsariak auziari esleitutako balioaren arabera —ordainsarien baremo hauekin bat etorritz finkatua— zehaztea ezartzen duen hitzarmena, ezta minuta murrizteko ituna ere, auzian lortutako emaitza aurretik pentsatutakoa baino txikiagoa bada.

**Hamahirugarrena. Elkargoen ahalmenak.** Elkargoetako Gobernu Batzordeek baremo hauek aplikatu eta/edo interpretatzeko orduan sortutako zalantzak argituko dituzte, eta eurei aurkeztutako ordainsarien minutak handitu, txikitu eta moldatu ahal izango dituzte, batez ere, erreklamazioaren objektu den kopuruaren —ordainsariak kalkulatzeko oinarri gisa hartua— eta epaiaren emaitzaren artean alde argia dagoenean edo minutak abokatuak egindako lanarekin zerikusirik ez duenean.

**Hamalaugarrena. Elkargoen esku-hartzea.** Elkargoetako Gobernu Batzordeei dagokie ordainsarien baremo hauek interpretatzea; hori dela eta, Batzorde horiek jarraian zehaztutako kasuetan iritzia emango dute ordainsarien minuten inguruan sortutako desadostasunei edo zalantzei buruz: ebazpen judiziala tartekaritzakoa, administratiboa, kostuak ordaintzeko kondena ezarri duen prozeduran alderdien arteko baterako erabakia edo abokatuaren eta bezeroaren arteko erabaki erkidea. Azken bi kasuetan, desadostasuna Elkargoko Gobernu Batzordeak ebartziko du, aurretik bi alderdiak beren beregi bere menpean jarrita, betiere, kostuak ordaintzera kondenatutako alderdiak edo bezeroak aurretik Abokatuen Elkargoan ordaintzeko dagoen ordainsarien minutaren zenbatekoa abalatu edo berori kontsignatzen badu, salbu eta abokatu minuta-egileak aurkako alderdia edo bezeroa berme horiek

betetzetik salbuesten duenean. Gobernu Batzordeak bidezko moduan gutxitu ahal izango du kontsignatu edota abalatu beharreko kopurua, egokitzen duen kasuetan, betiere, interesdunei entzun ondoren.

Ordainsari profesionalei buruzko txostenak ere eman ahal izango dira prozedura judizial batean egikaritzeko asmoa duen alderdiak eskatuta, salbu eta Kostuen Tasazioa eskatzen denean Prozedura Zibilaren Legearen 265. eta 336. artikulua eta hurrengoak direla bide; kasu horretan, Elkargoak alde aurretik joko du txostenak uki dezakeen alderdiarengana, kasuan kasuko ordainsariei buruz komeni zaiona alega dezan.

Aipatu kasu guztietan, Gobernu Batzordeak emandako txosten edo irizpenengatik Legelarien Estatutu Orokorren 63.1 d) artikulua araberako Elkargoak ezarritako eskubideak sortuko dira.

Aurretik ezarritakoa gorabehera, Elkargo bakoitzeko Gobernu Batzordeak ez du emango ordainsari profesionalei buruzko irizpenik, ez abokatuak ez partikularrek eskatuta. Hala ere, Ordainsarien Batzordeko kideek jasotako kontsultei ahoz erantzuteko aukera izango dute.

**Hamabosgarrena. Abokatu aldatzea.** Abokatu batek bere ardurapean hartutako gaiaren defentsa eta zuzendaritza uzten duenean, ordu arteko esku-hartzeagatik eta jardunengatik dagokion zenbatekoa jasoko du, eta bere ordeztaritu den abokatuak ondoren egindako jardunei dagozkien ordainsariak jasoko ditu.

Abokatu berriak ardura berezia izango du aurreko abokatuak egindako lanarengatik jaso beharreko ordainsariak eskura ditzan; hori dela eta, bezeroari azaldu beharko dio aurreko abokatuari begira duen betebeharra.

Baremoetan ezarri denean bigarren abokatuak ordu arte esku hartu duenak baino ordainsari handiagoa jasoko duela, igoera hori soil-soilik aplikatuko da kostuak ordaintzera kondenatutako alderdiaren kontura, abokatu aldatzea eragin ez badu kostuei begira irabazi duen auzilariari egotzi ahal zaion arrazoi batek.

**Hamaseigarrena. Esku-hartzaile bat baino gehiago egotea.** Jurisdikzio zibileko, lan arloko edo administrazioarekiko auzien arloko prozedura judizialean demandatzaile edo demandatu bat baino gehiago dagoenean, abokatu bakoitzak baremo hauetan ezarritako ordainsariak %5 gehitu ahal izango ditu esku hartzen duen pertsona bakoitzeko, bitik gora badira, baina gehikuntza hori ezin izango da %40tik gorakoa izan. Irizpide bera aplikatuko da kostuak ordaintzeko kondena dagoen kasuetan; kostuetan irabazle den alderdiak aurkako alderdiari jasanarazi ahal izango dio aipatu gehikuntzak aplikatzetik ateratzen den kopurua.

Kasu hau salbuetsita dago: kostuetan irabazle den alderdia da esku-hartzaile anizkunak dituen eta horiek zenbait abokatu defenditzen dituzte; orduan, abokatu horietako bakoitzak xedapen honen araberako dagokion ehunekoa soilik aplikatu ahal izango du defendituen aniztasuna badu, betiere, bitik gora.

Bi alderdietan (demandatzaileak eta demandatuak) esku-hartzaile bat baino gehiago badaude, orduan bi alderdiei dagozkien ehunekoak handituko dira, %5 esku hartzen duen pertsona bakoitzeko, betiere, bitik gora badira.

**Hamazazpigarrena. Urteko igoera.** Ordainsarien baremo hauek errealitate ekonomikora beti egokituta egon daitezzen, adierazitako kontzeptu finkoei dagokienez (eta ez eskaletan ezarritako ehunekoari dagokienez), baremook Euskal Autonomia

Erkidegoan Kontsumoko Prezioen Indizeak zehaztutako aldakuntza izango dute urtero. Lehenengo eguneratzea 2007ko urtarrilaren 1ean egingo da eta berdin egingo da hurrengo urteetan.

**Hamazortzigarrena. Baremoen aplikazio analogikoa.** Baremo hauek analogiaz aplikatu ahal izango dira bertan ezarri ez diren jardunetan, baita baremo hauek indarrean sartu ondoren sortutako prozedura judicial edo administratibo berrietan ere.

**Hemeretzigarrena. Mandatu-orria.** Komenigarria da mandatu-orri profesionala erabiltzea, abokatuak eta bezeroak sinatuta; bertan jasoko dira abokatuak egin beharreko jardun profesionala eta ordainsarien minuta finkatzeko erabiliko den irizpidea, baita hasieran ezarritako ordainsarien zenbateko osoa eta hasieran ezarri ez diren eta jardun profesionalean sor daitezkeen errekurtsio, intzidente edo antzeko arazoaren minuta egiteko erabiliko diren oinarriak.

**Hogeigarrena. Eskala-tipoa.** Zenbateko zehatzeko prozeduretan ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipo hau ezartzen da:

<b>Zenbatekoa</b>	<b>Ehunekoa</b>	<b>Metatua</b>
1.200 €-raino	%25	300 €
1.200,01 €-tik 4.800 €-raino	%16	876 €
4.800,01 €-tik 6.000 €-raino	%15	1.056 €
6.000,01 €-tik 30.000 €-raino	%8	2.976 €
30.000,01 €-tik 90.000 €-raino	%6	6.576 €
90.000,01 €-tik 120.000 €-raino	%5	8.076 €
120.000,01 €-tik 450.000 €-raino	%4,5	22.926 €
450.000,01 €-tik 600.000 €-raino	%4	28.926 €
600.000,01 €-tik 1.200.000 €-raino	%3	46.926 €
1.200.000,01 €-tik 3.000.000 €-raino	%2	82.926 €
3.000.000,01 €-tik 6.000.000 €-raino	%1,5	127.926 €
6.000.000,01 €-tik gora	%1	

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordainsariei buruzko baremo orientatzaile hauek 2006eko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta data horretatik aurrera abiatutako jardunetan aplikatuko dira.

## **XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

Data horren aurretik abiatutako gainerako arazo judicialen minuta hasierako unean indarrean zeuden baremoen arabera kalkulatu da, Konkurtso Legeko, Tartekaritza Legeko eta Epaiaketa Azkarren Legeko prozedurak izan ezik, horiek baremo hauen arabera arautuko baitira, hasierako data edozein izanik.

# I. EPAIKETAZ KANPOKO JARDUNAK

## AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA

### *Irteerak, kudeaketak, elkarrizketak eta batzarrak*

#### **Irteerak**

1. Bulegotik irtetearen minuta irtete hori eragin duen lan profesionalari dagozkion ordainsariak alde batera utzita egingo da, betiere, jardun judizialaren barruan kokatzen ez bada, kasu horretan azken horri dagokion minutu jasota dagoela ulertuko baita, bederatzigarren xedapen orokorrak ezarritako salbuespenak gorabehera.

2. Irteerari dagokion prezioaz gain, egindako kudeaketaren edo zerbitzuaren gainean beste minuta bat egingo da; baremo zehatzik ez badago, kudeaketa eta/edo zerbitzuan erabilitako denboraren arabera minuta egingo da. Laneko ordua 53 eta 132 € bitartean kobratuko da, gaiaren konplexutasuna, abokatuaren espezializazioa eta esperientzia, eta kontuan hartu beharreko gainerako faktoreak aintzat hartuta. Irteerak eragindako gastuak gehikin gisa hartuko dira eta egiaztatu egin beharko dira.

3. Abokatuak bulegoa zein herritan izan eta horren barruan egindako irteerak: 55 €.

4. Abokatuak bulegoa zein herritan izan eta hortik kanpo egindako irteerak:

a. Autonomia Erkidegoaren barruan egindako irteera: 100 €.

b. Autonomia Erkidegotik kanpo egindako irteera: 165 €.

5. Irteerak ohiko lanorduen erdia baino dedikazio handiagoa eskatzen badu, aurreko baremoen ordainsariak %75 handituko dira. Irteera laneguneko 8etatik 20etara ez bada edo larunbatean edo jaiegunean bada, edo ohiko bizilekutik kanpo lo egitea eskatzen badu, gehikuntza %100 izango da.

#### **Kudeaketak**

6. Eskutitzak, faxak, posta elektronikoak eta bestelako komunikazio informatiboak edo datuak eta aurrekariak biltzen dituzten idazkiak prestatzea: 15 €.

Kudeaketa bezeroarentzat positiboa bada, transakzioei dagokien baremoa aplikatu ahal izango da.

7. Erakunde publiko edo pribatuetan, bulego judizialean nahiz partikularrekin egindako izapide hutseko jardun oro: 30 €.

8. Abokatuak erakunde publiko edo pribatuetan egindako jardunak aurreko baremoan ezarritako kudeaketa baino garrantzitsuagoa eskatzen badu agintariekin, funtzionarioekin, eragileekin, pertsonalarekin, etab.: 50 €.

#### **Elkarrizketak eta batzarrak**

9. Elkarrizketei eta batzarrei dagozkien ordainsariak zuhurtziarakotasunez kalkulatu dira honakoak kontuan hartuta: jorrotutako gaien konplexutasuna edo garrantzia, batzar edo elkarrizketaren iraupena eta abokatuak horretan izandako esku-hartzea. Abokatuak, esku hartzeaz gain, batzarraren akta egiten badu, 36. baremoko irizpidearen arabera egingo du minuta.

10. Batzarrak eta elkarrizketak beste abokatu batekin edo batzuekin: 85 €.

**11.** Batzar, bilkura, bilera, administrazio-kontseilu, konpentsazio-bilkura, jabe-erkidegoen eta bestelako elkarteen bilkurak: komeni da kopurua 300 € baino txikiagoa ez izatea, betiere, horietan parte hartzea noizbehinkakoa edo kasuan kasukoa bada, hau da, etengabeko aholkularitzaren barruan sartzen ez bada.

Abokatuaren parte-hartzeak bertako guztiak aholkatzea edo aholku orokorra ematea helburu duenean, aurreko ordainsariak %50 igo daitezke.

**12.** Lan-saioak bezeroekin eta beste pertsona batzuekin, gaiarekin zerikusia dutenak, abokatuak bertaratu zein ez: 85 €.

### ***Izaera orokorreko aholkularitza-jardunak***

#### **Kontsultak**

**13.** Abokatuaren bulego profesionalean egindako kontsulta, unean bertan erantzun daitekeena, ordu erdiko tartean baino laburragoan: 55 €.

**14.** Iraupen luzeagoko beste edozein ahozko kontsulta edo agiriak eta aurrekariak edo gaia zehatz aztertzea eskatzen duena edo ordu eta inguruabar berezietan gertatzen dena: 85 €.

#### **Irizpenak eta txostenak**

**15.** Kontsultei idazki, ohar edo txostenaren bidez erantzutea, konplexutasun handirik ez duen arazo baten inguruan: 135 €.

**16.** Aurrekariak azaldu eta iritzi juridikoak eta ondorioak aplikatzen dituen irizpena edo txostena: ordainsariak finkatzeko, aztertu edo kontsultatu den arazoaren konplexutasuna, ondareari begira duen garrantzia, txostenaren edo irizpenaren luzera, etab. hartuko dira kontuan, baina komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 275 €.

## **KONTRATUAK ETA AGIRIAK**

### ***Agiri publikoetan esku hartzea***

**17.** Fede-emaile publikoak baimendutako aktak egiteko minutak edo oharrak idaztea: kontratueterako ezarritako baremoen arabera kalkulatu da.

**18.** Fede-emaile publikoak baimendutako eskritura, poliza, akta, kontratu, eta abarren egilespen eta sinaduran egotea: 90 €.

**19.** Abokatuak berak ahalorde edo mandatu bidez esku hartzen badu fede-emailearen eginbideetan: 150 €.

### ***Kontratuak idaztea***

**20.** Abokatuak, agiria idazteaz gain, zuzen-zuzenean parte hartzen badu negozio juridiko dokumentatuaren funtsezko baldintzak negoziatzen, jarraian ezarritako ordainsariak %50 handitu ahal izango dira, eta, kasu horretan, beharrezko izan diren kudeaketa eta/edo batzarren minutak ez dira aparte egingo. Gehikuntza bera bidezkoa izango da ondoren bezeroak horiek zabaldu eta/edo erabiliko dituela aurreikusiz gero.

**21.** Kontratuak idazteagatik eskala hau aplikatuko da, baina komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

3.000 €-raino: %4

Aurrekoa gainditu eta 15.000 €-raino: %1,5

Aurrekoa gainditu eta 150.000 €-raino: %1

Aurrekoa gainditu eta 360.500 €-raino: %0,60

Aurrekoa gainditu eta 750.000 €-raino: %0,30

Kopuru horretatik gora: %0,20

**22.** Kode Zibilaren edo legeria bereziaren menpeko errentamendu-kontratueta eta, oro har, errenta edo aldizkako prestazioen kontratueta, kontratuaren iraupen osoari dagozkion errenten edo aldizkako prestazioen batura oinarritzat hartuko da; gehien jota bost urteko tartea kontuan hartuko da.

**23.** Ezkontza-kapitulazioak eta ezkontza-egoerei buruzko itunak egilesteko minutaren idazketa. Kontratuetaarako ezarritako baremoak aplikatuko dira.

Gainera, ezkontzaren ondasun-eraentza desegin eta likidatzen bada, oro har, aktiboaren balioa oinarritzat hartuko da. Baina aktiboa modu esanguratsuan gutxitzen bada pasiboaren eraginez edo pasiboaren likidazioak eta banaketak abokatuaren jardunean eragin berezia badu, horren balioak ordainsariak kalkulatzeko oinarria osatuko du.

Bi abokatuk esku hartuz gero, bakoitzak bere bezeroaren ondasunak hartuko ditu oinarritzat.

**24.** Idatzitako kontratuak berrikusteagatik idazketari dagokion kopuruaren %25 eta %75 bitarteko ordainsariak jasoko dira, egindako lanaren arabera eta testua aldatzen den edo ez kontuan hartuta; testua aldatu dela ulertu beharko da, jatorrizkoan funtsezko edozein aldaketa gertatu bada.

Ehuneko eta irizpide berberak erabiliko dira kontratu bat azkentzeko agiriak idazteagatik.

## **SOZietATEAK ETA BESTELAKO ELKARTEAK**

### ***Sozietateen eraketa, aldarazpena, transformazioa, bat-egitea, desegitea eta likidatzea***

**25.** Merkataritzako sozietateak eratzea, ekarpenen eta titulazioaren azterketa, hala denean, eta estatutuen idazketa. Gizarte-kapitalaren eta erreserben oinarriaren gainean eskala-tipoaren %25 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

Sozietate zibil irregularren kasuan, oinarria gizarte-kapitala izango da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**26.** Estatutuen funtsezko aldarazpena, nolabaiteko konplexutasuna duenean. Gizarte-kapitalaren eta erreserben oinarriaren gainean aurreko baremoaren %75 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 450 €.

Estatutuen eraldaketaren arrazoia baldin bada objektu-aldaketa, gizarte-kapitala handitzea edo murriztea, edo egokitze hutsa dakarren inguruabarra, orduan aurreko ehunekoa %25 izango da.

Sozietate zibil irregularren kasuan, gizarte-kapitalaren oinarriaren gainean %10 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 100 €.

**27.** Sozietateen transformazioa legezko forma aldatzeagatik, balantzea eta estatutu berriak egitea nahitaezkoa denean. 26. baremoan gomendatutako irizpidea eta kopurua aplikatuko dira.

**28.** Sozietateen bat-egiteak eta irenspenak eta izaera ekonomikoa duten asoziazio-erakundeen eraketa, estatutu berriak idaztea beharrezkoa denean. Tartean dauden konpainien gizarte-kapitalen baturaren gainean edo erakunde berriaren gizarte-kapitalaren gainean, aurrekoa baino handiagoa bada, eskala-tipoaren %25 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

**29.** Sozietateak desegitea eta likidatzea —sozietate zibil irregularrak barnean hartuta—, egoeraren balantzea egitea beharrezkoa denean. Minuta egiteko gizarte-aktiboaren balioa hartuko da.

a. Aktiboa bazkideen artean zatitzen bada, eskala-tipoaren %20 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

b. Aktiboa bazkideen artean zatitu behar ez bada, eskala-tipoaren %15 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

c. Epaiketaren bidez egiten bada, eskala-tipoaren %40 aplikatuko da; komeni da kopurua izapideak egin zaizkion prozeduraren baremo arautzaileetan adierazitako kopurua baino txikiagoa ez izatea.

**30.** Jabeen Erkidegoetako Estatutuak idaztea, aldaraztea, etab.

a. Jabeen Erkidegoetako Estatutuak idazteagatik, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

b. Jabeen Erkidegoetako Estatutuen funtsezko aldarazpenengatik, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

### ***Enpresen eta sozietateen aholkularitza juridikoa***

**31.** Lan-loturaren menpe ez dauden abokatuaren zerbitzu profesionalak, zerbitzuok enpresako bulegoetan bertan emateko betebeharra dagoenean, aurretik ezarritako ordutegiaren arabera. Denborari dagokion baremoko irizpidea aplikatuko da; hala ere, %50 arteko murrizketa itundu ahal izango da, beharrezkoa den ordu kopuruaren arabera eta enpresarekin dagoen loturaren arabera.

**32.** Lan-loturaren menpeko abokatuaren zerbitzu profesionalak:

a. Abokatuaren lan-kategoriak izan behar du, nahitaez eta gutxienez, sektoreari dagokion hitzarmen kolektiboan ezarritako goi-tituludunarena; abokatuaren ordainketa kalkulatzeko, baremo hauetan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

b. Zerbitzu juridikoak barnean hartuko du aholkularitza soilik edo auzitegietan eta erakundeetan esku hartzea soilik, edo aurreko bi kasuak, hitzartutako kontratuaren arabera. Eman beharreko zerbitzuak behar den beste zehaztu ez badira, orduan aholkularitza lana soilik egingo dela joko da.

c. Abokatuari lanaldi partzialeko kontratua egin bazaio, iguala bidezko kontratazioa balitz bezala hartuko da.

d. Esku-hartze judizialen kasuetan aurkako alderdiaren aurka kostuak ordaintzeko kondena-erabakia dagoenean, hirugarrenek ordaindu beharreko ordainsari guztiguztiak abokatuari egotziko zaizkio.

e. Hirugarrenei ezarritako kostuak jasotzea —aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera abokatuari bakarrik dagozkionak—, erregela hauen arabera egingo da beti:

e.1 Legelarien Euskal Kontseiluak onetsitako baremo orientatzaileetara egokituko dira.

e.2 Laneko kontratu-loturak aholkularitza soilik hartzen badu eta ez auzitegietako esku-hartzea, azken hori gertatzen bada, ordainsariak hartzea ez da izango enpresak eskatutako eta kondenaren objektu den zenbatekoaren ordainketa oso edo partzialaren arabera; era berean, ez da lehentasun kronologikorik ezarriko.

**33.** Zerbitzu-errentamenduen menpeko abokatuek iguala-araubidean emandako zerbitzu profesionalak:

a. Abokatuaren zerbitzu profesionalak aldizkako ordainketa izan dezakete, lan-loturatik aparte, zerbitzuok modu iraunkorrean emanez gero.

b. Izaera iraunkorreko zerbitzu profesionalen kontratuetan, horien izaera zehaztuko da; horretarako, defentsarako aholkularitza hutsa eta interesdunari edozein jurisdikzio edo erakundetan izandako epaiketan laguntzea bereiziko dira, baita epaiketaz kanpoko erreklamazioak ere.

Zehaztapen zehatzik ez badago, kontratuak aholkularitza soilik barnean hartzen duela ulertuko da.

Aholkularitza soilik dagoenean, ordainketaren zenbatekoa baremo orientatzaile hauetan finkatutakoarekin bat etorri beharko da.

Lotura iraunkorreko kontratuak interesduna epaiketan defenditzea eta/edo laguntzea eskatzen badu, orduan ordainketaren zenbatekoari jardun horiei dagozkien ordainsariak gehituko zaizkio, eta gehienez %50 murriztuko dira.

Horretarako, kontratu-aldi bakoitzaren amaieran hitzartutako igualaren zenbatekoan behar diren zuzenketak egingo dira.

c. Epaiketaren kostuak hirugarren baten kargura izatea erabakiz gero, orduan abokatuaren ordainsarrietan 32. e baremoan ezarritakoa aplikatuko da.

d. Abokatuak ordezteko kasuetan, Legelarien Estatutu Orokorrean eta Elkargoko Estatutuan ezarritakoa aplikatuko da, abokatuak hitzartutakoa ez betetzeagatik duen akzioa gorabehera.

### ***Enpresentzat egindako bestelako azterlanak edo lanak***

**34.** Akzioak, obligazioak, bonuak, ordaindukoak eta tituluak jaulkitzeari buruzko azterlanak eta lanak. Eskala-tipoaren %10 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 900 €.

**35.** Sozietateen oroitidazkiak, kudeaketa-txostenak eta antzeko lanak idaztea. Ordainsariak lanaren konplexutasunaren eta luzeraren arabera kalkulatu dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

**36.** Administrazio Kontseiluko bilkuren aktak idaztea —abokatu-aholkulariak egiten ez baditu—, edo Batzar Orokorretakoak. Ordainsariak akten garrantziaren eta luzeraren arabera finkatuko dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

**37.** Merkataritzako sozietateetako Administrazio Kontseiluko abokatu-aholkulari kargua betetzea. Ordainsariak irizpide hauen arabera kalkulatu dira:

a. Enpresa handia: 4.400 €/urtean. Enpresa handizat joko da 250 langile baino gehiago edo 1.200.000 €-ko kapitala baino handiagoa edo urteko salmenten zifra 4.500.000 € baino handiagoa denean.

b. Enpresa ertaina: 2.915 €/urtean. Enpresa ertainizat joko da 100 langile baino gehiago baina 250 baino gutxiago dituen edo kapitala 300.000 €-koa baino handiagoa eta 1.200.000 €-koa baino txikiagoa duena, edo urteko salmenten zifra 1.500.000 baino handiagoa baina 4.500.000 € baino txikiagoa bada.

c. Enpresa txikia: 2.145 €/urtean. Gainerakoak enpresa txikitzat joko dira.

37.1 Ordainketa horiek abokatu-aholkulariak administrazio-organoaren batzarretan egindako esku-hartzeari dagozkio soilik, abokatuak horietan agertzea nahitaezkoa denean, eta guztiz independenteak dira sozietateak agindutako beste edozein jardun profesionali dagozkion ordainsarrietatik edo bestelako karguengatik —baita kontseilari edo kontseiluko idazkari karguengatik ere— dagozkion ordainketetatik.

Baremo honetan ezarritako gutxiengoetan bilduko da urtean gehienez hamabi saiotara joatea, eta %10 gehitu beharko da urte baten barruan hamabi saio horiek gainditzen dituzten saio bakoitzarengatik.

37.2 Administrazio Kontseiluko idazkari karguan aritzeagatik, bertako bokala izan zein ez eta horretan aritzeagatik jaso dezakeen zenbatekoa gorabehera, aurretik adierazitako kasuetan, zenbateko berberak jasoko dira, %20ko gehikuntzarekin. Gehikuntza hori ez da bidezkoa izango abokatu-aholkulariaren karguan eta Administrazio Kontseiluko idazkari karguan aldi berean arituz gero; bi karguak bereizita ordaindu beharko dira, gutxienez, ezarritako gomendioekin bat etorriz.

Ordainketa horietara biltzen dira urtean Kontseiluko hamaika batzarretara, akziodunen ohiko bilkura batera eta ezohiko beste bilkura batera joatea, baita kasuan kasuko akten idazketa eta beharrezko ziurtagiriak ematea ere.

## OINORDETZAK

**38.** Ondasunak zerrendatzea. Ondasunen zatiketa materiala egiten ez bada jaraunse bakarra dagoelako edo interesdunek hala nahi ez dutelako, 40. baremoko eskalaren %60 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 190 €.

**39.** Azken borondateko xedapenen idazketa. Minuta egiteko, konplexutasuna hartuko da kontuan; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 195 €.

**40.** Jaraunspena zatitzea edo ondasunak esleitzea:

40.1 Esku-hartze eta aholkularitza osoagatik kasuan kasuko eragiketak amaitu arte, hurrengo eskala hau aplikatuko zaio zatitu beharreko ondasunen balio osoari; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

9.000 euroraino: %4

Aurrekoa gainditu eta 48.100 euroraino: %2

Aurrekoa gainditu eta 90.200 euroraino: %1

Aurrekoa gainditu eta 210.400 euroraino: %0,7

Aurrekoa gainditu eta 450.800 euroraino: %0,5

Hortik gora: %0,3

40.2 Zatiketan zenbait abokatuk esku hartzen dutenean, guztiak interesdunek izendatuta, guztiak ados jarrita, kasuan kasuko ordainsariak zati berdinetan zatituko dituzte, eta horiek kalkulatzeko, zatitu beharreko ondasunen balio osoari eskala-tipoa aplikatuko zaio.

40.3 Abokatuak interesdun batek edo batzuek izendatzen badituzte, baina ez guztiek, esku hartzen duen abokatu bakoitzak berari dagozkion ordainsariak kalkulatu dituzte bezeroaren jaraunspeneko ondasunak oinarri hartuta, eta lortutako emaitza %15 handituko du 40.1 baremoa aplikatuz.

40.4 Zatiketa-koadernoak eratzeari dagozkion ordainsarietan, ez dira barruan egongo jaraunspenari lotuta egin daitezkeen bestelako jardunetatik eratorritakoak, bestek beste, jaraunseak izendatzea, zatiketak bide judizialek baimentzea, etab.

40.5 Oinordetza-eragiketak atzerriko legeriaren edo Euskal Zuzenbide Zibilaren Legean jaso gabeko foru-legeriaren arabera edo horiek aplikatuz egiten badira, aurreko atalak aplikatzeari dagozkion ordainsariak %25 handituko dira.

**41.** Testamentu itxia irekitzea eta testamentu olografoa protokoloan jasotzea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**42.** Albazea eta kontulari-banatzailen luzapen-eskaera edo uko egitea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**43.** Jaraunspena inbentario-onuraren arabera onartzea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

44. Onartzeaz gain inbentarioa egin behar bada, ondasun zerrendari buruzko atala aplikatuz ateratzen den kopuruaren minuta egingo da.

45. Ondasunak zatitu edo banatu aurretik transakzioa edo negoziazioa badago eta horretan abokatuak esku hartu badu, orduan aurreko ordainsariak %20 handituko dira.

46. Kontulari-banatzailer datiboa izendatzeko prozeduraren izapideak egiteagatik, ordainsariak kalkulatzeko 40.1 baremoko emaitzari %20 aplikatuko zaio, abokatuak ordezkaturako jaraunsean jarauntsiko ondasunen zenbatekoa oinarri hartuta; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 220 €.

47. Jaraunse-aitorpenaren izapideak notarioaren bidez egiteagatik. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

## **GAUZA ERKIDEA EPAIKETAZ KANPO ZATITZEA**

48. 40.1 baremoko eskala aplikatuko da; oinarri moduan abokatuak ordezkaturakoei dagokien kuotaren benetako balioaren zenbatekoa hartuko da.

## **TRANSAKZIOAK**

49. Transakzioari dagozkion ordainsariak kalkulatzeko, transakzioan emandako kopurua edo transakzioaren objektu den prestazioaren balorazioa oinarri hartuko da. Dena dela, kopurua ordaindu edo transakzioaren objektu den prestazioa gauzatu behar duen alderdiaren abokatuak, ordainsariak kalkulatzeko, hasieran eskaturako kopurua kontuan har dezake, betiere, kopuru horren eta hitzartutakoaren artean argi eta garbi alde handirik ez badago.

Aurreko irizpideen arabera lortutako oinarriari eskala-tipoaren %75 aplikatuko zaio; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 190 €.

50. Transakzioa zigor eta lan arloko prozedura judiziala hasita dagoela egiten bada, egindako jardun judizialei dagozkien kopuruak jasoko dira eta, gainera, transakzio-hitzarmena dela bide, aurreko baremoa aplikatzeari dagokion kopurua jasoko da, baina kasu horretan, bi kontzeptuen batura ez da izango epaiketaren izapide osoei dagokien kopurua baino handiagoa.

Gainerako jurisdikzioetan, egindako jardun judizialei dagozkien kopuruak jasoko dira, %40 gehituta, aurreko paragrafoko muga kontuan hartuta.

## **TARTEKARITZA**

### ***Zuzenbideko tartekaritza***

51. Zenbateko zehatza. Tartekaritza-jardun guztiengatik, tartekari gisa jarduten dutenek ordainsariak banan-banan finkatuko dituzte eskala-tipoa aplikatuz; komeni da bakoitzarentzat ezarritako kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

52. Zenbateko zehaztugabea. Zenbatekoa finkatu ezin denean edo zenbateko hori zehaztugabea denean, tartekari lanetan aritzen direnek ordainsariak zuzentzeriaz bidez finkatuko dituzte, eztabaidaturako gaiaren izaerari, garrantziari, konplexutasunari eta alderdientzat duen interesari erreparatuz; komeni da bakoitzarentzat ezarritako kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

**53.** Alderdiek izendatuta defentsari gisa aritzen direnek tartekarientzat eskala-tipoan ezarritako ordainsarien zenbatekoaren %90 jasoko dute.

### ***Ekitatezko tartekaritza***

**54.** Zenbateko zehatza. Tartekaritza-jardun guztiengatik, tartekari gisa aritzen direnek ordainsariak banan-banan finkatuko dituzte, eskala-tipoaren %90 aplikatuz; komeni da tartekari bakoitzarentzat ezarritako kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

**55.** Zenbateko zehaztugabea. Zenbatekoa finkatu ezin denean edo zenbateko hori zehaztugabea denean, tartekari lanetan aritzen direnek ordainsariak zuhurtziarakotasunez finkatuko dituzte, eztabaidatutako gaiaren izaerari, garrantziari, konplexutasunari eta alderdientzat duen interesari erreparatuz; komeni da tartekari bakoitzarentzat ezarritako kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

**56.** Alderdiek izendatuta defentsari gisa aritzen direnek tartekarientzat eskala-tipoan ezarritako ordainsarien zenbatekoaren %90 jasoko dute.

### ***Tartekaritzen formalizazioa, deuseztasun-akzioa, etab.***

**57.** Tartekaritzaren formalizazio judiziala:

a. Zenbateko zehatza. Eskala-tipoaren %25; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

b. Zenbateko zehaztugabea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**58.** Laudoaren deuseztatze-akzioa.

Kasuan kasuko epaiketa adierazleari dagozkion baremoak aplikatuko dira, prozeduraren zenbatekoa oinarri hartuta.

**59.** Laudoaren nahitaezko betearazpena. Ordainsariak kalkulatzeko, epaiaren betearazpena dela joko da.

**60.** Nazioarteko tartekaritza. Ordainsariak zuzenbideko edo ekitatezko tartekaritza-kasuetan bezala aplikatuko dira, %25 handituta.

**61.** Kontsumo arloko tartekaritza:

a. Tartekaritza-eskaera idaztea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 55 €.

b. Tartekarien abstentzioa eta ezespena. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 55 €.

c. Entzunaldi-izapidea: ahozko edo idatzizko alegazioak, froga proposatu eta gauzatzea. Ahozko epaiketetarako ezarritakoaren arabera egingo da horien minuta.

**62.** Erakundeen tartekaritza: tartekarien ordainsariak tartekaritzaz arduratzen den erakundeak ezarritako baremoen arabera arautuko dira; alderdien abokatuen kasuan, berriz, ordainsariak zehazteko baremo hauek erabiliko dira.

## **EPAIKETAZ KANPOKO HIPOTEKA-PROZEDURAK**

**63.** Ondasun higiezin, ondasun higigarrien edo bahitutako ondasunen hipotekaren epaiketaz kanpoko betearazpen-prozedura. Kopuru nagusiari eta zordundutako muga-eguneratutako interesei betearazpen judizialak arautzen dituzten baremoak analogiaz aplikatuko zaizkie, %25eko kenketarekin.

## FINKAK JABETZA ERREGISTROAN IMMATRIKULATZEA

**64.** Finkak Jabetza Erregistroan immatrikulatzea, eskuratze-titulu publikoaren bidez:

- a. Jakinarazitakoak aurka jarri gabe: eskalaren %30 aplikatuko da bezeroaren finkaren balioaren gain, higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera, zamak egon arren zuzenketarik egin gabe; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 385 €.
- b. Aurkakotasunik badago, eskalaren %50 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 535 €.

## II. EPAIKETAKO JARDUNAK

### JURISDIKZIO-GATAZKAK

**65.** Jurisdikzio-gatazka positibo eta negatiboak bideratzeagatik —Auzitegian edo Jurisdikzio Gatazken Salan bideratutakoak, maiatzaren 18ko 2/87 LOren arabera— minuta egingo da arazoaren garrantziari eta zailtasunari erreparatuz. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 660 €.

### ESKUMEN-GATAZKAK

**66.** Jurisdikzio desberdinen arteko gatazkak: 330 €.

### ARLO ZIBILEKO JURISDIKZIOA

#### *Irizpide orokorrak*

**67.** Ordainsariak kalkulatzeko, prozeduraren zenbatekoari buruzko hogeigarren xedapen orokorra aplikatuko da. Zenbateko hori baremo hauetara bildutako irizpideen arabera kalkulatu da eta, horietan ezarri gabeko kasuetan, Prozedura Zibilaren Legeko 251. artikuluko irizpideak aplikatuko dira.

Ordainsariak kalkulatzeko, gainera, abokatuak epaiketa arrunta baino lehenagoko entzunaldian, epaiketa arruntean, ahozko epaiketako ikustaldian —PZLn intzidente-prozeduretarako ezarritako ikustaldiak eta/edo agerraldiak barne hartuta— eta betearazpenari egindako aurka-jartzearen ikustaldian esku hartu duen hartu beharko da kontuan. Komeni da aurreko horietan esku hartzeagatik ordainsariak kopuru hau baino txikiagoa ez izatea:

Aurretiazko entzunaldia: 85 €.

Epaiketa arrunta: 165 €.

Ahozko epaiketako ikustaldia: 165 €.

Betearazpenari egindako aurka-jartzearen ikustaldia: 165 €.

Kopuru horiei gehituko zaizkie eskala aplikatuz ateratzen direnak eta/edo baremo hauetan prezio orientatzaile gisa agertzen diren kopuruak; komeni da ordainsariak prezio orientatzaile horiek baino txikiagoa ez izatea.

**68.** Zazpigarren xedapen orokorrean ezarritakoa gorabehera, prozeduraren zenbatekoa zehaztuko du eskatutako kopuruak edo auziaren objektuak auzia abiatzean zuen balio ekonomikoak; horretarako, autoetan jasotako datuetatik —kontrajartzeko aukera dutenak— arrazoiz ondorioztatzen den uziaren benetako interesari edo garrantziari erreparatuko zaio. Kontratua azkendu nahi denean, prozeduraren zenbatekoa ezarriko du kontratu horren zenbatekoak.

**69.** Epaiketa arruntetan aurreko baremoko irizpideekin zenbatekoa finkatzea ezinezkoa bada edo epaiketa arrunta zenbateko balioetsiezinekoa bada, ordainsariak finkatzeko oinarri adierazle moduan 18.000 euroko kopurua ezartzen da, gaia dela-eta epaiketa arruntei dagozkien baremoetan zehazki ezarritakoa kenduta.

Zenbateko balioetsiezineko akzio bat baino gehiago egikaritzen direnean, ordainsariak finkatzeko oinarri adierazle moduan 18.000 euroko kopurua ezartzen da. Zenbateko zehatzeko akzioak eta zenbateko balioetsiezina duen akzio bat edo zenbait egikaritzen badira, akzio zehatzen zenbatekoa batuko da, eta zenbateko balioetsiezina dutenentzat oinarri bakarra hartuko da kontuan.

**70.** Aurreko baremoan ezarritakoa gorabehera, oinarria zehazteko, metatutako akzioen edo auzien zenbatekoa batuko da eta, hala denean, errekonbentzioaren zenbatekoa.

Erreklamazio nagusiaz gain kalte-galerengatik kalte-ordaina eskatzen denean, ordainsarien ezarpenerako zenbateko-oinarria finkatzeko, erreklamazio nagusiarri batuko zaio zenbateko zehaztugabeko erreklamazioari dagokiona, kalte-galerak prozeduran zenbatzen ez badira, kasu horretan zifra hori erreklamazio nagusikoari batuko baitzaio. Interesak erreklamatzeko badira, ordainsariak kalkulatzeko oinarri gisa demanda aurkezten den data arte sortutakoak soilik hartuko dira kontuan. Demanda aurkeztu ostean sortutako interesak betearazpen-faseari dagozkion ordainsarrietan hartuko dira kontuan.

**71.** PZLren 220. artikuluko kasuetan, zenbatekoa epaia irmoa den data arte sortutako kopuruen arabera finkatuko da, eta zenbateko horri dagokion minuta %25 gehitu ahal izango da.

**72.** Azken diligentziak egiten badira, betiere, abokatuak esku hartzen duenean edo emaitzari buruzko idatzia egiten duenean, azken ordainsariak %5 handituko dira.

**73.** Auzi-jartzailearen uziei amore emanez gero, horren abokatuak une horretara arte egindako jardunei dagozkien ordainsariak %5 handituko ditu, eta eskubidea izango du baita ere aurrerantzeko egintza prozesalei dagozkien ordainsariak osorik jasotzeko, baldin eta egintza horietarako eguna jarrita badago, amore eman eta hurrengo bost egunetan. Amore eman duenaren abokatuak, ordainsariak kalkulatzeko, seigarren xedapen orokorreko irizpideak hartuko ditu kontuan.

Amore-emate partziala badago, horren ondorengo jardunei dagozkien ordainsariak eztabaidatutako zenbatekoa oinarri hartuta kalkulatu dira.

Edonola ere, amore ematen duen alderdiak amore-emate hori prozedurako gainerako alderdiei jakinarazi diela egiaztatu beharko du, horiek adierazitako aurrerapenaz horren berri izan dezaten.

**74.** Demandatzaileak entzunaldia, epaiketa edo ikustaldiaren aurretik bost egun balioduneko tartean baino laburragoan atzera egin edo uko egiten badu, beste alderdiaren abokatuak eskubidea izango du ordainsariak osorik jasotzeko, entzunaldia, epaiketa edo ikustaldia egin izan balitz bezala, eta atzera egin duenaren abokatuak jardun horri dagozkion ordainsarien %20 jasoko du. Era berean, alderdi batek beste alderdi bati erantzuteko eman dion eskari batean atzera egiten duenean, beste alderdiaren abokatuak ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, izapidea bete izan balu bezala, alegazioak egiteko eman den epearen erdia baino gehiago igaro bada. Bi kasuetan, atzera egiten duen alderdiak atzera-egite hori prozedurako beste alderdiei jakinarazi diela egiaztatu beharko du, horiek horren berri izan dezaten adierazitako aurrerapenaz.

**75.** Amore ematea, atzera egitea, uko egitea, uzia prozesutik kanpo betetzea edo antzekoa badago, orduan gomendatutako ordainsariak baino txikiagoak jasoko dira; ordainsari horiek benetan egin diren izapide judizialetera egokitu beharko dira.

### ***Doako laguntza juridikorako eskubidearen aitortzea edo ukapena aurkaratzea***

**76.** Doako laguntza juridikoaren aitortzea edo ukapena aurkaratzea. Aitortzea zein arazoren inguruan eskatu eta horri dagozkion ordainsarien %15 aplikatuko da.

### ***Adiskidetze-ekitaldiak***

**77.** Adiskidetzeko idazkia edo horri erantzuteko minuta idaztea. Seigarren xedapen gehigarriko irizpideak kontuan hartuz kalkulatu dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 100 €.

**78.** Ekitaldira joateagatik:

a. Bat-etortzerik gabe: 70 €.

b. Bat-etortzearekin. Transakzioei dagokien baremoa aplikatuz ateratzen dena jasoko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 190 €.

### ***Deklinatoria***

**79.** Deklinatoria-proposamenagatik edo auzitegiaren jurisdikzio edo eskumenari eusteko alegazioengatik eskala-tipoaren %15 aplikatuko zaio aurrekoa zein arazotan planteatu eta horren zenbatekoari; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 135 €.

### ***Prozesuak metatzea***

**80.** Prozesuen metaketan esku hartzeagatik, auzitegi berean epaitu gabe badaude; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 190 €.

Esku-hartzea auzitegi desberdinetan egiten bada eta auzitegi errekerituan errekeritzailearen aurrean alegatutako datu edo argudioez bestelakoak alegatzen badira, aurreko paragrafoan adierazitakoari beste horrenbeste gehituko zaio.

**81.** Auzitegien artean desadostasuna sortzen bada errekeritutako auzitegiak prozesuen metaketa onartzen ez duelako eta goragoko auzitegi eskudunean alegazioak egiten badira, aurreko baremoa aplikatzean ateratzen diren ordainsariak %10 handituko dira.

### ***Atariko eginbideak***

**82.** Edozein eginbide eskatzean eta horren aurka egitean, minuta egiteko eskala-tipoaren %15 aplikatuko da zenbateko zehatzeko kasuetan, eta zenbateko zehaztugabeko kasuetan, seigarren xedapen orokorreko irizpideekin bat etorriz kalkulatu da; komeni da bi kasuetan kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**83.** Atariko eginbideak egiteko ukoaren aurkako gora jotzeko errekurtoa. Aurreko baremoa aplikatuz ateratzen den kopuruaren %60 jasoko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**84.** Ikustaldia egiten bada, aurreko baremoen arabera kalkulatu da ordainsariak %15 handituko dira.

**85.** Intzidentea ebazteko autoaren aurkako gora jotzeko errekurtoa. 82. baremoa aplikatzean ateratzen den kopuruaren %60 jasoko da.

**86.** Kauzioa aplikatzearen intzidentziari buruzko entzunaldi-izapidean esku hartzea. Eskatutako kopuruetan eskala-tipoaren %10 aplikatuko da.

**87.** Kauzioa aplikatzearen aurkako gora jotzeko errekurtoa. Aurreko baremotik ateratzen den kopuruaren %60 aplikatuko da.

### ***Ezestea***

**88.** Auzitegi Zibiletako epaileen, magistratuen eta idazkarien eta Justizia Administrazioako ofizial, laguntzaile eta agenteen ezeste-intzidentea:

a. Ezetsiak alegatutako arrazoia benetakoa dela onartuz gero, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 100 €.

b. Alderantzizko kasuan, intzidentearen izapide guztiengatik, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 275 €.

### **Lekukoen eta adituen narria**

**89.** Prozedura zibiletan lekukoen edo adituen narrio-arazoa sortzen bada, ordainsariak handitu ahal izango dira honetara:

- a. Frogarik egiten ez bada, ordainsariak %5 handituko dira.
- b. Froga eginez gero, ordainsarien handitzea %10ekoa izango da.
- c. Komeni da bi kasuetan kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 70 €.

### **Intzidente-arazoak eta prozesuko bestelako intzidentek**

**90.** Prozedura zibiletan pertsonatze hutseko idazkiak: 45 €.

**91.** PZLren 387-393. artikuluetan araututako intzidente-arazoak:

- a. Zenbatekoa dutenak. Eskala-tipoaren %20 aplikatuko da intzidente-oinarriaren zenbatekoaren gain; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 140 €.
- b. Zenbatekorik ez dutenak edo prozesuko baldintzetatik eta betekizunetatik sortzen direnak; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 140 €.

**92.** PZLko manuetan araututako bestelako intzidentziak:

- a. Agirien froga-balioa aurkaratzea PZLren 320. eta 326. artikuluetako kasuetan: 70 €.
- b. Uzia prozesutik kanpo betetzeagatik edo gertatze bidez objekturik gabe geratzeagatik prozesua amaitzearen inguruko jardunak:
  - b.1 Aurka-jartzerik gabe:  
Demandatzailearen abokatuak: 70 €.  
Alderdi demandatuaren abokatuak amore-emateari dagozkion baremoen arabera ezarriko ditu ordainsariak.
  - b.2 Aurka-jartzea dagoenean, hau da, PZLren 22.2 artikuluan ezarritako agerraldia egiten bada. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 135 €.
- c. Jardunak berregiteko espedientean abokatuak esku hartzea:
  - c.1 Eztabaidarekin: 165 €.
  - c.2 Eztabaidarik gabe: 100 €.
- d. Deuseztasun-intzidentek:
  - d.1 PZLren 227. artikuluan araututakoak: 140 €.
  - d.2 PZLren 228. artikuluan araututakoen minuta egiteko, eskala-tipoaren %25 aplikatuko zaio prozesuaren zenbatekoaren oinarriari; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.
- e. Eragindako parte-hartzea, PZLren 14. artikuluan araututakoa:
  - e.1 Demandatzaileak eskatuta. onartuz gero, kasuan-kasuko epaiketari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta ordainsariak zehazteko esku-hartzailearen benetako interesari erreparatuko zaio.  
Onartzen ez bada, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.
  - e.2 Demandatuak eskatuta. On iritziz gero, kasuan-kasuko epaiketari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta ordainsariak zehazteko esku-hartzailearen benetako interesari erreparatuko zaio.  
Gaitz iritziz gero, intzidentean esku hartzeagatik, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.
  - e.3 Hirugarrenak bestearen lekua hartzen duenean, intzidentean esku hartzeagatik komeni da kopurua 200 € baino txikiagoa ez izatea; hala ere, kopuru horri prozedura nagusian egindako jardunei dagokiena gehituko zaio.

### **Epaitu aurreko arazoak**

**93.** Epaitu aurreko arazoetan esku hartzea: 140 €.

## ***Kautela-neurriak***

**94.** PZLren 727. artikuluko kautela-neurriak hartzeari edo aldatzeari buruzko prozesuetan, honela egingo da minuta:

a. Aurka-jartzerik gabe edo entzunaldirik gabe. Eskala-tipoaren %20 aplikatuko da, eta minuta egiteko oinarritzat hartuko da prozesu nagusiari edo prozesu nagusitik neurriarekin bermatutako atalari dagokiona; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 140 €.

b. Aurka-jartzearekin. Eskala-tipoaren %40 aplikatuko da, eta minuta egiteko oinarritzat hartuko da prozesu nagusiari edo prozesu nagusitik neurriarekin bermatutako atalari dagokiona; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**95.** Gainerako kautela-neurriak:

a. Aurka-jartzerik edo entzunaldirik gabe. Eskala-tipoaren %20 aplikatuko da, eta minuta egiteko oinarritzat hartuko da prozesu nagusiari edo prozesu nagusitik neurriarekin bermatutako atalari dagokiona; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 140 €.

b. Aurka-jartzearekin. Eskala-tipoaren %40 aplikatuko da, eta minuta egiteko oinarritzat hartuko da prozesu nagusiari edo prozesu nagusitik neurriarekin bermatutako atalari dagokiona; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**96.** Kautela-neurrien autoaren aurka jartzeko intzidentean —demandatuaren entzunaldirik gabe—, eskala-tipoaren %40ren minuta egingo da, eta minuta egiteko oinarritzat hartuko da prozesu nagusiari edo prozesu nagusitik neurriak ukitutako atalari dagokiona; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**97.** Kautela-neurriaren ordezeko kauzioa edo kautela-neurria desegitea eskatzeagatik, eskala-tipoaren %10 aplikatuko da, eta minuta egiteko oinarritzat hartuko da prozesu nagusiari edo prozesu nagusitik neurriak ukitutako atalari dagokiona; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 135 €.

**98.** Aurka-jartzea egon eta ikustaldia egiten denean, abokatu bakoitzaren minuta egiteko, prozesu nagusiari dagozkion ordainsarien %20 aplikatuko da eta, beraz, aurreko atalean ordezeko kauzioa eskatzen duen abokatuari dagozkion ordainsariak irentsi egingo dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

## **EPAIKETA ARRUNTA**

### ***Ordainsarien banaketa***

**99.** Epaiketa arruntetan esku hartzeari dagozkion ordainsariak honela banatuko dira:

a. %60 demanda edo erantzunagatik.

b. %10 epaiketa baino lehenagoko entzunaldiagatik.

c. %30 epaiketa-faseagatik.

### ***Muntaren ondoriozko epaiketa arrunta***

**100.** Munta zehatzeko epaiketa arrunta. Prozeduraren muntari eskala-tipoa aplikatuko zaio; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

**101.** Baremo hauetan ez dagoen munta balioetsiezineko epaiketa arrunta. 18.000 €-ko oinarri adierazleari eskala-tipoa aplikatuko zaio.

## **Gaiaren ondoriozko epaiketa arrunta**

**102.** Ohorezko eskubideei buruzko demandak: 1.980 €.

**103.** Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babesari buruzko demandak eta oinarritzko beste eskubide baten babes judizial zibila eskatzen dutenak, zuzenketa-eskubideari buruzkoak izan ezik. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.980 €.

**104.** Sozietatearen erabakiak aurkaratzeari buruzko demandak, erabakiok hartu badituzte bazkideen, akziodunen edo obligaziodunen batzek edo merkataritzako erakundeen kide anitzeko administrazio-organismoek edo antzekoek:

a. Aurkaratzeko zioen oinarria deialdia, gauzatzea eta hitzarmenak edo antzekoak egiteko modua badira, zenbateko balioetsiezinekoak direla ulertuko da, eta oinarri adierazlea 18.000 €-koa izango da. Gainerako kasuetan, zenbatekoa zehaztuko du aurkaratutako hitzarmenak duen interes ekonomikoak, eta horri eskala-tipoa osorik aplikatu beharko zaio. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.980 €.

b. Zenbateko balioetsiezineko kasuetan, ordainsariak finkatzeko oinarri adierazlea 18.000 euroko kopurua izango da, zenbait akzio gauzatu arren, guztiak zenbateko balioetsiezinekoak. Zenbateko zehatzeko akzioak eta zenbateko balioetsiezineko akzio bat edo batzuk egikaritzen badira, akzio zehatzen zenbatekoa batu egingo da, eta zenbateko balioetsiezinekoen kasuan oinarri adierazle bakarra kontuan hartuko da.

**105.** Lehia desleialaren, industria-jabetza eta jabetza intelektualaren eta publizitatearen arloko demandak, betiere, modu eskusiboan kopurua erreklamatzeari buruzkoak ez badira —kasu horretan, eskala-tipoa osorik aplikatuko baita—. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

**106.** Kontratazioaren baldintza orokorrei buruzko akzioak egikaritzen dituzten demandak.

a. Baldintza orokorren klausulak ez eransteko adierazpena edo deuseztasun-akzio indibiduala egikaritzen den kasuetan, eskala-tipoa osorik aplikatuko da, eta minuta egiteko oinarritzat hartuko da deuseztasunak ukitutako kontratuaren edo klausulen balio ekonomikoa, salbu eta horrek zenbatekorik ez duelako balioetsiezintzat jotzen denean. Kasu horretan, zenbateko zehaztugabeko edo balioetsiezineko arazoetarako irizpide orokorretan ezarritakoa aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

b. Baldintza orokorren klausulak bukarazteko, atzera jotzeko eta adierazteko akzio kolektiboak egikaritzen diren kasuetan, zenbatekoa balioetsiezina dela ulertuko da eta, gainera, eskala-tipo osoa aplikatuko da eduki ekonomikoa duten ondorioak sortzen badira. Minuta egiteko oinarritzat hartuko dira itzultzeko agindua duten kopuruak edo, hala denean, kalte-ordainari dagozkion kopuruak. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

**107.** Edozein motatako atzera-eskuratze akzioa egikaritzen duten demandak. Eskala-tipoa osorik aplikatuko da; oinarria izango da atzera-eskuratzearen objektuarentzat kontratuan edo epaian finkatutako balioa, azken horretan ezarritako kopurua handiagoa bada; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

**108.** Foru-saka. Eskala-tipoa osorik aplikatuko da, eta oinarria izango da sakaren objektu den ondasunarentzat epaian edo, halakorik ez dagoenean, adituaren txostenean —horrelakorik egonez gero— finkatutako balorazio zuzena. Bestela, ondasun higiezinaren balioa hartuko da kontuan, higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako

balorazioaren arabera, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

**109.** Atzera-eskuratzearen edo foru-sakaren akzioarekin batera eskualdatutako ondasuna kargatzen duen hipoteka-deuseztasunaren akzioa edo uzia dagoenean, uzi horren zenbatekoa balioetsiezin bihurtuko da, salbu eta, atzera-eskuratzearen edo sakaren akziotik bananduta eta modu zehatzean, uzi horren baliagarritasunari aurre egiten zaionean; kasu horretan, akzioaren zenbatekoa hipoteka-mailegu nagusiaren zenbatekoak gehi zorpetutako korrituek, halakorik egonez gero, zehaztuko dute.

**110.** Jabetza Horizontalaren Legeak jabeen batzei eta jabeei eurei aitortutako akzioak:  
110.1 Jabetza Horizontalaren Legeak jabeen batzei eta jabeei eurei aitortutako akzioak egikaritzen direnean, modu eskusiboan kopurua erreklamatzeari buruzkoak ez direnean, eskala-tipoa aplikatuko zaio egikaritutako uziaren zenbateko ekonomikoari, halakorik izanez gero. Horietan eta euren izaera dela-eta balorazio ekonomikoa jaso ezin dutenetan, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

110.2 Egikaritutako akzioak modu eskusiboan kopurua erreklamatzeari buruzkoak direnean (JHLren 21. art.), honela egingo da minuta:

1. Aurka-jartzerik gabe:

a. Aurka-jartzerik ez badago, eskala-tipoaren %50 aplikatuko da.

b. Zordunak ordaintzeko agindeia egiten zaionean edo hurrengo hamar egun baliodunetan ordaintzen badu, aurreko kopuruaren %70 jasoko da.

2. Aurka-jartzea badago, eskala-tipoaren %100 aplikatuko da.

3. Ordainsariak honela banatuko dira:

a. Aurka-jartzea eta erantzuna, %70.

b. Prozeduraren gainerakoa, %30.

Ezarrita ez dauden kasu guztietan, analogiaz, kanbio-epaiketei eta/edo epaien betearazpenei dagozkien baremoak aplikatuko dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 250 €.

110.3 Erabakien izaera dela-eta balorazio ekonomikoa egin ezin bada, horiek aurkaratzeko akzioetan komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

110.4 Erabakietan balorazio ekonomikoa egin ahal bada, eskala-tipoa aplikatuko zaio egikaritutako uziaren zenbateko ekonomikoari; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

110.5 Prozedura berean balorazio ekonomikorik ez duten erabakiak aurkaratzeko zenbait akzio egikaritzen direnean, horiek jabeen batza desberdinei badagozkie, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.250 €.

110.6 Akzioa okupazio-eskubideaz gabetzeko helburuarekin egikaritzen denean:

a. Aldi baterako bada, 990 €.

b. Behin betiko bada, 1.650 €.

## HITZEZKO EPAIKETA

### ***Ordainsarien banaketa***

**111.** Hitzezko epaiketetan esku hartzeari dagozkion ordainsariak honela banatuko dira:

a. %60 demanda jartzeagatik eta ikustaldi-ekitaldian horri erantzuteagatik.

b. %40 ikustaldi-ekitaldian egindako gainerako jardunengatik.

### ***Muntaren ondoriozko hitzezko epaiketa***

**112.** Hitzezko epaiketa:

a. Munta zehatzekoa. Prozeduraren zenbatekoari eskala-tipoa aplikatuko zaio; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

b. Munta balioetsiezinakoa. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

## ***Gaiaren ondoriozko hitzezko epaiketa***

**113.** Jabeak, gozamedunak edo finka edukitzeko eskubidea duen pertsonetatik beste edozeinek landa- edo hiri-lurretako finkaren edukitza osoa berreskuratzeko prozesuak, finka hori prekarioan laga denean. Eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarritzat hartuko da higiezinaren zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**114.** Auzitegiak jarauntsi bidez ondasunak eskuratu dituen pertsonari ondasun horien edukitza ematea helburu duten prozesuak, betiere, ondasunon edukitzailerik ez badago ugazaba edo gozamedun gisa. Eskala-tipoa osorik aplikatuko da, eta oinarri gisa hartuko da higiezinaren zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**115.** Gauza edo eskubidea nori kendu edo gauza nahiz eskubide horretan nahasmendua nork jasan eta horren ukantzaren edo edukitzaren babes sumarioa lortzea helburu duten prozesuak. Eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da higiezinaren zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**116.** Auzitegiak, era sumarioan, obra berriaren etendurari buruz erabakitzea helburu duten prozesuak. Eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da geldiarazteko objektu espezifiko diren eta kasu honetan hasitako eginbideetan dauden lan egikarrituen zenbatekoa, lan burutuak izan arren; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**117.** Auzitegiak, era sumarioan, obra, eraikin, zuhaitz, zutabe edo aurrian dagoen antzeko objektu baten errauste edo eraisteari buruz erabakitzea helburu duten prozesuak, horrekin demandatzaileari kalteak eragin badakizkioke. Eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri gisa hartuko da eraispentak ukitzen duen ondasunaren balioa gehi eraispen horren gastuak edo saihestu nahi diren kalteen zenbatekoa, handiagoa bada eta kalkulatzeko modukoa; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**118.** Jabetza Erregistroan inskribatutako eskubide errealeen titularrek eragin dituzten akzioak, eskubideon eragingarritasuna lortzeko, eskubideon aurka jarri edo horien egikaritzea nahasi dutenen aurka, aurka-jartze edo nahasmendu horretarako titulu legitimo eta inskribatua izan gabe. Eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da ondasun higiezinaren zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**119.** Lege-xedapen edo bestelako titulu baten bidez, zor den mantenu-eskubidea aitortzea helburu duten prozesuak. Eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da eskatutako mantenuaren urteko bat; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**120.** Egitate zehaztugabe edo kaltegarrien zuzenketa-akzioa egikaritzeko prozesuak. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**121.** Auzitegiak, era sumarioan, ebaztea helburu duten prozesuak, Ondasun Higigarrien Eperako Salmenta Erregistroan inskribatutako kontratuen kasuetan eta ondore horretarako inprimaki ofizialean gauzatutako kontratuen kasuetan, baldin eta erosleak ez baditu bete kontratu horiek eratorritako eskakizunak. Halakoetan, prozesuaren xedea kondena-epaia lortzea izango da, eta epai horrek ahalbidetuko du exekuzioa epetan eskuratu edo finantzatu ondasunaren edo ondasunen gainean soilik. Eskala-tipoa aplikatuko zaie demanda jartzerakoan zordundutako kopuruei eta horiei gehituko zaizkie epaiaren data arte ordaindu gabe dauden kuotak; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**122.** Auzitegiak, era sumarioan, ebaztea helburu duten prozesuak, baldin eta finantza-errentamenduko kontratua edo jabari-erreserbapeko eperako salmenta-kontratua bete ez bada, betiere bi kasuetan eredu ofizialean inskribatu eta gauzatutako kontratuak direnean. Akzioaren egikaritzak xede izango du finantza-errentatzaileak, saltzaileak nahiz finantza-emaileak ondasuna berehala jasotzea, kontratuan zehaztu tokian, eta, hala denean, aurretik kontratuaren suntsitze-adierazpena lortzea. Demanda jartzerakoan zor diren kopuruen balioaren gain eskala-tipoa aplikatuko da, eta epaiaren data arte jasotzeko dauden kuotak gehituko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**123.** Aurreko kasuetan, bidezkoa denean, prozesuko alderdiek jabetzan edo ondasunen edukitzan duten partaidetzari edo koefizienteari erreparatuko zaio.

## **PROZESU BEREZIAK**

### ***Hiri- eta landa-errentamenduak***

**124.** Ondasun higiezin hiri- eta landa-errentamenduei buruzko autuen inguruko epaiketa arruntaren demandak (beraz, baremo honetatik kanpo geratzen dira errenta ez ordaintzeagatik edo errentamendu-loturaren epea agortzeagatik maizter-botatzeari buruzkoak direnak). Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

a. Legeria bereziaren menpe dauden edo ez dauden errentamendu-kontratuak suntsitzeari buruzko epaketetan, eskala-tipoa osorik aplikatuko da.

b. Landa-errentamenduetan eta 1985eko maiatzaren 9aren aurretik egindako hiri-errentamenduetan ordainsariak kalkulatzeko oinarria izango da ondasun higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

c. 1985eko maiatzaren 9aren ondoren egindako hiri-errentamenduetarako, ordainsariak kalkulatzeko oinarria izango da errentaren urteko zenbatekoa eta errentariak urtero ordaindu behar dituen gainerako kopuruak, legeak edo kontratuak behartuta, eta kopuru hori biderkatuko da hitzartutako epea agortzeko geratzen den urte-kopuruarekin, betiere, bi urte baino gutxiago eta hamar baino gehiago ez bada. Biderkatzaileak kalkulatzekoan ateratzen diren zatikiak unitate oso balira moduan zenbatuko dira.

d. Kontratua suntsitzea edo errenta zehaztea helburutzat ez duen beste edozein errentamendu-prozesutan, eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da planteatutako uziaren zenbatekoa.

e. Errenta zehazteari buruzko prozesuetan, eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarria izango da demanda aurkezterakoan indarrean zegoen urteko errentaren eta prozesuan zehazten den urteko errentaren arteko aldea hamar urterekin biderkatuta, salbu eta kontratua laburragoa denean, kasu horretan kontratua amaitu arte geratzen diren urteen indize biderkatzailea hartuko baita.

**125.** Errentariak kontratua suntsitzeko akzioa egikaritzen duenean ordaindu ez delako eta, horrekin batera, zorpetutako kopuruak erreklamatzeko akzioa egikaritzen badu, horien izapideak epaiketa arruntaren zein hitzezko epaiketaren bidez eginda, minuta egiterakoan akzio bakoitza banaka hartuko da, eta minutaren azken emaitzari %25eko murrizketa aplikatuko zaio:

a. Kopurua erreklamatzeko akzioaren minuta egiteko, eskala-tipoa aplikatuko zaio zorpean dauden errenten zenbatekoari epaia ematerakoan edo horren aurretik, ordainketa edo atzera egitea baldin badago, eta epaiketaren arabera, 100. edo 112. baremoetan adierazitako kopuru gomendagarriak jasoko dira eta, hala denean, 73. baremoa ere aplikatuko da.

b. Maizter-botatzearen akzioaren minuta egiteko, eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da ondasun higiezia zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

c. Ez ordaintzeagatik kontratua suntsitzeko akzioa eta zorpetutako kopuruak erreklamatzeko akzioa egikaritzeko demanda bukatzen bada demandatuak ezerezean uztea onartuta, aurreko atalak aplikatzean lortutako emaitza txikituko da, lehenengo, prozesuko izapideen arabera, eta ondoren, %50eko murrizketa aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**126.** Hitzezko epaiketaren demandak. Errentariak errenta edo zorrean dituen kopuruak ez ordaintzea, edo errentamendu-loturaren epea igarotzea oinarri izanda, bi-bien izapideak hitzezko epaiketaren bidez eginda, prozesuaren helburua bada jabeak, gozamedunak edo landa- nahiz hiri-lurretako finka edukitzeko eskubidea duten pertsonetatik beste edozeinek finka horren edukitza berreskuratzea, betiere, finka hori errentamendu arruntean, finantza-errentamenduan edo apartzerian eman denean. Minuta egiteko, eskala-tipoa aplikatuko da, eta komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**127.** Hurrengo auzietan, oinarri moduan hartuko dira:

127.1 Errenta ez ordaintzeagatik, maizter-botatze kasuetan:

a. Maizter-botatze demandari epaiaren bidez gaitziritzia ematen bazaio, eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da ondasun higiezia zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

b. Maizter-botatze demandari epaiaren bidez oniritzia ematen bazaio, eskala-tipoa aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da ondasun higiezia zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

c. Maizter-botatze demanda bukatzen bada demandatuak ezerezean uztea onartuta, oinarri moduan hartuko da demandan adierazitako errenten zenbatekoa gehi akzioak ezerezean utzitako kopurua kontsignatzeko data arte jasotako zenbatekoak; hala ere, lortutako emaitzari kasuan kasuko murrizketa aplikatuko zaio, prozesuko izapideen arabera.

127.2 Errentamendu-loturaren epea agortzen den kasuetan, minuta egiteko oinarria izango da ondasun higiezia zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

127.3 Apartzeria-kasuetan, minuta egiteko oinarria izango da apartzeroari azken likidazioan dagokion balioa.

### **Zortasunak eratzeari buruzko prozesuak**

**128.** Prozesuaren objektua zortasuna bada, minuta egiteko, eskala-tipoa minuta egiteko oinarriari aplikatuko zaio; horretarako, PZLren 251. artikuluko 5. erregelari erreparatuko zaio, eta zein epaiketaren izapidetza egin den kontuan hartuta, 100. edo 112. baremoetan gomendatutako kopuruak jasoko dira.

### **Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak**

**129.** Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak:

- a. Ezgaitasunari, gaitasuna berriz izateari eta ezgaitasunaren norainokoa aldatzeari eta zarrastelkeriari buruzko prozesua. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorreko irizpideak hartuko dira kontuan. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.
- b. Kautela-neurrietan edo buru-nahastearen ondorioz borondatezkoa ez den barneratzean esku hartzeagatik. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 415 €.

### **Seme-alabatasunari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesuak**

**130.** Seme-alabatasunari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesuak:

- a. Seme-alabatasuna, aitatasuna edo amatasuna legez zehazteko edo aurkaratzeko prozesua. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorreko irizpideak hartuko dira kontuan. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.
- b. Seme-alabatasunari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozeduren kautela-neurrietan agerraldia presa-arrazoiengatik egiten denean, minuta %20 handituko da.

### **Ezkontzari, egitezko bikoteei eta seme-alaba erkideei buruzko prozesuak**

#### **Irizpide orokorrak**

**131.** Behin prozesua abiatuta izapidetza aldatzen bada ezkontideak ados jarri direlako, abokatuak fase bakoitzari dagozkion ordainsariak jasoko ditu.

**132.** Ezkontza-epaiketetan esku hartzeari dagozkion ordainsariak modu honetan banatuko dira:

- a. Demanda jartzeagatik eta horri erantzuteagatik %60, idatziz zein ikustaldi-ekitaldian ahoz egin erantzun hori.
- b. %40 ikustaldi-ekitaldian egindako gainerako jardunengatik.

**133.** Errekonbentziorik badago eta hori banantze, dibortzio edo deuseztasuna ez diren bestelako zioen aplikazio edo agerpenari buruzkoa bada, edo erabat aurkakoak diren ondore edo neurriak finkatzeari buruzkoa, eta errekonbentzio hori izapideak egiteko beste alderdiari igortzen bazaio horren erantzuna jasotzeko, ordainsariak prozedura nagusiarekiko %100 handituko dira.

Baina eztabaida eduki ekonomikoa edo antzekoa duten neurrien zenbatekoari buruzkoa bada, ordainsariak %50 handituko dira.

Kostuetarako kondenaren kasuan, errekonbentzioari dagokionez soilik, aurretik adierazitako ehunekoak jasoko dira, prozedura nagusiari aplikatuta.

**134.** Aurreko baremoak analogiaz aplikatuko dira egitezko bikoteei, horien seme-alaba erkideei edo horiei buruzko neurriei dagozkien arazo guztietan.

#### **Prozedurak**

**135.** Ezkontza-deuseztasunari buruzko epaiketa. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.460 €.

**136.** Banantzea eta dibortzioa bikotekideen adostasunez:

a. Hitzarmen arau-emailea idazteagatik alderdiek aurretiaz horren oinarritzko baldintzak ezarri dituztenean, abokatuak esku hartu gabe. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

b. Hitzarmen arau-emailea idatzi eta/edo negoziatzeagatik, abokatuak negoziazioan eta horren oinarritzko baldintzak ezartzen esku hartu duenean. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

c. Abokatuak idatzitako hitzarmen arau-emaileak klausula konplexuak baditu edo urtean 7.200 euroko prestazioak baino handiagoak ezartzen baditu, ezarritako gutxiengo kopurua kontratuen idazketarako ezarritakoaren arabera gehitu ahal izango da, kopuru hori gainditzen duen zenbatekoari dagokionez.

d. Hitzarmen arau-emaileak ezkontzako ondasun-eraentza likidatzeko eragiketak ere barnean hartzen baditu, kontzeptu horren minuta egingo da kontratuetako baremoak kontuan hartuta; hortik ateratzen diren ordainsariak ez dira kopuru hau baino txikiagoak izango: 600 €.

e. Prozedura judizialaren izapideak epaia eman arte egiteagatik, hitzarmen arau-emailea idatzi eta/edo negoziatzeagatik dagokionaz gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 745 €.

**137.** Auzibidezko banantzea eta dibortzioa:

a. Prozesuaren izapideak lehen auzialdian epaia eman arte egiteagatik. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.980 €.

b. Eskatutako prestazioen zenbatekoa urtean 7.200 euro baino handiagoa bada, orduan gomendatutako kopurua handitu ahal izango da kontratuen idazketarako ezarritakoaren arabera, kopuru hori gainditzen duen zenbatekoari dagokionez.

**138.** Hitzarmen arau-emailea edo epaian adostutako neurri judizialak aldarazteko prozedurarengatik adostasuneko prozedurari dagokion kopuruaren %75 jasoko da aldarazpena adostasunez egiten bada, eta auzibidezko prozedurari dagokion %75, aldarazpena auzibidez egiten bada.

**139.** Aurretiazko, aldi bereko edo garai bereko behin-behineko neurriak. Horiek banantzeko edo dibortzioko zein prozeduratan eskatu eta prozedura horri dagozkion baremoak aplikatetik ateratzen den kopuruaren %50 jasoko da, interesdunen artean adostasuna badago. Adostasunik ez badago, ehunekoa %75 izango da. Abokatu berbera neurriez eta horiek eskatzeko prozeduraz arduratzen bada, aurreko ordainsariak erdira murriztuko dira.

**139 bis.** Behin betiko neurrien aldarazpena Prozedura Zibilaren Legeko 775.3 artikuluan ezarritako prozedura dela bide (behin-behineko neurriak).

Horiek banantzeko edo dibortzioko zein prozeduratan eskatu eta prozedura horri dagozkion baremoak aplikatetik ateratzen den kopuruaren %75 jasoko da. Abokatu berbera neurriez eta horiek eskatzeko prozeduraz arduratzen bada, aurreko ordainsariak erdira murriztuko dira.

**140.** Babes-agindu baten zigor-prozesuan izaera zibileko neurriak hartzen badira, besteak beste, familia-etxebizitzaren erabilera eta gozamina eratzitzea, zaintzaren, bisiten, seme-alabekin komunikatzearen eta egotearen, mantenuaren araubidea zehaztea, etab., banantzeko eta dibortzioko prozedurei —adostasunekoak zein auzibidezkoak izan— dagozkien ordainsarien %25 jasoko da.

## **Betearazpena ezkontza-prozesuetan**

**141.** Neurrien betearazpena. Jurisdikzio zibileko ebazpen judizialak betearazteari buruzko baremoak aplikatuko dira, baina 18.000 euroko oinarri adierazlea ez zaie inola ere aplikatuko zenbateko zehaztugabearekin edo balioetsiezinarekin egikaritzen diren neurriei.

**142.** Eliz Auzitegietako ebazpenen eragingarritasun zibilari buruzko prozedura:

a. Neurriak aldarazi gabe: 300 €.

b. Neurriak aldarazita. Aldarazpenik gabeko homologazioari dagokionaren minuta egiteaz gain, 138. baremoa aplikatuko da, behin betiko neurriak aldarazteko prozedurari dagokiona.

## **ADINGABEAK**

**143.** Adingabeen arloan aurka jartzeko prozedurengatik:

a. Eskaera-idatziarengatik: 165 €.

b. Hitzezko epaiketaren prozedura bideratzeagatik. Epaiketa mota horri dagozkion baremoak aplikatuko dira.

143.1 Adopzioan baiezkoa ematearen beharra zehazteko prozedurarengatik:

a. Eskaera-idatziarengatik: 165 €.

b. Hitzezko epaiketaren prozedura bideratzeagatik. Epaiketa mota horri dagozkion baremoak aplikatuko dira.

## **ONDAREEN BANAKETA JUDIZIALA**

**144.** Zenbatekoari buruzko irizpide orokorra. Abokatuak baremo hauetan ezarritako prozeduren zenbateko moduan hartuko dute zalantzan jarri ez diren bezeroaren ondasunen balioa eta bezeroarentzat eztabaidaren objektu diren ondasunek duten garrantzia; baina auzia ondasunen balorazioari buruzkoa bada, orduan proposatutako baloraziorik altuena kontuan hartuko da bezeroaren ondasunak baloratzeko. Oro har, jarauntsiaren, sozietatearen edo gauzaren aktiboan dagozkion zatitari erreparatuko zaio, baina aktiboa pasiboak modu esanguratsuan murrizten badu edo pasiboaren likidazioak eta banaketak abokatuaren jardunean eragin berezia badu, horren balioa ordainsariak kalkulatzeko oinarriaren barruan sartuko da.

### ***Jarauntsiaren zatiketa judizialari buruzko prozedurak***

**145.** Jarauntsiaren zatiketa judizialari buruzko prozedurak. Faseak.

Prozedura honetarako adierazitako ehunekoak aplikatzean ateratzen diren ordainsariak alderdi demandatzailearen edo eskatzailearen abokatuari zein alderdi demandatuaren abokatuari dagozkio.

Aurreko baremoaren arabera finkatutako zenbatekotik jarraian zehaztutako eskalako ehunekoak jasoko dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 990 €.

a. Jarauntsia zatitzeko eskaerarengatik, eskalaren %20.

b. PZLren 783. art.ko batzan esku hartzeagatik:

b.1 Aurka-jartzerik gabe: inbentarioa egiteko adostasuna badago, eskalaren %20.

b.2 Aurka-jartzearekin: adostasunik ez badago, hitzezko epaiketari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta zenbateko gisa hartuko da bezeroarentzat eztabaida-objektu diren kopuruek duten eragina, baina ateratzen den kopurua ez da izango aurka-jartzerik gabekoan ateratzen den kopurua baino txikiagoa, %50 gehituta.

c. Gainerakoarengatik, kontulari-banatzzailearen zatiketa-eragiketak onetsi eta esleitutako ondasunak eman arte:

c.1 Aurka-jartzerik gabe. Kontulari-banatzzailearen zatitze-eragiketekin adostasuna badago, eskala-tipoaren %20.

c.2 Aurka-jartzearekin. Kontulari-banatzailearen zatitze-eragiketekin adostasunik ez badago, prozedurari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta zenbateko moduan hartuko da bezeroarentzat eztabaida-objektu diren kopuruek duten eragina; ateratzen den kopurua ez da izango adostasunaren kasuan aterako litzatekeen kopurua baino txikiagoa, %50 gehituta.

**146.** Jarauntsiko ondasunetan esku-hartze judiziala beharrezkoa denean, alderdi demandatzailearen edo eskatzailearen abokatuak eta alderdi demandatuaren abokatuak, bakoitzak bere aldetik, jardun hauen minutak banaka egingo dituzte:

a. Inbentarioa egiteagatik:

a.1 Aurka-jartzerik gabe, eskalaren %20.

a.2 Aurka-jartzea badago, prozedurari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta zenbateko moduan hartuko da eztabaida-objektu diren kopuruek bezeroarentzat duten eragina, baina ateratzen den zenbatekoa ez da izango aurka-jartzerik gabe ateratzen den kopurua baino txikiagoa, %50 gehituta.

b. Jarauntsiko ondasunak administratzeko eskaera. Eskalaren %40 jasoko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**147.** Prozeduretan esku hartzen duten hartzekodunen abokatuak ordainsari hauek jasoko dituzte euren bezeroen kredituaren zenbatekotik:

a. Testamentuan edo jaraunsekideek aitortutako kausatzailearen hartzekodunen abokatuak, eskalaren %20.

b. Jaraunsekideen hartzekodunen abokatuak zein fasetan esku hartu eta horiei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, aurreko baremoen arabera.

**148.** Kontulari-banatzaileak, esku-hartzearen minuta egiteko, 38. baremoa eta hurrengoak hartuko ditu kontuan, oinordetzari buruzkoak, hain zuzen.

### ***Gauza erkidea zatitzeko prozedurak***

**149.** Gauza erkidea zatitzeko prozedurak:

1. Aurka-jartzerik gabe. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoa aplikatuz ateratzen den emaitzari %50eko ehuneko murriztailea aplikatuko zaio, eta oinarri moduan hartuko da bezeroek zatitu beharreko ondasunetan duten kuota. Kasuan kasuko epaiketari aplikatu beharreko baremoetan adierazitako kopurua gomendatzen da.

2. Aurka-jartzearekin. Kasuan kasuko epaiketari adierazlearen baremoa aplikatuko da, zatitu beharreko ondasunen benetako balioari erreparatuz, salbu eta eztabaida desberdintasun baloratibo hutsei buruzkoa denean, kasu horretan eztabaidatutako zenbatekoari erreparatuko baitzaio; komeni da kopurua aurka-jartzerik gabekoetarako adierazitakoa baino txikiagoa ez izatea, %50 gehituta.

### ***Ezkontzako ondasun-eraentza likidatzeko prozedurak***

**150.** 144. baremoaren arabera finkatutako zenbatekoaren gain, jarraian zehaztutako eskalako ehunekoak aplikatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.

**151.** Ezkontzako ondasun-eraentza likidatzea.

Prozedura honetarako adierazitako ehunekoak aplikatzean ateratzen diren ordainsariak alderdi demandatzailearen edo eskatzailearen abokatuari eta alderdi demandatuaren abokatuari dagozkio:

a. Inbentarioa eskatzeagatik, eskalaren %20.

b. PZLren 809. artikuluko agerraldian inbentarioa egiteagatik:

b.1 Aurka-jartzerik gabe: adostasuna egonez gero, eskalaren %20.

b.2 Aurka-jartzearekin: adostasunik ez badago, hitzezko epaiketari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta zenbateko moduan hartuko da eztabaida-objektu diren

kopuruek bezeroarentzat duten eragina; ateratzen den zenbatekoa ez da izango aurka-jartzerik ez dagoenean ateratzen den kopurua baino txikiagoa, %50 gehituta.

c. Likidazio-eskaerarengatik:

c.1 Likidazioari buruzko adostasuna egonez gero, eskalaren %20.

c.2 Adostasunik ez badago eta kontularia izendatzen bada eta, hala denean, adituak:

a) Kontulari-banatzailearen zatitze-eragiketekin adostasuna badago, eskalaren %30.

b) Kontulari-banatzailearen zatitze-eragiketekin adostasunik ez badago, hitzezko epaiketari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta zenbateko moduan hartuko da eztabaida-objektu diren kopuruek bezeroarentzat duten eragina; ateratzen den zenbatekoa ez da izango adostasuna dagoenean ateratzen dena baino txikiagoa, %50 gehituta.

d. Partaidetza-eraentza likidatzeagatik:

d.1 Adostasuna egonez gero, eskalaren %40.

d.2 Adostasunik ez badago, hitzezko epaiketari dagozkion baremoak aplikatuko dira, eta zenbateko moduan hartuko da eztabaida-objektu diren kopuruek bezeroarentzat duten eragina. Ateratzen den zenbatekoa ez da izango adostasuna egonez gero ateratzen dena baino txikiagoa, %50 gehituta.

**152.** Kontulari-banatzaileak, esku-hartzearen minuta egiteko, 38. baremoa eta hurrengoak hartuko ditu kontuan, oinordetzari buruzkoak, hain zuzen.

## **PROZESU MONITORIOA**

**153.** Hasierako eskaera. Alderdi demandatzailearen abokatuak eta alderdi demandatuarenak, aurka jartzen ez bada, eskala-tipoaren %20 aplikatuko dute munta zehatzekoa bada. Edonola ere, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**154.** Aurka-jartzeko idazkia. Aurka jartzen den alderdiak, modu eksklusiboan, eskala-tipoaren %20 aplikatuko du zenbateko zehatzekoa bada. Edonola ere, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**155.** Aurka-jartzeak hitzezko epaiketa edo epaiketa arrunta egitea eragiten badu, abokatuak, ordainsariak kalkulatzeko, prozedura horietarako ezarritako baremoak aplikatuko dituzte. Bi kasuetan, prozedura monitorioan egindako jardunei dagozkien kopuruak ere jasoko dira.

**156.** Autoak eta/edo prozesu monitorioak betearazteagatik eskala-tipoa betearazpenaren zenbatekoari aplikatzean lortzen den kopuruaren %50 jasoko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

1. Zordunak ordainketa-agindeia egiten zaionean edo hurrengo hamar egun baliodunetan ordaintzen badu, aurreko kopuruaren %70 jasoko da.

2. Betearazpenaren aurka jartzea. Betearazpenaren aurka jarriz gero, aurreko ordainsariak %50 handituko dira.

## **KANBIO-EPAIKETA**

### ***Kanbio-epaiketa***

**157.** Ordainsariak kalkulatzeko oinarria izango da Prozedura Zibilaren Legeko 821.2 artikuluan aipatu autoan agertzen den kopurua.

a. Aurka-jartzerik gabe:

1. Eskala-tipoaren %50aren minuta egingo da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

2. Zordunak ordainketa-agindeia egiten zaionean edo hurrengo hamar egun baliodunetan ordaintzen badu, aurreko kopuruaren %70 jasoko da.

b. Aurka-jartzearekin.

Eskala-tipoaren %100aren minuta egingo da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

**158.** Betearazpena egiteko premiamendu-prozedurara jo behar denean, hori egiteagatik jasoko diren ordainsariak aurka-jartzerik gabeko kanbio-epaiketari dagozkion ordainsarien %50 izango dira, modu honetan banatuta:

a. PZLren 634. eta 635. artikuluetan exekutatuaren ondasunak eta eskubideak diru bihurtu arte izandako jardunengatik eta alderdien eta interesdunen arteko diru-bihurtze hitzarmenaren aurreko jardunengatik, besterentzean edo enkante judizialean, PZLren 636. art. eta h., %50 haren %80.

b. Ondasunak edo eskubideak alderdien eta interesdunen artean hitzartutako eta auzitegiak onetsitako moduan egikaritzen badira edo besterentzea edo enkante judiziala egiten bada, gainerakoa %50 hura osatu arte.

## **AUTOMOBILAREN EPAIKETA BETEARAZLEA**

**159.** Automobilaren epaiketa betearazlea edo gehiengo muntako autoa. Kanbio-epaiketarako ezarritako baremoen arabera arautuko dira ordainsariak.

## **KONKURTSO-PROZESUAK**

### ***Abokatuak zorduna ordezkatzea***

**160.** Abokatuak zorduna ordezkatzuz gero, ordainsariak kalkulatzeko oinarri moduan hartuko da masa pasiboaren zenbatekoa edo masaren aurkako kreditutzat jotzen ez diren konkurtsoko kredituak; horretarako, konkurtsoko administratzaileek egindako hartzekodunen zerrenda kontuan hartuko da, aurkaratzeak egiteko epea igaro ondoren.

Hala ere, eta behin betiko zehaztu arte, kalkulatzeko oinarri moduan hartuko da hartzekodunen zerrenda zordunarekin batera, borondatezko konkurtsoaren eskaeraren arabera.

**161.** Borondatezko konkurtsoaren eskaera aurkezteagatik eta fase arrunt osoa garatzeagatik eskala-tipoaren %100 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.500 €.

Abokatuak %50 prozeduraren hasieran jasoko du eta gainerako %50, fase arruntaren amaieran.

**162.** Borondatezko konkurtsoaren eskaerarekin batera hitzarmen-proposamen aurreratua egiten bada, gainera, eskalaren %15 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 375 €.

**163.** Beharrezko konkurtsoaren adierazpenaren aurka jartzeko intzidentegatik, izapideak alderdi hartzekodunak egin baditu, eskalaren %20 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 480 €.

**164.** Eskatutako edo hartutako kautela-neurrien aurka jartzeko intzidentearengatik, zenbatekoari eskalaren %20 gehituko zaio. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 480 €.

**165.** Hitzarmen-proposamen arrunta formulatzeagatik eta hitzarmen-fasea garatzeagatik, eskalaren %30 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 775 €.

**166.** Likidazio-fasearengatik eskala-tipoaren %30 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 775 €.

**167.** Zorduna kalifikazio-piezan defendatzeagatik, eskalaren %25. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 585 €.

Kalifikazio-piezan zorduna ez den beste pertsona batzuk defendatzeagatik, eskalaren %25. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 585 €.

Errudun-kalifikazioaren aurka jartzeagatik, eskalaren %20. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 480 €.

### ***Abokatuak hartzekodunak ordezkatzea***

**168.** Abokatuak alderdi hartzekoduna edo hartzekodunak ordezkatzeko baditu, orduan ordainsariak kalkulatzeko oinarri moduan hartuko da bezeroaren kredituaren zenbatekoa.

**169.** Beharrezko konkurtsoa eskatzeagatik eta fase erkidean aritzeagatik eskalaren %100 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

Abokatuak %50 prozeduraren hasieran jasoko du eta gainerako %50, fase arruntaren amaieran.

**170.** Konkurtsoa eragin duen hartzekodunaren abokatuaren ordainsariak %20 handituko dira.

**171.** Kautela-neurriak eskatzeari buruzko jardunengatik eskalaren %20 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 480 €.

**172.** Hitzarmena proposatu ondoren, hitzarmen-fasean egindako jardunengatik, eskalaren %35 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 480 €.

**173.** Likidazio-faseko jardunengatik, eskalaren %15 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 375 €.

**174.** Likidazio-fasea irekitzeko organo judizialak hartutako erabakiaren gora-jotzea beste prozedura bat dela joko da, eta ordainsariak eskala-tipoa oinarri hartuta jasoko dira, kasu bakoitzean ordezkaturako zenbatekoaren arabera.

**175.** Kalifikazio-piezako jardunengatik, eskalaren %10 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

### ***Bestelako intzidentek***

**176.** Aurreko baremoetan beren beregi ezarri ez diren eta konkurtsoko prozedurak bideratzean gertatzen diren bestelako intzidentek. Horien minuta banaka egingo da, horien izapideak zein prozeduraren bidez egin eta horretarako adierazitako baremoen arabera.

**177.** Konkurtsoko administratzaile eginkizunak dituzten abokatuaren ordainsariak zehaztuko dira arauz ezarritako eskubideen arantzelen arabera.

## **ITSAS ZUZENBIDEA**

**178.** Matxuraren aurkako protesta eta horren berrespena. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 250 €.

**179.** Matxurak eta eskotilen irekiera azaltzea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

**180.** Matxura handiaren edo arruntaren kalifikazioa, likidazioa eta horri laguntzea. Eskala-tipoaren %25 aplikatuko da.

**181.** Merkatugaiak deskargatzea eta berriz kargatzea matxura dela-eta edo ontzia konpondu ahal izateko eta zama bertan behera uztea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 685 €.

**182.** Merkatugaien gordailu judiziala pleita ez ordaintzeagatik, kontsignatarioak ez ezagutzeagatik edo bestelako arrazoiengatik, eta merkatugaien salmenta judiziala. Oinarria pleitak edo ontzijabearen kredituak osatuko dute:

a. Aurka-jartzerik gabe. Eskala-tipoaren %50 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 855 €.

b. Aurka-jartzearekin. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 855 €.

**183.** Salbamenduen eta atoen espedienteak. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko da erreklamaturako sariaren gain.

**184.** Premiamendu-prozedura itsas merkataritzako negozioetan. Oinarria erreklamaturako kredituak zehaztuko du:

a. Aurka-jartzerik gabe. Eskala-tipoaren %60 aplikatuko da, eta komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 550 €.

b. Aurka-jartzearekin. Eskala-tipoa osorik aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 825 €.

**185.** Ontzien aurreneurritzko enbargoa.

Oinarria erreklamaturako kredituak zehaztuko du:

a. Aurka-jartzerik gabe. Eskala-tipoaren %35 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 550 €.

b. Aurka-jartzearekin. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 825 €.

**186.** Lehiari buruzko nazioarteko deklinatoriak.

Erreklamaturako kredituak zehaztutako oinarriari eskala-tipoaren %35 aplikatuko zaio.

## **BORONDATEZKO JURISDIKZIOA**

### ***Irizpide orokorrak***

**187.** Borondatezko jurisdikzio-egintza baten aurka jarri eta auzibidezko bihurtuko bada, ordainsariak kalkulatu dira horren izapideak zein epaiketaren bidez egin eta horri dagozkion baremoak aplikatuta, borondatezko jurisdikzio-aldiarengatik jaso behar direnei kalterik egin gabe.

### ***Pertsonei buruzkoak***

**188.** Familia-harreraren eraketa edo azkentzea: 385 €.

**189.** Adopzio-espedientea: 385 €.

**190.** Tutorea, kuradorea edo defendatzaile judiziala izendatzeko eta karguak emateko espedientea, 270 €.

**191.** Kargu horiek emateak inbentarioak egitea eta mantenua adieraztea eragiten badu, ondasunen balioetik eta, hala denean, horien urteko baten zenbatekotik eskalaren %5 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 275 €.

**192.** Fidantzari buruzko jardunengatik, eskalaren %5. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 110 €.

**193.** Ezkontzeko adin-lekapeneko espedienteak: 330 €.

**194.** Epaiketan agertzeko gaikuntza-espedienteak: 330 €.  
Emantzipatu gabeko adingabeen gaikuntzek eragindako arazoan izapideak egin behar badira: 385 €.

**195.** Betidaniko egoerei buruzko informazio-espedienteak: 330 €.

**196.** Absentzia edo heriotza adierazpenak:  
Absentzia edo heriotza adierazpena eskatzeagatik eta frogak gauzatzeagatik:  
a. Aurka-jartzerik gabe: 400 €.  
b. Aurka-jartzearekin: 605 €.

**197.** Behin-behineko neurriengatik eta inbentarioa egiteagatik, absenttearen defendatzailea izendatzea alde batera utzita, minuta egingo da tutorea, kuradorea edo defendatzaile judiziala izendatzeko eta kargu horiek emateko espedientearen atalean ezarritakoaren arabera.

**198.** Absenttearen ordezkariaren izendapena aurkaratzea: 400 €.

### ***Azken nahietako egintzei lotutakoak***

**199.** Ab intestato jaraunsleen adierazpenak:  
a. Izapide judizial osoengatik komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.  
b. Aplikatu beharreko legeria atzerritarra edo Euskadiko Foru Zuzenbide Zibilaren Legeria bildu gabeko foru-legeria denean, ordainsariak %100 handituko dira.

**200.** Hitzez egindako testamentu edo kodiziloa eskritura publikoan jasotzea: 275 €.

**201.** Testamentu itxia ireki eta protokoloan jasotzea: 275 €.

**202.** Testamentu olografoa eta horren betekizunak dituzten testamentuzko memoriak egiaztatu eta protokoloan jasotzea: 275 €.

**203.** Testamentu militarrek eta itsas arlokoak protokoloan jasotzea: 275 €.

**204.** Testamentua kapilauaren aurrean egiaztatu eta protokoloan jasotzea: 275 €.

### ***Ondasunei buruzkoak***

**205.** Adingabeen, ezgaituen edo absentteen ondasunak besterentzeko baimen judiziala:  
a. Espedientearen izapideak egiteagatik eskaera ebazteko autoa eman arte, eskalaren %10 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.  
b. Ondasunen balorazioari eta enkanteari lotutako jardunengatik eskalaren %5 jasoko da tasazioaren prezioa kontuan hartuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 140 €.

**206.** Adingabeen, ezgaituen edo absenteen eskubideen transakzioa egiteko edo horien ondasunak hipotekatu edo kargatzeko baimen judiziala. Eskalaren %10 aplikatuko da eskubideen edo ondasunen balioaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

**207.** Adingabeek, ezgaituek edo absenteek zein egintza edo negozio juridikotan interesa izan eta horien onarpen judiziala. Eskalaren %15 jasoko da, eta komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

**208.** Borondatezko enkante judizialak, baldintzen agiria barnean hartuta. Lizitazio oinarria kontuan hartuta eskalaren %15 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 250 €.

**209.** Edukitza judiziala epaiketa bidezkoa ez denean. Eskalaren %15 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 250 €.

**210.** Mugaketa eta mugarriak jartzea:

a. Horiek gauzatu gero, eskalaren %20 jasoko da bezeroaren finkaren balioaren gain, ondasun higiezinaren zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera, zamak egoteagatik zuzenketa egin gabe. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 385 €.

b. Aurka-jartzerik bada eta auzibide-jurisdikziora igortzen bada, ordainsariak aurreko atalaren arabera jasoko dira, %50 handituta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 580 €.

**211.** Jabari-espeditzea:

Aurka-jartzerik gabe. Eskalaren %30 aplikatuko da ukitutako ondasunen balioaren gain, ondasuna zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera, zamak egoteagatik zuzenketa egin gabe. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 385 €.

Aurka-jartzea egonez gero, eskalaren %50 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 580 €.

**212.** Ordainketa zainpean jartzea. Eskalaren %15 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

### ***Merkataritza-negoioetan***

**213.** Merkataritzako efektuak gordailutu eta aitortzea. Eskalaren %30 jasoko da. Ondare gordailutuen enkantea egiten bada, aurreko ordainsariez gain, adingabeen eta ezgaituen ondasunak besterentzeko baimen judizialean ondasunen balorazio eta enkanterako adierazitakoak jasoko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 305 €.

**214.** Kanbio-letra aldi baterako gordailutzea eta enbargatzea. Letraren printzipalaren gain eskalaren %15 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**215.** Administratzailekidea izendatzea administratzaileak ahalmenak gaizki erabiltzeagatik eta kontabilitatea eta agiriak Sozietate Erregular Kolektiboetan erakustea. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera zehaztuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 385 €.

**216.** Aseguru-kontratuetan adituak izendatzea. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera arautuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**217.** Bazkideen batza orokorren deialdi judizialari buruzko prozedura. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera arautuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 385 €.

## **ERREGISTRO ZIBILA**

### ***Irizpide orokorrak***

**218.** Aurkeztutako uziak akta edo inskripzio bati baino gehiagori buruzkoak badira, ordainsariak zehazteko ondoreetarako, zenbat akta edo inskripzio hainbat espediente daudela joko da, salbu eta legeak ezartzen duenean egitatea, inskribatzeko edo idatzoharraren bidez jasotzeko moduko inguruabarren zuzenketa, etetea edo osatzea, edo horiek ezereztea beste akta edo inskripzio batzuetan jaso behar direla.

### ***Naziotasuna eta auzotasuna***

**219.** Naziotasuna edo herritartze-agiriak emateari edo naziotasuna berreskuratzeari buruzko espedienteak: 580 €.

**220.** Naziotasunaren galera inskribatzeko espedientea: 220 €.

**221.** Naziotasunari edo auzotasunari buruzko aukera, iraunarazte, aldarazpen edo berreskuratze adierazpena: 220 €.

### ***Jaiotza, emantzipazioa, seme-alabatasuna, izen-abizenak***

**222.** Jaiotza epetik kanpo inskribatzeko espedienteak: 220 €.

**223.** Adingabeen emantzipazioa: 220 €.

**224.** Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna erregistroan zehaztea: 255 €.

**225.** Izen-abizenak alderantztea: 255 €.

**226.** Izen-abizenei eusteko edo horiek aldatzeko espedientea: 400 €.

**227.** Sexu-aipamena zuzentzeko espedientea: 220 €.

### ***Ezkontza, lizentziak eta lekapenak***

**228.** Ezkontza zibila egiteko eragozpenen lekapenari buruzko espedientea: 255 €.

**229.** Isilpeko ezkontza zibila egiteko lekapen-espedientea: 255 €.

**230.** Ezkontza zibila egiteko espedientea: 220 €.

**231.** Atzerrian egindako ezkontza zibila inskribatzea: 220 €.

**232.** Ezkontza zibila inskribatzea akta egin ez delako: 220 €.

**233.** Ezkontzako ondasun-eraentza aldarazten duten itunak, ebazpen judizialak eta egitateak inskribatzeko eskaera: 220 €.

### ***Bestelako jardunak***

234. Inskripzioak lekualdatzeko eskaera: 110 €.

235. Publizitaterik gabeko datuak jasotzen dituzten ziurtagiriak lortzeko baimen judiziala eskatzea: 80 €.

236. Idatzoharra eskatzea informazio-balio soilarekin: 110 €.

237. Idatzohar bat zuzentzeko edo ezerezteko espediente: 165 €.

238. Presuntzio hutsaren balioa duten egitate-adierazpenei buruzko espediente: 165 €.

239. Akatsak zuzentzeko edo inguruabarrak edo idazkunak osatzeko espediente: 195 €.

240. Inguruabar berezietan izandako jaiotza, ezkontza eta heriotzen aktak inskribatzeko espediente, egitatetik hogeita hamar egun igaro ondoren: 195 €.

241. Inguruabar berezietan izandako jaiotza, ezkontza eta heriotzak atzerriko agintari edo funtzionarioek egindako akta bidez inskribatzeko espedienteak: 275 €.

242. Akatsak zuzentzeko edo inguruabarrak edo idazkunak osatu edo ezabatzeko espediente: 275 €.

243. Suntsitutako edo narriatutako inskripzioak berregiteko espediente: 195 €.

244. Erregistro Zibilean aurkeztutako adierazpenak, eskabideak eta eskaerak, espediente derrigorrezkoa ez denean: 110 €.

### ***Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusian egindako errekurtsok***

245. Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusian egindako errekurtsok:

a. Hasierako idazkia onartzen ez duen edo espedientea bukatzen duen arduradunaren ebazpenen aurka: 200 €.

b. Beste ebazpen batzuen aurka:

b.1 Birjartze-errekurtsok erregistratzailearen kalifikazioaren aurka: 110 €.

b.2 Errekurtsok agintari judizialen aurrean erregistratzailearen kalifikazioaren aurka: 195 €.

## **ERREKURTSOK**

### ***Irizpide orokorra***

246. Errekurtsoren ondoriozko ordainsariak ezin dira izan arazoari, intzidentziari edo betearazpenari dagozkionak baino handiagoak.

### ***Birjartze-errekurtsok***

247. Birjartze-errekurtsok.

Ordainsariak kalkulatzeko, errekurtsoren objektu den ebazpena zein prozedura edo izapidetan eman eta horri dagozkion ordainsarien zenbatekoari %15 aplikatuko zaio. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 135 €.

## ***Gora jotzeko errekurtsua eta/edo horren aurkako aurkaratze-errekurtsua***

**248.** Gora jotzeko errekurtsoei dagozkien ordainsariak kalkulatzeko oinarria aurkaratutako erabakien zenbatekoa izango da.

248.1 Ezkontza-prozesuen gora-jotzeak:

- a. Erabaki bakar baten eta/edo ebazpen judizialeko neurrien aurkako errekurtsua egitea nahiko izango da hurrengo baremoan adierazitako ehunekoak sorrarazteko.
- b. Gora jotzeko ebazpenean adierazitako zenbatekoak baino handiagoak eta/edo txikiagoak eskatzen direnean, ordainsariak kalkulatzeko oinarria zenbateko haien arteko aldea izango da, urteka zenbatuta.

**249.** Gora jotzeko errekurtsua.

1. Aurreko baremoaren arabera lortutako oinarriaren gain, ehuneko hauek aplikatuko dira:

a. Epaiketa bukatzen duten epaiak edo bestelako ebazpenak badira: lehen auzialdiari dagozkion ordainsarien %60 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

b. Bestelako ebazpenak direnean, ehunekoak %25 izango da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 135 €.

2. Banaketa hurrengo hau izango da:

a. Errekurtsua prestatzeagatik, %10.

b. Errekurtsua jartzeagatik, %90.

c. Errekurtsua aurkaratzeagatik, %100.

3. Abokatuaren lehen auzialdikoa ez bada, %75 jasoko da epaiak edo epaiketa amaitzeko beste ebazpenak badira, eta auzialdiko prozedurari dagokionetik %40, bestelako ebazpenak badira. Komeni da kopuruak hauek baino txikiagoak ez izatea, hurrenez hurren: 400 € eta 175 €.

4. Gora-joleak errekurtsua jarri ondoren atzera egiten badu, gora-jotzea jasan duen alderdiaren abokatuaren ordainsariak 74. baremoan ezarritako irizpideen arabera jasoko dira.

5. 2000ko PZLren arabera izapidetu diren errekurtsuetan —eta lehen auzialdia 1881eko PZLren arabera—, aurreko ehunekoak aplikatuko dira aurkaratutako erabakiei baremo hauen arabera itxuraz dagokienetik, kasuan-kasuan formulatu diren errekurtsoei edo intzidenteei dagozkienak bazter utzita.

**250.** Bigarren auzialdi honetan frogatzen bada eta/edo PZLren 464. artikuluan araututako ikustaldia egiten bada, jaso beharreko ordainsariak %15 handituko dira, kasu bat zein biak gertatu.

## ***Kexa-errekurtsua***

**251.** Kexa-errekurtsua.

Errekurtsuaren objektu den ebazpena zein prozedura edo izapidetan eman eta horri dagozkion ordainsarien zenbatekoari %25 aplikatuz kalkulatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 220 €.

## ***Prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtsu berezia***

**252.** Prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtsu berezia.

Arauzaren lehen auzialdiari dagozkion ordainsarien %50 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 275 €.

**253.** Banaketa, frogatzen bada eta ikustaldia egiteari dagokienez, gora jotzeko errekurtsuak ezarritakoa aplikatuko da.

## ***Kasazio-errekurtsoa***

**254.** Kasazio-errekurtsoa Auzitegi Gorenean.

- a. Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.
- b. Errekurtsoa prestatzeko idazkiarengatik Probintzia Auzitegian edo Auzitegi Nagusian: 300 €.

**255.** Kasazio-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegian.

255.1 Alderdi errekurtsogilearen abokatuak eskalaren %75 jasoko du, eta oinarri moduan hartuko da aurkaratutako erabakien zenbatekoa, hurrengo banaketa honekin:

- a. Errekurtsoa prestatzeagatik, %10.
- b. Errekurtsoa jartzeagatik, %90.
- c. Errekurtsoa aurkaratzeagatik, %100.

Abokatuak aurreko auzialdian arazoaren ardura izan ez badu, ordainsariak %15 handituko dira.

Bigarren auzialdian froga egiten bada eta/edo ikustaldia egiten bada, ordainsariak %15 handituko dira, kasu bat zein biak gertatu.

255.2 Errekurtsoa jasan duen alderdiaren abokatuak eskalaren %60 jasoko du; baremo honen 1. atala ere aplikatuko da ehunekoei, frogari eta/edo ikustaldiari dagokienez, baita abokatuak aurreko auzialdian arazoaren ardura izan ez badu.

## ***Legearen intereserako errekurtsoa***

**256.** Legearen intereserako errekurtsoa.

Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.

## ***Epai irmoak berrikustea***

**257.** Epai irmoak Auzitegi Gorenean berrikustea.

Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.

257.1 Berrikuspen-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian:

257.2 Alderdi errekurtsogilearen abokatuak eskalaren %75 jasoko du, eta oinarri moduan hartuko da aurkaratutako erabakien zenbatekoa, banaketa honen arabera:

- a. Errekurtsoa prestatzeagatik, %10.
- b. Errekurtsoa jartzeagatik, %90.
- c. Errekurtsoa aurkaratzeagatik, %100.

Abokatuak aurreko auzialdian arazoaren ardura izan ez badu, ordainsariak %15 handituko dira.

Bigarren auzialdian froga egiten bada eta/edo ikustaldia egiten bada, ordainsariak %15 handituko dira, kasu bat zein biak gertatu.

257.3. Errekurtsoa jasan duen alderdiaren abokatuak eskalaren %60 jasoko du; baremo honen 2. atala ere aplikatuko da ehunekoei, frogari eta/edo ikustaldiari dagokienez, baita abokatuak aurreko auzialdian arazoaren ardura izan ez badu: 250 €.

## ***Epai irmoen hutsalketa***

**258.** Epai irmoen hutsalketa.

Arazoaren lehen auzialdiko ordainsarien %60 jasoko da, aurreko auzialdian abokatu berak arazoaren ardura izan badu, eta ez badu izan, %75. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

## ***Ebazpen judiziala argitzea***

**259.** Epaia zein edozein ebazpen judizial argitu edo zuzentzea eskatzeko idatzia (PZLren 214. art.). Komeni da kopurua 165 € baino txikiagoa ez izatea, baina kopuruak, inola ere, ez du gaindituko argitu beharreko ebazpena eragin duen arazoaren ordainsarien %50.

**260.** Epaiak edo autoak ongitzea edo osatzea eskatzeko idazkiagatik (PZLren 215. art.). Komeni da kopurua 200 € baino txikiagoa ez izatea, baina kopuruak inola ere ez du gaindituko ongitu edo osatu beharreko ebazpena eragin duen arazoaren ordainsarien %50.

## **BETEARAZPENA**

### ***Irizpide orokorrak***

**261.** Ordainsariak kalkulatzeko oinarriaren zehaztapena:

a. Diruzko betearazpena. Betearazpena zein kopururen gainean agindu eta hori izango da oinarria.

b. Diruzkoa ez den betearazpena. Betearazten den edo diren eskaeraren edo eskaeren balioaren arabera finkatuko da oinarria.

**262.** PZLren 517.2.1, .2 eta .3 artikuluan ezarritako tituluetakoa batean oinarritutako betearazpenak edo 517.2.9 artikuluan oinarritutakoa, ebazpen judiziala baldin bada titulua. Eskalaren %30 jasoko da, salbu eta beste betearazpen-baremo batzuetan adierazitako ehunekoak handiagoak direnean. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**263.** PZLren 517.2 artikulua gainerako ataletan oinarritutako betearazpenak, 9.a barne hartuta, ebazpen judizialak ez diren bestelako agiriak direnean. Eskalaren %50 jasoko da, salbu eta beste betearazpen-baremo batzuetan adierazitako ehunekoak handiagoak direnean. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**264.** Betearazpena areagotzea. PZLren 578.1 art.

Areagotzearen oinarria hori eragin duen betearazpenaren oinarriari gehituko zaio. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 65 €.

### ***Diruzko betearazpenak***

**265.** Ordainketa:

1. Zordunak ordainketa-agindeia egiten zaionean edo hurrengo hamar egun baliodunen barruan ordaintzen badu, aurreko kopuruen %70 jasoko da.

2. Ordainketa-agindeia legearen arabera manuzkoa ez denean, zordunak betearazpena agintzen duen autoa jakinarazi eta hurrengo hamar egun baliodunen barruan ordaintzen badu, orduan 262 edo 263. baremoak aplikatzean ateratzen diren kopuruen %70 ere jasoko da.

**266.** Betearazpenaren aurka jarriz gero, aurreko baremoen ordainsariak %50 handituko dira; aurka-jartzea auzigaiaren mamia lotutako arrazoiengatik izan eta ikustaldia egiten bada, ordainsariak %70 handituko dira.

**267.** Premiamendu-prozedurara jotzea beharrezkoa denean (PZLren 634. art. eta h.), aurreko ordainsariak %25eraino handituko dira, modu honetan banatuta:

a. Exekutatuaren ondasunak eta eskubideak diru bihurtu arte izandako jardunengatik, PZLren 634. eta 635. art. etakoak, eta alderdien eta interesdunen arteko diru-bihurtze

hitzarmenaren, besterentzearen edo enkante judizialaren aurreko jardunengatik, PZLren 636. art. eta h., %25 haren %80.

b. Ondasunak eta eskubideak alderdien eta interesdunen artean hitzartutako eta auzitegiak onartutako moduan diru bihurtzen badira edo besterentzea edo enkante judiziala gauzatzen badira, gainerakoa %25 hura osatu arte.

### ***Diruzkoak ez diren betearazpenak***

**268.** Ondasun hipotekatuen eta bahituen gaineko betearazpena.

a. Aurka-jartzerik ez badago, orduan oinarri moduan erreklamazio nagusia eta erreklamaturako interesak oinarri hartuta, eskalaren %50 aplikatuko da. Zordunak ordainketa-agindeia egiten zaionean edo hurrengo hamar egun baliodunetan ordaintzen badu, aurreko kopuruaren %70 jasoko da.

Enkantea egiten bada, ordainsariak %15 handituko dira.

b. Aurka-jartzerik badago, hitzezko epaiketaren baremoak aplikatuko dira erreklamazio nagusiaren eta erreklamaturako korrituen oinarriaren gain.

c. Kopuru galdagarrien kontsignazioaren ondorioz, familiaren etxebizitza edo ohiko etxebizitza askatzen bada, orduan eskalaren %100 jasoko da; oinarri moduan hartuko da kontsignazioaren datan kopuru nagusia eta korrituak direla bide muga-eguneratuta dagoen kopuru zehatza, baldin eta kontsignazio hori egiten bada PZLren 691. artikulua adierazi 30 eguneko epea igaro aurretik. Kontsignazioa data horretatik aurrera egiten bada, enkantea eskatu ondoren, eskalaren %50 jasoko da; oinarri moduan hartuko da erreklamazio nagusia eta korrituak.

**269.** Oinarriko titulu betearazlea edozein izanda eta diru-kopurua ematea ez dakarren kondena edo betebeharra badakar, eskalaren %30 jasoko da, betiere, betearazpena eskatu eta kondenatuari titulu betearazlean ezarritakoa bete dezala agintzen dion autoa eman ondoren exekutatuak agindua benetan betetzen duenean. Agindutakoa betetzen ez badu, baremo hauetatik kasu zehatzera gehien egokitzen direnak aplikatuko dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**270.** Diruzkoak ez diren betearazpenetan enbargoa edo beste berme-neurri bat eskatzen bada, gainera, eskalaren %5 jasoko da.

**271.** Gauza higigarria, gauza generikoak edo zehaztugabeak emateko betearazpenak. Betearazleari kasuan kasuko gauzaren edukitza emateko eginbideak egin behar direnean, eskalaren %35 jasoko da, eta oinarri moduan hartuko da betearazten den eskaeraren zenbatekoa. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**272.** Ondasun higiezina emateko betearazpenak. Betearazleari ondasun higiezinaren behin betiko edukitza emateko eginbideak egin behar direnean, eskalaren %30 jasoko da; oinarri moduan hartuko da ondasun higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioaren laurdena, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe. Ondasun higiezina exekutatu ez den hirugarren batek badu eta ikustaldia egiten bada hirugarren horri entzuteko eta botatzea gauzatu ahal izateko, eskalaren %40 jasoko da oinarri berbera kontuan hartuta; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

Edukitza aldi baterakoa bada, aurreko atalean adierazitako oinarriari gozamenaren gaineko zerga-arauak aplikatuko zaizkio, baina kopurua inola ere ez da izango ondasun higiezinaren balioaren laurdena baino handiagoa.

**273.** Zerbait egiteko betearazpenak.

a. Kondenatuak autoan agintzen zaion guztia betetzen badu, ordainsari moduan eskala-tipoaren %30 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

b. Zerbait egitera kondenatu dutenak agindutakoa betetzen ez badu eta, horren ondorioz, bere kontura egiten badu, ordainsariak arautuko dira eskala-tipoaren %35 aplikatuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

Egindakoaren zenbatekoa ordainarazteko premiamendu-prozedura egiten bada, premiamendu-prozeduraren baremoa ere aplikatuko da.

c. Egitatea bere-berezkoa den zehazteko intzidenteetan edo kondena egiteko moduari buruz edo beste edozeren inguruko intzidenteetan, ordainsariak kalkulatzeko eskala-tipoaren %40 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

d. Egitatea bere-berezkoa izateagatik kalteen ordaina emateko aukera badago eta horiek epaian finkatuta badaude, premiamendu-prozedurarako finkatutako ordainsariak jasoko dira.

e. Egitatea bere-berezkoa izateagatik kalteen ordaina modu kuantitatiboan finkatu bada, kalteak epaian zehaztuta ez daudelako, orduan ordainsariak finkatzeko eskala-tipoaren %40 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

Behin kalteak zehaztuta premiamendua egiten bada, premiamenduaren baremoa ere aplikatuko da.

#### **274. Ez egiteko betearazpenak.**

Gaizki egindakoa desegiten bada edo kondenatuak epaia urratzen badu, ordainsarien minuta eskalaren %40aren arabera egingo da.

**275.** Betearazpena izapide huts bat bete dadila eskatzea bada, esaterako erregistroan inskripzio bat egitea edo pentsioak eta antzekoak eguneratzea, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 135 €.

#### **276. Kalte-galeren likidazioa:**

a. Kalte-galeren zerrendarekin eta balorazioarekin batera aurkeztutako eskaerak eskalaren %30 sorraraziko du. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

b. Zorduna hartzekodunaren zerrendaren eta balorazioaren aurka jartzen bada, bi abokatuek, intzidente osoarengatik, eskalaren %45 jasoko dute. Kopuru hori kalkulatzeko, oinarri moduan hartuko da eztabaida-objektu den zenbatekoa, eta ateratzen den kopurua edonola ere ez da izango eskalaren %40 baino txikiagoa, kalte-galeren balorazioari aplikatuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 220 €.

**277.** Betearazpenak fruitu, errenta eta korrituen likidazioarekin batera egiten direnean edo kontuak eman eta garbitzen direnean.

a. Zordunak edo, hala denean, hartzekodunak aurkeztutako likidazioarekin adostasuna badago, eskalaren %30 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 110 €.

b. Zordunak aurkeztutako likidazioarekin adostasunik ez badago, bi abokatuek, intzidente osoarengatik, eskalaren %45 jasoko dute eta hori kalkulatzeko oinarri moduan hartuko da eztabaida-objektuaren zenbatekoa. Ateratzen den kopurua inola ere ez da izango eskalaren %40 baino txikiagoa, aurkeztutako likidazioari aplikatuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 110 €.

**278.** Etendura-eskaera, hurrengo arrazoietan oinarrituta: auzi-ihesean emandako epai irmoa berrikusteko edo hutsaltzeko demanda onartzea, zigor arloko epaitu aurrekotasuna edo PZLren 565. art. eta hurrengoetan ezarritako bestelako arrazoiak. Eskalaren %15 jasoko da, eta oinarri moduan hartuko da eten nahi den betearazpena zein kopururengatik agindu eta kopuru hori.

#### ***Atzerriko auzitegien betearazpenak***

**279.** Europar Batasuneko estatu kideetako epaiak Espainian betearaztea EB 44-2001 erregelamenduaren babesean. Eskalaren %50 jasoko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 450 €.

- a. Betearazpenaren aurka jarri eta Probintzia Auzitegian ikustaldia egiten bada, aurreko ataleko ordainsariak %70 handituko dira.
- b. Diruzko betearazpenean premiamendura jotzen bada, aurreko ordainsariak 267. baremoan adierazitakoaren arabera handituko dira.

**280.** Atzerriko beste auzitegi batzuek emandako epaien *exequatur* intzidentek. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

### ***Behin-behineko betearazpena***

**281.** Behin-behineko betearazpena.

Minuta egiteko, behin betiko betearazpenaren —diruzkoa zein diruzkoa ez izan—, baremoak hartuko dira kontuan.

### **JABARI-HIRUGARRENGOTZA ETA ESKUBIDE HOBEN HIRUGARRENGOTZA**

**282.** Jabari-hirugarrengotza eta eskubide hobeko hirugarrengotza.

Jabari-hirugarrengotzan, enbargatutako ondasunaren balioa hartuko da oinarri moduan eta eskubide hobeko hirugarrengotzan, eztabaidatutako eskubiderik txikienaren balioa. Bi kasuetan, epaiketa arruntari dagozkion baremoak aplikatuko dira.

### **KOSTUEN TASAZIOA**

**283.** Kostuen tasazioa:

- a. Kostuen tasazioa eskatzea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 110 €.
- b. Kostuen tasazioak aurkaratzean abokatuen edo perituen ordainsariak gehiegizkoak direla jotzen delako, eskalaren %25 jasoko da; oinarri moduan hartuko da erreklamatutako kopuruaren eta eztabaidatutako kopuruaren artean dagoen aldea, salbu eta azken hori modu esplizituan adierazten ez denean, azken kasu horretan erreklamatutako kopuru osoa hartuko baita. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.
- c. Kostuen tasazioak aurkaratzen direnean ordainsariak bidegabeak edo bidezkoak ez direla jotzeagatik edo behar den moduan justifikatutako gastuak sartu ez direlako, eskalaren %25 jasoko da; oinarri moduan hartuko dira aurkaratutako kopuruak. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.
- d. Tasazioa aurkaratzen bada ordainsariak gehiegizkoak edo bidegabeak direla jotzeagatik, aurreko atalak banan-banan aplikatuko dira, eta zenbatekoak ezin izango dira pilatu. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**284.** Prokuradorearen kontua edo abokatuaren minuta bezeroari eskatzeko prozedura berezi eta sumarioa.

Kostuen tasazioari dagokion aurreko baremoa aplikatuko da.

# ZIGOR ARLOKO JURISDIKZIOA

## IRIZPIDE OROKORRAK

**285.** Zigor arloko jurisdikzioari buruzko baremo hauek abokatuen jardunei dagozkien ordainsariak finkatzeko balio dute; zenbatekoa finkatzeko seigarren xedapen orokorreko irizpideak eta hirugarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan.

**286.** Baremo hauen arabera minuta neurrigabea eta gehiegizkoa den kasuetan, minuta egin duen abokatuaren lana ikusita, Gobernu Batzordeak hamahirugarren xedapen orokorrean ezarritako ahalmenak erabili ahal izango ditu.

**287.** Ahozko epaiketako ikustaldia egiteari dagozkion baremoak handituko dira eskaerarik larriena duen akusazio-idazkian datorren zigorraren arabera, modu honetan:

a. Zigor askatasun-gabetzaileak:

6 hilabetetik urtebetera: %25

Urte 1 baino gehiago eta 2 baino gutxiago: %50

2 urte baino gehiago eta 6 baino gutxiago: %100

6 urte baino gehiago eta 10 baino gutxiago: %200

10 urte baino gehiago eta 20 baino gutxiago: %300

20 urte baino gehiago: %400

b. Askatasunaz gabetzen ez duten zigorrak:

6 hilabetetik urtebetera: %10

Urte 1 baino gehiago eta 2 baino gutxiago: %20

Urte 2 baino gehiago eta 6 baino gutxiago: %50

6 urte baino gehiago eta 10 baino gutxiago: %100

10 urte baino gehiago: %150

Abokatu akusatzailea bada eta kondena-epaian akusazio-idazkian eskatutako zigorra baino txikiagoa ezarri bada, kostuetarako kondenaren kasuan, aurkako alderdiari jasanarazitako minutuan aplikatu beharreko gehikuntza ezarritako zigorraren arabera kalkulatu da.

**288.** Akusatu asko dituen auzia.

1. Abokatu defentsaria. Abokatuak akusatu bi edo gehiago defendatzen baditu, zenbat akusatu hainbat minuta igorriko ditu, baina akusatu guztien defentsan erkideak izan ziren jardunei dagozkien kopuruak, horietako bakoitzari eskatutako zigor edo kalte-ordainaren arabera ez bada, haien artean hainbanatuko dira.

Horietako bakoitzari eskatutako zigor edo kalte-ordainaren arabera diren kopuruak banan-banan kalkulatu dira eta haien artean dagokionari jasanarazitako zaizkio.

2. Abokatu akusatzaile partikularra bada eta zenbait akusatu badaude, printzipioz, minuta bakarra igorriko du, egindako jardunei erreparatuz, baina bakoitzarentzat eskatutako zigorraren edo kalte-ordainaren arabera kopuruak banan-banan kalkulatu dira, haien artean batu gabe.

**289.** Zigor-auzi bat prozedura mota baten bidez abiatzen bada eta, ondoren, prozedura mota aldarazten bada, jardun bakoitzari aplikatuko zaio jarduna zein prozedura motatan gauzatu eta prozedura horri dagokion baremoa.

**290.** Delitu-prozeduran faltaren ondoriozko kondena-epaia ematen bada, edo Zinpekoen Epaimahaian bideratutako prozeduran Zinpekoen Legearen menpekoea ez den delitua —edo falta— dela bide kondena-epaia ematen bada, jardunak zein prozedura motatan gauzatu eta horri dagozkion baremoak aplikatuko dira, epaiaren azken emaitza kontuan hartu gabe.

**291.** Prozesuan alderdietako baten abokatuak aldatzen denean, hamabosgarren xedapen orokorrean ezarritakoari kalterik egin gabe, hurrengo hau kontuan hartuko da:

a. Instrukzio-fasean, abokatu bakoitzak egindako jardunei dagozkien ordainsariak jasoko ditu.

b. Auzian erantzukizun zibilak, kalte-ordainak, etab. eskatu nahi badira edo horien inguruko defentsa egiten bada:

1. Instrukzio-fasean esku hartu duen abokatuak 390. baremoa eta hurrengoak aplikatzeari dagozkion ordainsarien %30 jasoko du, egitateak kalifikatzen ez baditu.
2. Egitateak kalifikatzen dituen abokatuak %10 jasoko du.
3. Ikustaldian parte hartzen duen abokatuak %60 jasoko du.

### ***Intzidentziak eta bestelako jardunak***

**292.** Etendurak eta atzeratzeak:

a. Falta-epaiketa edo edozein eginbide eteten bada hori egin behar zen egun berean: 45 €.

b. Ahozko epaiketa etetea edo atzeratzea, betiere, jakinarazpena egiten bada bost egun baino gutxiago falta direnean ahozko epaiketa egiteko: 70 €.

c. Errekurtso baten ikustaldia eteten bada: 60 €.

**293.** Epaitu aurreko arazoa sustatu edo horri erantzuteko idazkia: 135 €.

**294.** Eskumen-arazoak falta-epaiketetan: 85 €.

**295.** Eskumen-arazoak deklinatoria bidez delitu-auzietan: 165 €.

**296.** Jurisdikzio-gatazkak.

a. Falta-epaiketetan: 85 €.

b. Delituek eragindako prozeduretan: 200 €.

**297.** Epailleek, magistratuek eta epaitegi eta auzitegietako laguntzaileek ezespena eskatzeko edo horren aurka jartzeko idazkia. Minuta kalkulatzeko, seigarren xedapen orokorreko irizpideak hartuko dira kontuan. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**298.** Fiskaltzaren abstentzioa eskatzeko idazkia: 165 €.

**299.** Adituen ezespena edo horren aurka-jartzea: 110 €.

**300.** Aurretiaz erabaki beharreko arazoak:

a. Horiek proposatu edo horiei erantzuteko idazkiak: 135 €.

b. Froga-fasea: 65 €.

c. Ikustaldian agertzea eta txostena: 130 €.

Gauza epaituaren, delitua, amnistia edo indultua preskribatzearen eta artikuluko horien izapideak egin aurretik eta izapideak egin bitartean egindako jardun zehatzen salbuespenei oniritzia emanez gero, ordainsariak %40 handituko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

**301.** Estradizio-eskaera eskatzea edo horren aurka jartzea: 275 €.

### ***Atxilotuari laguntzea***

**302.** Atxilotuari poliziaren egoitzan edo egoitza judizialean laguntzea:

a. Atxilotuari laguntzea da abokatu atxilotuaren deklarazioan egotea, atxilotuaren intereserako den beste edozein eginbidetan agertzea, eta atxiloketarik ez dagoenean, egotziaren lehenengo deklarazioan egotea.

b. Atxiloketa-zentroan edo Guardiako Epaitegian laguntzea:

b.1 Laguntza ordu 1 baino laburragoa bada: 165 €.

b.2 Laguntza ordubetekoa baino luzeagoa bada, aparteko ordu edo zatiki bakoitzerako adierazitako kopurua %50 handituko da.

Laguntza larunbatean, jaiegunean edo 20:00etatik 8:00etara egiten denean, aurretik adierazitako kopuruak %100 handituko dira.

### ***Habeas Corpus prozedura***

**303.** Prozeduraren hasiera eskatzen duen idazkia: 100 €.

**304.** Abokatu prozedura hasteko autoaren osteko entzunaldira joatea.

a. Frogak proposatu eta/edo gauzatu bada: 200 €.

b. Frogak proposatu ez bada eta gauzatu ere ez: 165 €.

**305.** Prozedura hasteko autoaren osteko entzunaldian froga proposatu bada eta une horretan bertan gauzatu ez bada, froga horiek gauzatzeko abokatuak egindako agerraldi bakoitzaren minuta egingo da Zinpekoen Epaimahaiko Lege Organikoaren menpe ez dauden delitu-prozeduretan froga-eginbideak gauzateari dagokion baremoaren arabera.

### ***Falta-epaiketa***

**306.** Salaketa-idazkia:

a. Frogak proposatuta: 135 €.

b. Frogak proposatu gabe: 110 €.

**307.** Kereila-idazkia:

a. Frogak proposatuta: 265 €.

b. Frogak proposatu gabe: 220 €.

**308.** Ahalordea emateko edo pertsonatzeko idazkiak: 45 €.

**309.** Eginbideak bilatzea: 45 €.

**310.** Froga-eginbideak gauzatea proposatzeko idazkia: 55 €.

**311.** Auzia aztertzea: 80 €.

**312.** Ikustaldia egitea, adostasunik ez dagoelako: 250 €.

a. Ikustaldia saio bat baino gehiago luzatzen bada edo etendura dagoelako zenbait saiotan egiten bada, saio berri bakoitzeko %50 handituko da.

b. Ikustaldirako jarritako ordutik amaiera arte ordubete baino gehiago igarotzen bada, ordainsariak 45 € handituko dira aparteko ordu edo zatiki bakoitzeko.

c. Defendatzaile eta akusatzaile moduan aldi berean arituz gero, ordainsariak %50 handituko dira, erantzukizun zibilar dagokion kopurua izan ezik, hori kalkulatzeko erreklamaturako eta, hala denean, defendaturako kopuruak batuko baitira.

d. PKLren 970. art. aplikatuz egotziaren alegazio-idazkia aurkezten denean, abokatuak idatzitakoa, ikustaldia egiteari dagokionaz gain, hau jasoko da: 120 €.

**313.** Aurreko baremoetan ezarri ez diren eta delitu-prozedurei dagozkien baremoetan jasotako jardunak, Instrukzioko Epaitegian falta-epaiketan egiten direnak. Gomendaturako ordainsariak bertan ezarritako kopuruaren %75 izango dira.

**314.** Falta-epaiketa epaiarekin baino beste erabaki batekin bukatzen den kasuetan, abokatuak eskubidea izango du prozesuko jardunengatik dagozkion kopuruak jasotzeko, %10 gehituta, jardunak ikustaldia baino bost egun lehenago amaitzen badira.

### ***Zinpekoen Epaimahaiaren Legearen menpe ez dauden delituak***

#### ***Jardunak Instrukzioko Epaitegian***

##### **Idazkiak**

**315.** Salaketa-idazkiak:

- a. Frogak proposatuta: 220 €.
- b. Frogak proposatu gabe: 165 €.

**316.** Kereila-idazkiak:

- a. Frogak proposatuta: 375 €.
- b. Frogak proposatu gabe: 330 €.

**317.** Froga proposatzeko idazkia: 80 €.

**318.** Jardunak largestea eskatzeko idazki zioduna: 275 €.

**319.** Akusatuaren behin-behineko askatasuna edo espetxeratzea eskatzeko idazki zioduna edota uzi horien aurka jartzeko idazkiak: 220 €.

**320.** Aurretik adierazitako idazkien artean ez dagoen beste edozein idazki ziodun: 80 €.

**321.** Izendatzeko edo pertsonatzeko idazkia, jardunaren ikustaldia eskatzeko idazkia edo izapide hutseko beste edozein idazki, formalitateak betetzeko edo ziorik behar ez badu: 45 €.

##### **Bestelako jardunak**

**322.** Prozedura Kriminalaren Legeko 505. artikuluan ezarritako agerraldia.

Laguntzari dagokionaren minuta egiteaz gain, 302. baremoa, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

a. Agerraldian abokatu minuta-egileak froga proposatzen badu, edo beste alderdiren batek proposatuta frogak gauzatzen badira, %50 handituko da.

b. Alderdietakoren batek froga proposatu eta froga hori agerraldi horren ostean gauzatzen bada, jardun horren minuta froga-eginbideei dagokien baremoaren arabera egingo da.

322.1 PKLren 544bis eta 544ter artikuluetan ezarritako entzunaldiarengatik, babes-agindu baten barruan eskatutako zigor-izaerako neurriei buruzko ebazteko, aurreko atala aplikatuko da.

322.2 Aldi berean izaera zibileko neurriak eskatu eta horiei buruzko ebazpena ematen bada, 139.2. baremoa aplikatuko da.

**323.** Froga-eginbideak gauzatzea

- a. Epaitegiaren barruan: 110 €.
- b. Epaitegitik kanpo: 165 €.
- c. Eginbidea gauzatzeko jarritako ordutik eginbidea amaitu arte ordubete baino gehiago igarotzen denean, ordainsariak 45 € handituko dira aparteko ordu edo zatiki bakoitzeko.

**324.** Beste edozein jardunetan abokatua egotea beharrezkoa bada edo bezeroaren intereserako komenigarria bada: 110 €.

**325.** Epaitegirako irteerak, bezeroari laguntzeko soilik (berresteko, auzitegiko medikuaren azterketarako, abokatuaren esku-hartzerik gabe, etab.), bezeroari eskatuko zaizkio, betiere, berak beren beregi eskatu baldin baditu; halakoetan, 3 eta 4. baremoak aplikatuko dira.

### **Auzia aztertzea**

**326.** Auziaren azterketaren minuta egiteko, seigarren xedapen orokorreko irizpideak hartuko dira kontuan, eta minutan auziak zenbat folio dituen zehaztu beharko da: 165 €.

### **Akusazio- eta defentsa-idazkiak**

**327.** Fiskalaren edo akusatzaile partikularraren akusazio-idazkiarekin adostasuna erakusten duen idazkia, ahozko epaiketara iritsi gabe: 200 €.

**328.** Batera egindako kalifikazio-idazkia: 330 €.

**329.** Fiskalaren akusazio-idazkiarekin adostasunik eza agertzeko idazkia:

a. Froga proposatuta: 330 €.

b. Froga proposatu gabe: 220 €.

**330.** Erantzule zibil zuzenaren edo subsidiarioaren defentsa-idazkia:

a. Erantzule zibil zuzena edo subsidiarioa defendatzen duen abokatuak erruztatua ere defendatzen badu: 100 €.

b. Erantzule zibil zuzena edo subsidiarioa defendatzen duen abokatuak erruztatua defendatzen ez badu:

b.1 Defentsa-argudioak erruztatuak emandakoekin bat badatoz: 200 €.

b.2 Argudioak erruztatuak emandakoekin bat ez badatoz: 330 €.

### **Jardunak Zigor arloko Epaitegian**

**331.** Auzia aztertzea ikustaldia prestatzeko. Ikustaldirako jarritako data baino bost egun lehenago ikustaldia prestatuta dagoela ulertuko da. Kontzeptu horren minuta egingo da soil-soilik ikustaldia prestatu zuen abokatuak ikustaldi horretara joan zen berbera ez bada. Ordainsariak ikustaldia egiteari eta arau-hauste penalak eratorri erantzukizun zibilar dagozkion baremoen arabera zehaztuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

**332.** Ikustaldia egitea:

a. Akusazio-idazki larrienarekin adostasuna lortzen bada ikustaldiaren hasieran: 100 €.

b. Akusazio-idazki larrienarekin adostasuna lortzen bada ikustaldiaren hasieran idazki hori aldarazi ondoren: 275 €.

c. Ikustaldia osorik egiten bada (ikustaldia osorik egiten da froga gauzatu denean), edo ikustaldi-ekitaldian froga gauzatu gabe azkenean aurretik erabakitako arazoak onartzen badira: 385 €.

d. Ikustaldia saio bat baino gehiago luzatzen bada edo etendura dela bide zenbait saiotan egiten bada, adierazitako kopurua %50 handituko da saio berri bakoitzeko.

e. Ikustaldia egiteko jarritako ordutik hori amaitu arte ordubete baino gehiago igarotzen denean, ordainsariak 45 € handituko dira aparteko ordu edo zatiki bakoitzeko.

f. Aurreko baremoak aplikatzean ateratzen diren kopuruak eskatutako zigorraren arabera handituko dira, 287. baremoan ezarritakoaren arabera.

**333.** Izapide hutseko idazkia: 45 €.

**334.** Izapide hutsekoa ez den idazkia: 80 €.

## ***Epaiketa azkarrak (38/2002 Legea, urriaren 24koa, PKLren eta gainerako lege osagarrien eraldaketa partzialari buruzkoa)***

**335.** Irizpide nagusia. Egindako jardunen minuta egingo da, jardunok ahoz egin arren, eta zein prozeduraren edo epaiketaren izapideak egin diren kontuan hartuta. Beraz, atxilotuari laguntzeari, biktimaren, salatzailearen edo lekukoen deklarazioari, auzia aztertzeari, kalifikazioari, alderdiei entzuteari edo ikustaldiari, erantzukizun zibilei edo isunari eta abokatuak egindako gainerako jardunei horiek arautzen dituzten baremoak aplikatuko zaizkie, zein prozeduraren edo epaiketaren izapideak egin diren kontuan hartuta, ondoren adieraziko diren berezitasunekin.

335.1 Izapideak urriaren 24ko 38/2002 Legeko bigarren artikulua arabera (PKLren IV. Liburuaren III. Titulua, "Zenbait delitu azkar epaitzeko prozedura", aldatzen duena) egiten diren kasuetan, modu honetan egingo da minuta:

1. Auziaren azterketaren minuta 326. baremoaren arabera egingo da.
2. Fiskalaren edo akusatzaile partikularraren akusazioarekin erakutsitako adostasunaren minuta, epaiketara iritsi gabe, 327. baremoaren arabera egingo da.
3. Batera egindako kalifikazioa badago, 328. baremoaren arabera.
4. Akusatuaren defentsa ados ez badago, 329. baremoaren arabera.
5. Erantzule zibil zuzena edo subsidiarioa ados ez badago, 330. baremoaren arabera.
6. Prozedura kasuan kasuko eginbide bihurtzeari buruz alderdiei egindako entzunaldiagatik, PKLren 798. art., 324. baremoa aplikatuko da.
7. PKLren 505. artikuluan (504.bis 2 zaharra) ezarritako agerraldiagatik, atxilotuaren espetxeratzea edo behin-behineko askatasuna ebazteko, 322. baremoa aplikatuko da.
8. a) PKLren 544bis eta 544ter artikuluetan ezarritako entzunaldiagatik, babes-neurri baten inguruan eskatutako zigor-izaerako neurriei buruz ebazteko, 322. baremoa aplikatuko da.  
b) Aldi berean izaera zibileko neurriak eskatu eta horiei buruzko ebazpena ematen bada, 140. baremoa aplikatuko da.
9. PKLren 798. art.ko entzunaldiagatik, babes-aginduak ez diren bestelako kautela-neurriei buruz ebazteko, 324. baremoa aplikatuko da.

Arazo desberdinei buruz eztabaidatu eta ebazten den kasuetan (6.etik 9.era), oro har auto desberdinen bidez, minuta eztabaidatutako arazo-kopuruaren arabera egin daiteke, kasuan kasuko baremoei erreparatuz.

10. Epaiketa eginez gero, horri 332. baremoa aplikatuko zaio.

11. Erantzukizun zibilak eta/edo isuna 390. baremoaren eta hurrengoaren arabera arautuko dira.

12. Erantzukizun zibilak finkatzea epaiaren betearazpenera geroratzen bada, orduan jardun horri dagozkion ordainsariak 390. baremoko irizpide eta ehunekoetara egokituko dira, eta 407. baremoaren bidez arautuko dira soil-soilik erantzukizun horiei buruzko erabakia betearazten duten jardunak.

335.2 Izapideak urriaren 24ko 38/2002 Legeko hirugarren artikulua arabera egiten diren kasuetan, minuta egindako jardunen arabera egingo da, 306-314. baremoak, eta fiskalaren edo akusatzaile partikularraren akusazioarekin ados egoteagatik hau jasoko da: 110 €.

## ***Jardunak Probintzia Auzitegian***

### **Lehen auzialdian**

**336.** Prozedura sumarioan. Instrukzio-eginbideari erantzuteko idazkia:

- a. Eginbide berriak gauzatzea eskatzeko: 190 €.
- b. Auzipetzerik gabe sumarioa amaitzeko autoaren kasuan, auzipetzea eskatzeko idazkia: 375 €.
- c. Sumarioa amaitzeko autoarekin adostasuna badago: 55 €.

**337.** Auzia aztertzea.

Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean minuta egiteko dauden irizpideak hartuko dira kontuan, eta minutan auziaren folio-kopurua zehaztu beharko da: 165 €.

**338.** Kalifikazio-idazkia.

Instrukzioko Epaitegiari dagozkion baremoak aplikatuko dira, %50 handituta.

**339.** Aurretik erabaki beharreko arazoak:

a. Aurretik erabaki beharreko arazoak proposatzeko edo proposatutakoen aurka jartzeko idazkia: 220 €.

b. Ikustaldia egitea:

b.1 Ikustaldira doan abokatua kalifikazio-idazkia idatzi zuen bera bada: 110 €.

b.2 Desberdina bada: 165 €.

**340.** Ikustaldia egitea.

a. Akusazio-idazki larrienarekin adostasuna lortzen bada ikustaldiaren hasieran: 140 €.

b. Akusazio-idazki larrienarekin adostasuna lortzen bada idazkia ikustaldiaren hasieran aldarazi ondoren: 385 €.

c. Ikustaldia osorik lortzen bada (ikustaldia osorik egiten da froga gauzatu denean), edo ikustaldi-ekitaldian froga gauzatu gabe aurretik erabaki beharreko artikulua onartzen badira: 550 €.

d. Ikustaldia saio bat baino gehiago luzatzen bada edo etendura dela bide saio batean baino gehiagotan egiten bada, adierazitako gutxiengoa %50 handituko da aparteko saio bakoitzeko.

e. Ikustaldirako jarritako ordutik amaitu arte ordubete baino gehiago igarotzen denean, ordainsariak 70 € handituko dira aparteko ordu edo zatiki bakoitzeko.

f. Aurreko baremoak aplikatzean ateratzen diren kopuruak eskatutako zigorraren arabera handituko dira, 287. baremoan ezarritakoaren arabera.

**341.** Izapide hutseko idazkia: 65 €.

**342.** Izapide hutsekoak ez diren idazkiak: 110 €.

## **ZINPEKOEN EPAIMAHAIAREN LEGEAREN MENPE DAUDEN DELITUAK**

### ***Jardunak instrukzioko epailearen aurrean***

**343.** Zinpekoen Legearen menpekota ez den delitu-prozeduraren moduko jardunak: Instrukzioko Epaitegian edo Probintzia Auzitegian egindako jardunetarako aurretik ezarritako baremoak aplikatuko dira, eta bata edo bestea aplikatuko da prozeduraren objektu den delituarentzat adierazitako zigorraren larritasunaren arabera, ez hain larria edo larria.

**344.** Zinpekoak aurretik hautatzea (Zinpekoen Legearen 18. artikulua):

a. Zinpekoak izateko hautagaien zozketarako Legean ezarritako agerraldira joateagatik: 100 €.

b. Zinpekoak izateko hautagaien ezespina formulatzen denean, abokatuak hurrengoaren fakturazioa egin ahal izango du:

b.1 Ezespina formulatzeko idazkiarengatik: 135 €.

b.2 Froga proposatzen bada: 165 €.

b.3 Desenkusa, ohartarazte edo ezespina ikustaldira joateagatik: 200 €.

**345.** Egozte zehaztu eta jakinarazteko agerraldia:

a. Alegazioak edo eskaerak formulatuta: 165 €.

b. Alegazioak edo eskaerak formulatu gabe: 110 €.

**346.** Aurreko baremoan aipatu agerraldian egotzitako delitua ez den beste bat egozteko idazkia: 110 €.

**347.** Eragindako agerraldiaren minuta 345. baremoaren arabera egingo da.

**348.** Behin-behineko ondorioen idazkia eta ahozko epaiketaren irekiera eskatzea edo defentsak aurkeztutako behin-behineko ondorioen idazkia.

a. Atariko entzunaldian gauzatu beharreko frogarik proposatu gabe. Zinpekoen Legearen menpe ez dauden delitu-prozeduretako akusazio- eta defentsa-idazkiei dagozkien baremoen arabera egingo da minuta, zigorra hain larria ez bada, eta Probintzia Auzitegiko jardunen hurrenez hurreneko baremoen arabera, zigorra larria bada.

b. Atariko entzunaldian gauzatu beharreko froga proposatuta. Aurreko baremoa aplikatuko da, hau gehituta: 110 €.

**349.** Atariko entzunaldian laguntzea eta esku hartzea:

a. Froga gauzatu gabe: 140 €.

b. Froga gauzatuta: 275 €.

Saioa ordubetekoa baino luzeagoa denean, abokatuak aparteko ordu edo zatiki bakoitzaren fakturazioa egin ahal izango du, eta adierazitako kopurua 70 € handituko da aparteko ordu edo zatiki bakoitzeko.

**350.** Lekukotzak eskatzeko idazkia, ahozko epaiketan erabiltzeko: 140 €.

**351.** Auzitegian pertsonatzeko idazkia aurretiazko arazoak planteatu gabe: 65 €.

**352.** Zinpekoen Legeko 36. artikuluan ezarritako intzidenteren bat planteatzen duen pertsonatzeko idazkia:

a. Pertsonatzeko idazkia eta intzidenteak planteatzea: 100 €.

b. Froga-fasea: 60 €.

c. Ikustaldira joatea: 100 €.

### ***Jardunak Zinpekoen Epaimahaiko lehendakari magistratuaren aurrean***

**353.** Atariko entzunaldiaren deialdiari uko egitearen aurkako kexa-errekurtsoa: 165 €.

**354.** Zinpekoen Auzitegiko lehendakari magistratuaren aurrean erregu-errekurtsoa aurkezteko idazkia edo horren aurka jartzeko idazkia:

a. Hain larriak ez diren delituetan, Probintzia Auzitegiak Zinpekoen Legearen menpekoak ez diren delitu-prozeduretan emandako autoen aurkako erregu-errekurtsoei dagozkien baremoaren arabera egingo da minuta.

b. Delitu larrien kasuan, aurreko baremoaren arabera lortutako emaitzak %50 handituko dira.

**355.** Zinpekoen Epaimahaiko lehendakari magistratuaren autoen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezteko idazkia edo horren aurka jartzeko idazkia:

a. Hain larriak ez diren delituetan, Zinpekoen Legearen menpekoak ez diren delitu-prozeduretan horien aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoei edo horien aurka jartzekoei dagozkien baremoaren arabera egingo da minuta.

b. Delitu larrien kasuan, aurreko baremoaren arabera lortutako emaitzak %50 handituko dira.

**356.** Zinpekoak hautatzea (Zinpekoen Legearen 38. artikulua): 165 €.

a. Saio bakoitzaren fakturazioa egingo da, abokatuak bertan izandako esku-hartzearen eta saioaren iraupenaren arabera.

b. Zinpekoen Legeko 38. artikuluko izapidearen aurretik egindako zinpekoen ezespenez zioduna:

Ezespenez proposatzeko idazkia: 165 €.

Ikustaldia: 165 €.

### ***Ahozko epaiketa Zinpekoen Epaimahaian***

**357.** Zinpekoen aurreko aurretiazko alegazioei, frogak gauzatzeari eta ahozko txostenari dagokion fasearen minuta Zigor arloko Epaitegian ikustaldiak arautzen dituzten baremoen arabera egingo da (hain larriak ez diren delituen kasuan) edo Probintzia Auzitegi baremoen arabera (delitu larrien kasuan).

**358.** Zinpekoen desegite aurreratua eskatzea egozketa-froga ez dagoelako edo aurka-jartze horren aurkako alegaziozko aurka-jartze izapidea:

a. Delitua hain larria ez denean: 165 €.

b. Delitua larria denean: 220 €.

**359.** Berediktuaren objektua zinpekoei jakinarazi aurreko entzunaldian lagundu eta esku hartzeagatik:

a. Delitua hain larria ez denean: 220 €.

b. Delitua larria denean: 365 €.

**360.** Zinpekoen Legeko 57. artikuluko agerraldian laguntzea eta esku hartzea (zinpekoei jarraibide gehiago ematea, zinpekoek hala eskatuta edo botazioaren akta eztabaida hasi denetik bi egunera ematen ez den kasuan):

a. Delitua hain larria ez denean: 110 €.

b. Delitua larria denean: 185 €.

**361.** Zinpekoen Legeko 62. artikuluan ezarritako berediktua irakurtzeko ekitaldira joatea: 70 €.

**362.** Zinpekoen Legeko 63. artikuluan ezarritakoaren arabera, alderdiei entzutea, akta zinpekoei itzultzen zaienean.

a. Delitua hain larria ez denean: 220 €.

b. Delitua larria denean: 385 €.

**363.** Zinpekoen Legeko 68. artikuluan ezarritako txostena (erruduntasun-berediktuaren kasuetan). Ahozko txostenari buruzko baremoen aplikazioan jasota dagoela ulertzen da.

**364.** Zinpekoei berediktuaren objektua duen idazkia ematen zaienetik berediktua eman arte, absoluzioaren kasuan, edo 68. artikuluan ezarritako txostena gertatu arte, kondenaren kasuan, egun bat baino gehiago igarotzen bada, baremoak aplikatuz ateratzen diren ordainsariak 200 € handituko dira egun bakoitzeko edo egunaren zatiki bakoitzeko.

### ***Jardunak Auzitegi Nagusian***

**365.** Zinpekoen Epaimahaiko lehendakari magistratuaren autoaren aurkako gora jotzeko errekurtoa dela bide ikustaldia egitea. Gomendatutako ordainsariak gora jotzeko errekurtoaren idazkia aurkezteari dagokion baremoan ezarritako kopuruen %50 izango dira.

## ***Epaiaren aurkako gora jotzeko errekurtsua***

### **Jardunak Zinpekoen Epaimahaiko lehendakari magistratuaren aurrean**

**366.** Errekurtsua aurkezteko idazkia edo errekurtsu baldintzatua aurkezteko idazkia.

a. Delitua hain larria ez denean: 440 €.

b. Delitua larria denean: 740 €.

### **Jardunak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian**

**367.** Epaien aurkako gora jotzeko ikustaldia egitea:

a. Abokatu errekurtsogilearen kasuan edo abokatuak gora jotzeko errekurtsu baldintzatua aurkezten duenean:

Delituak hain larriak ez direnean: 220 €.

Delituak larriak direnean: 375 €.

b. Abokatu errekurrituaren kasuan:

Delituak hain larriak ez direnean: 660 €.

Delituak larriak direnean: 1.100 €.

### **Jardunak Auzitegi Gorenean**

**368.** Kasazio-errekurtsua Auzitegi Gorenean.

Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.

## **ADINGABEEN JURISDIKZIOA**

**369.** Adingabe atxilotuari laguntzea. Jurisdikzio honen menpekoak ez diren pertsonen kasuan atxilotuari laguntzeari dagozkion baremoak aplikatuko dira.

**370.** Habeas Corpus prozedura. Jurisdikzio honen menpekoak ez diren pertsonen Habeas Corpus prozedurari dagozkion baremoak aplikatuko dira.

**371.** Fiskalari espedientea erakusteko eta izapidetzeko eskaera, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko Lege Organikoko 23.2 artikularen babesean: 100 €.

**372.** Fiskaltzari eginbideak gauzatzea eskatzen duen idazkia: 110 €.

**373.** Adingabeen epaileari fiskalak onartu gabeko eginbideak gauzatzea eskatzen duen idazkia: 145 €.

**374.** Agerraldiak adingabearekin eta eginbideetan agertzea. Minuta egiteko, izapidearen garrantziari erreparatuko zaio: 165 €.

**375.** Kautela-neurriak:

a. Kautela-neurriak hartu aurreko entzunaldiarengatik: 75 €.

b. Adingabeen Legeko barneratze-neurria hartzeko agerraldira joateagatik:

Froga proposatu gabe: 165 €.

Froga proposatuta: 195 €.

**376.** Fiskaltzak egindako idazkiari erantzuteko alegazioen idazkia. Minuta egiteko, arazoaren konplexutasuna eta garrantzia hartuko dira kontuan, baita eskatutako neurrien larritasuna ere. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

Adingabearen defentsa fiskalarekin ados badago, Adingabearen Legeko 32. artikuluko agerraldira joateagatik: 165 €.

**377.** Entzunaldira joatea. Minuta egiteko, arazoaren konplexutasuna eta garrantzia hartuko dira kontuan, baita Fiskaltzak eskatutako neurrien larritasuna eta abokatuaren esku-hartzearen norainokoa ere. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €. Entzunaldian adingabearen defentsarekin adostasuna bada eta horrela ekitaldiak aurrera egitea saihesten bada, orduan ordainsariak %20 txikituko dira.

**378.** Epaitzaren betearazpena eteteko entzunaldian esku hartzea eta laguntzea: 135 €.

**379.** Zaintzapeko askatasun-neurria auto bidez berretsi aurreko entzunaldian laguntzea eta esku hartzea: 165 €.

**380.** Neurriak aldarazteko edo ordezteko eskaera: 200 €.

**381.** Ezarritako neurriak aldarazi edo ordeztu aurreko entzunaldian laguntzea eta esku hartzea: 165 €.

**382.** Erantzukizun zibilari buruzko prozesuaren izapideetan esku hartzea epaia eman arte. Xedapen orokorretan jasotako eskala-tipoaren %75aren minuta egingo da.

## ERREKURTSOAK

Atal honetan, zigor-jurisdikzioan organo judizial guztietan eta prozedura guztiak direla bide egin daitezkeen errekurtsu guztiak jaso dira, Zinpekoen Legearen menpeko delitu-prozedurak izan ezik, atal berezi batean jasota baitaude.

**383.** Jardunen deuseztasunari buruzko intzidenteetan, ordainsariak seigarren xedapen orokorrean xedatutakoaren arabera zehaztuko dira:

- a. Instrukzioaren prozesuko egintzen deuseztasuna (erregistroak, deklarazioak, telefono-interbentzioak, etab.): 360 €.
- b. Bitarteko faseko egintzen deuseztasuna (sumarioa amaitzea, prozedura laburtua hastea, ahozko epaiketa irekitzea, etab.): 275 €.
- c. Epaiaren deuseztasuna: 690 €.

**384.** Instrukzioko epailearen edo Zigor arloko Epaitegiaren ebazpenen aurkako erreforma-errekurtsua, horri atxikitzea edo aurkaratzea:

384.1 Kereila ez onartzeko, largespena edo artxibatzea onartzeko, prozedura laburtua hasteko edo ahozko epaiketa irekitzeko autoaren aurka: 440 €.

384.2 Egotziaren egoera pertsonalari buruzko ebazpenaren aurka: 190 €.

384.3 Bestelako ebazpenen aurka: 165 €.

**385.** Gora jotzeko errekurtsua, horri atxikitzea edo aurkaratzea.

385.1 Instrukzioko epaileak emandako autoen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkezteko idazkiarengatik:

- a. Auzipetze-autoaren aurkako errekurtsua, erreforma-errekurtsua idatzi zuen abokatuak barik beste batek idatzi badu: 360 €.
- b. Aurreko kasu berbera baina abokatu bakarra dagoenean: 100 €.
- c. Behin-behineko espetxeratze-autoaren aurkako errekurtsua, aurretik erreforma-errekurtsua egin ez bazen edo, eginda ere, erreforma-errekurtsua idatzi zuen abokatuak barik beste batek idatzi badu: 235 €.
- d. Aurreko kasu berbera, aurretik erreforma-errekurtsua egin bada eta abokatu berberak biak idatzi baditu: 100 €.
- e. Behin-behineko espetxeratzea berresteko autoaren aurkako errekurtsua: 235 €.
- f. Bestelako ebazpenen aurkako errekurtsua, aurretik erreforma-errekurtsua egin ez bada edo, halakorik eginda ere, erreforma-errekurtsua idatzi duen abokatuak barik beste batek idatzi badu: 165 €.

g. Aurreko kasu berbera, aurretik erreforma-errekurtsoa egin bada eta abokatu berberak idatzi badu: 100 €.

h. Gora jotzeko errekurtsoa erreforma-errekurtsoarekiko modu subsidiarioan aurkezten bada, orduan erreforma-errekurtsoari dagozkion ordainsariak soilik jasoko dira, %10 handituta, salbu eta gora-jotzean froga eta/edo ikustaldia dagoenean, kasu horretan jardun horietarako beren beregi ezarritako ordainsariak jasoko baitira.

385.2 Zigor arloko Epaitegiak emandako autoen aurkako errekurtsoak. Aurreko baremoa aplikatuko da.

385.3 Prozedura amaitzeko ebazpenen aurkako gora jotzeko errekurtsoa, horri atxikitzea edo aurkaratzea:

a. Prozedura amaitzeko epaien edo autoen aurkako gora jotzeko errekurtsoen izapide osoa egiteagatik, abokatu berbera bada, lehen auzialdian jasotako ordainsarien %60 jasoko da epaien aurkako errekurtsoa bada, edo prozeduraren instrukzio-fasean jasotakoa, autoen aurkako errekurtsoa bada, eta %75 abokatu desberdina bada. Minutan adierazi behar da lehen auzialdian zein jardun kontuan hartu diren, aurkeztu ahal izan diren errekurtsoen ordainsariak alde batera utzita.

b. Horrez gain, errekurtsoa aurkezteko edo aurka jartzeko idazkiarengatik, zenbateko hauek jasotzea gomendatzen da:

1. Instrukzioko Epaitegiak falta-epaiketetan prozedura amaitzeko emandako epai edo autoen aurka. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 220 €.

2. Zigor arloko Epaitegiak prozedura amaitzeko emandako epai edo autoen aurka. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

Ikustaldira joateagatik, halakorik badago, errekurtsoa aurkezteko edo aurka jartzeko idazkiari dagozkion ordainsariak %50 handituko dira, eta froga gauzatzen bada, %15 handituko dira.

**386.** Kexa-errekurtsoa, horri atxikitzea edo aurkaratzea.

386.1 Gora jotzeko errekurtsoa ez onartzeko ebazpenaren aurka: 165 €.

386.2 Kasazio-errekurtsoa ez onartzeko ebazpenaren aurka: 275 €.

386.3 Prozedura laburtuaren hasiera erabakitzen duen autoaren aurka:

a. Erreforma-errekurtsoa idatzi zuen abokatuak barik beste batek idatzi badu: 365 €.

b. Erreforma-errekurtsoa idatzi zuen abokatu berberak idatzi badu: 110 €.

386.4 Bestelako ebazpenen aurka:

a. Erreforma-errekurtsoa idatzi zuen abokatuak barik beste batek idatzi badu: 165 €.

b. Erreforma-errekurtsoa idatzi zuen abokatu berberak idatzi badu: 110 €.

**387.** Erregu-errekurtsoa, horri atxikitzea edo aurkaratzea.

Erregu-errekurtsoa, horri atxikitzea edo aurkaratzea. Probintzia Auzitegiak emandako autoen aurka erreforma-errekurtsorako edo horren aurka jartzeko idazkirako ezarritako kopuruak aplikatuko dira, %50 gehituta.

**388.** Kasazio-errekurtsoa Auzitegi Gorenean.

388.1 Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira; hala ere, hurrengo baremo hau aplikatuko zaie gure lurralde historikoko jurisdikzio-organoetan egindako jardunei.

388.2 Kasazio-errekurtsoa Probintzia Auzitegian edo Auzitegi Nagusian prestatzea.

a. Lege-haustearengatik: 300 €.

b. Forma urratzeagatik: 300 €.

c. Bi arrazoiengatik: 500 €.

**389.** Ebazpenak argitzea edo bestelako ebazpenak. Epai edo edozein ebazpen judizial argitzea eskatzen duen idazkia. Komeni da kopurua 160 € baino txikiagoa ez izatea; edonola ere ezin da gainditu argitzeko eskatu den ebazpena zein arazok eratorri eta horri dagozkion ordainsarien %50.

## **ARAU-HAUSTE PENALAK ERATORRITAKO ERANTZUKIZUN ZIBILA**

**390.** Ahozko epaiketa eragin duen auzian erantzukizun zibilak, konfiskazioa, kalte-ordainak edo ondorio zibil zuzenak dituzten bestelako erabakiak lortu nahi direnean, egindako jardun judizialei dagozkien ordainsariei eskala-tipoa aplikatuz ateratzen den kopuruaren %75 gehituko zaie, oinarri moduan hurrengo hauek hartuta:

- a. Abokatuak defentsari moduan jarduten badu: eskatutako kalte-ordaina.
- b. Abokatuak akusatzaile moduan jarduten bada eta kondena-epaia ematen bada: lortutako kalte-ordaina.
- c. Abokatuak akusatzaile moduan jarduten bada eta absoluzio-epaia ematen bada: erreklamaturako kopuruaren %50.
- d. Kalte-ordainera bilduko dira, hala eskatuz gero, lehen auzialdiko epaiaren data arteko korrituak.

**391.** Erantzukizun zibilak alderdien artean adosten badira epaiketa egin aurretik edo epaiketa egiten den bitartean, ordainsariak kalkulatzeko, transakzioari dagozkion baremoak hartuko dira kontuan; hala ere, kopurua ez da aurreko baremoan adierazitakoa baino handiagoa izango.

**392.** Isun-zigorra erantzukizun zibilari parekatuko zaio. Baremo hori aplikatuko da erantzule zibil zuzen edo subsidiarioaren defentsan ere, baina isun-zigorra ez zaio erantzukizun zibilari parekatuko.

**393.** Abokatuak abokatu akusatzaile moduan jarduten bada eta erreklamaturako kopuruaren eta emandako kopuruaren artean neurrigabeko aldea badago, edo absoluzio-epaia badago, orduan baremo hau aplikatuz ateratzen den kopurua Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeak ekitatez txikitu ahal izango du hamahirugarren xedapen orokorarekin bat etorritik.

### ***Prozeduraren amaiera, largeste-autoa dela bide***

**394.** Akusatuaren zigor-defentsarengatik auzia largetsi arte ordainsariak kalkulatu dira seigarren xedapen orokorreko irizpideekin bat etorritik, kasuaren garrantzi handiagoari edo txikiagoari eta abokatuaren lanari erreparaturik.

Egindako jardunei dagozkien baremoak aplikatuz ateratzen den kopuruari %50 gehituko zaio.

Gehikuntza horiek ez dira aplikatuko erantzule zibil zuzena edo subsidiarioa defendatzeagatik.

**395.** Auzian erantzukizun zibilak, konfiskazioa, kalte-ordainak edo ondorio zibil zuzenak dituzten erabakiak lortu nahi direnean, aurreko baremoa aplikatuz ateratzen diren abokatu defentsariaren ordainsariei gehituko zaie eskala-tipoa aplikatuz ateratzen den kopuruaren %50; oinarri moduan hartuko da largeste-autoa zein pertsonaren alde eman eta horri erreklamaturako kalte-ordaina.

Ondore horietarako, isun-zigorra erantzukizun zibilari parekatuko zaio.

Baremo hori aplikatuko da erantzule zibil zuzen edo subsidiarioa defendatzeko ere; hala ere, kasu horretan ez da bidezkoa izango isun-zigorra erantzukizun zibilari parekatzea.

Baremo horren aplikazioa Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeak ekitatez txikitu ahal izango du, baldin eta akusazioak erreklamaturako kopurua argi eta garbi neurrigabea bada.

**396.** Akusazioko abokatuari dagokionez, eskala-tipoa aplikatuz ateratzen den kopuruaren %20 handituko da; oinarri moduan erreklamaturako kalte-ordaina hartuko da.

## **EPAIEN BETEARAZPENA**

### ***Espetxe-araubidea***

#### **Jardunak Espetxe Administrazioan**

**397.** Gradua berrikustea eskatzeko idazki zioduna: 165 €.

**398.** Araubide arloko kexa-idazkia: 200 €.

**399.** Zuribide-agiria diziplina-prozeduretan:

a. Froga proposatuta: 220 €.

b. Froga proposatu gabe: 165 €.

#### **Jardunak Espetxe Zaintzarako Epaitegian**

**400.** Kexa-idazkia araubidea edo tratamendua dela bide: 200 €.

**401.** Espetxe-administrazioaren egintzaren aurkako errekurtsua, diziplina arloko egintza zehatzailea denean edo egintza baimen arlokoa zein tratamendu arlokoa denean: 330 €.

**402.** Gora jotzeko errekurtsua Probintzia Auzitegian Espetxe Zaintzarako Epaitegiaren ebazpenaren aurka, 495 €.

### ***Baldintzapeko barkamena, zigorren betearazpena etetea***

**403.** Baldintzapeko barkamena, zigorren betearazpena etetea, zigorrak bat-egitea eta ordeztea.

Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan: 330 €.

### ***Baldintzapeko askatasuna***

**404.** Baldintzapeko askatasuna.

Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan: 265 €.

### ***Zigor-aurrekariak ezereztea***

**405.** Zigor-aurrekariak ezereztea.

Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan: 165 €.

### ***Indultua***

**406.** Indultua.

Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan: 495 €.

### ***Erantzukizun zibilaren betearazpena***

**407.** Erantzukizun zibilei buruzko erabakiari dagokionez, epaia betearazteko zigor-jurisdikzioan egindako jardunak, epaitegiak ofizioz egiten ez dituenen. Minuta egiteko, eskala-tipoaren %10 aplikatuko da eta, hala denean, analogiaz, jurisdikzio zibilean epaiak betearazteko ezarritako irizpideak.

# ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA

## ADMINISTRAZIO BIDEA

### *Administrazio-prozedurak oro har*

**408.** Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritako irizpideetara egokitu beharko dira, eta prozeduraren edo jardun administratiboaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzko irizpidea izango da bezeroak kasuan kasuko arazoan daukan interesa.

**409.** Izapide hutseko edo eskaera arrunteko idazkia. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira, 110 €.

**410.** Eskaera- edo aurkaratze-idazki arrazoiduna, egitezko edo zuzenbideko alegazioekin. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira, 190 €.

**411.** Esku-hartze profesionala administrazio-espeditentean, pertsonatu, alegazioen idazkiak aurkeztu, frogak proposatu eta burututa, espeditentea ebatzi arte. Minuta honela egingo da:

a.1. Zenbateko zehatza. Eskala-tipoaren %30 jasoko da, erreklamazioa edo eskaera onartzen ez bada, eta oinarri moduan erreklamaturako kopurua hartuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

a.2. Eskala-tipoaren %80 jasoko da erreklamazioa edo eskaera onartzen bada, eta oinarri moduan emandako kopurua hartuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

b. Zenbateko zehaztugabea. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira eta kontuan hartuko da erreklamazioa edo eskaera baztertu edo onartzen den. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

**412.** Jurisdikzio zibilaren aurretik egindako erreklamazioa eta Administrazioaren ondare-erantzukizuneko aurretiazko erreklamazioa. Minuta aurreko baremoaren arabera egingo da.

**413.** Amore emate, atzera egite, prozesutik kanpo betetze eta transakzio kasuetan, analogiaz, jurisdikzio zibilari dagozkion baremoak aplikatuko dira.

### *Prozedura Lehiaren Defentsako Zerbitzuan*

**414.** Prozedura Lehiaren Defentsako Zerbitzuan

Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan. Komeni da eskala-tipoa aplikatzea 18.000 €-ko oinarri adierazlearen gain.

### *Prozedura zehatzailea*

**415.** Zenbateko zehatza:

a. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %30 aplikatuko da espeditentean hasieran edo izapidetzen den bitartean proposatutako zehapenik handienaren oinarriaren gain, ebazpena zehatzailea bada. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

b. Ebazpena aldekoa bada eta proposatutako zehapena deuseztatzen badu, ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %80 aplikatuko da espeditentean hasieran

edo izapidetzen den bitartean proposatutako zehapenik handienaren oinarriaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

**416.** Zenbateko zehaztugabea. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.

### ***Funtzionarioen aurkako diziplina-espeditentea***

**417.** Funtzionarioen aurkako diziplina-espeditentea

Ordainsariak instruktoreak proposatutako faltaren arabera jasoko dira, salbu eta largespena erabakitzen duenean. Kasu horretan, ordainsariak kargu-agirian jasotako faltarik larrienaren arabera zehaztuko dira:

- a. Falta arina, 165 €.
- b. Falta larria, 330 €.
- c. Falta oso larria, banantzearekin zehatu gabekoa, 495 €.
- d. Falta oso larria, banantzearekin zehatutakoa, 990 €.

### ***Administrazio-errekurtsoak***

**418.** Administrazio-errekurtso guztiak, horien izaera edo izendapena edozein dela, jarraian adierazitakoaren arabera baloratuko dira:

- a. Zenbateko zehatza. Eskala-tipoaren %20 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 195 €.
- b. Zenbateko zehaztugabea. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 195 €.
- c. Administrazio-espeditentean beste abokatu bat aritu bazen edo espeditentea abokatu gabe izapidetu bazen, orduan ordainsariak %20 gehituko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 195 €.

### ***Jardunak hirigintza arloan***

**419.** Aurri-adierazpeneko espeditentea:

- a. Aurka egitearekin. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %60 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.
- b. Aurka egiterik gabe. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %40 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

Bi kasuetan, oinarria zehazteko, arazoaren zenbatekoari erreparatuko zaio. Zenbateko hori higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioa kontuan hartuta zehaztuko da, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

**420.** Finkak Nahitaez Eraikitzeke Orube eta Higiezinaren Udal Erregistroan sartzeko edo hortik ateratzeko espeditentea:

- a. Aurka egitearekin. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %60 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.
- b. Aurka egiterik gabe. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %40 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

Bi kasuetan, oinarria zehazteko, arazoaren zenbatekoari erreparatuko zaio. Zenbateko hori higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioa kontuan hartuta zehaztuko da, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

**421.** Higiezina errausteko eta ondoren berreraikitzeke edo eraikuntza eransteke edo igotzeko espeditentea:

a. Aurka egitearekin. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %60 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

b. Aurka egiterik gabe. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %40 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

Bi kasuetan, oinarria zehazteko, arazoaren zenbatekoari erreparatuko zaio. Zenbateko hori higiezia zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioa kontuan hartuta zehaztuko da, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

**422.** Jarduera-lizentzia eta obrak egiteko edo establezimenduak irekitzeko lizentziak:

a. Abokatuaren esku-hartzea espedientearen gidatze edo kudeatze hutserako bada, ordainsariak kalkulatzeko eskala-tipoaren %10 aplikatuko da proiektuaren zenbatekoaren oinarriaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

b. Abokatuaren esku-hartzea egokitzapena ukatzeko edo aurkaratzeko kasuetan egiten bada, ordainsariak administrazio-errekurtsoei dagokien baremoaren arabera jasoko dira.

**423.** Okupatzeko lizentzia:

a. Aurreko baremoaren %20 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

b. Lizentzian adierazitako erabilera edo helburua aldatzea badakar, ordainsariak %50 gehituko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

**424.** Lanak errausteari edo legeztatzeari buruzko espedientea:

a. Lizentziarekin eraikitako obrak. Ordainsariak jasotzeko, eskala-tipoari %30 aplikatuko zaio. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 600 €.

b. Lizentziarik gabe eraikitako obrak. Ordainsariak jasotzeko, eskala-tipoari %50 aplikatuko zaio. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

Bi kasuetan, oinarria zehazteko, arazoaren zenbatekoari erreparatuko zaio. Zenbateko hori higiezia zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera duen balioa kontuan hartuta zehaztuko da, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.

**425.** Zehapen-espedientea hirigintza arloko arau-hausteengatik. Eskala-tipoaren %40 aplikatuko da, eta oinarri moduan zehapenaren oinarria hartuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

**426.** Konpontze-, segurtasun-, saneamendu-, itxiera-obren, orube-garbiketen, eta abarren nahitaezko betearazpenari buruzko espedientea. Eskala-tipoaren %40 aplikatuko da, eta oinarri moduan obraren kostua hartuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

**427.** Hirigintza-planak:

a. Ordainsariak honela banatuko dira:

a.1 Izapideak hasi aurreko azterketak eta lanak: 1/3.

a.2 Hasierako onarpena arte: 1/3.

a.3 Behin betiko onarpena arte: 1/3.

b. Hirigintza-plan orokorren edo partzialen zuzendaritza koordinatuarengatik, agiri desberdinen lege-alderdian lankidetzan arituz, horien eskaera idatziz eta izapideetan esku hartuz administrazio-ebazpena lortu arte. Eskala-tipoaren %10 jasoko da, eta oinarri moduan, orientazio gisa, jardunaren prozeduran ezarritako aurrekontu ekonomikoa hartuko da eta, halakorik ez dagoenean, ukitutako lursailen hasierako balioa.

c. Plan berezien zuzendaritza koordinatuarengatik, ondare historiko eta turismo-interesa duten gunen eta zentroak direla eta, aurreko atala aplikatzean ateratzen diren ordainsariak %30 gehituko dira.

- d. Xehetasun-azterlanengatik %30eko ehuneko murriztailea aplikatuko zaie b. edo c. atala aplikatzean ateratzen diren ordainsariei, jarduna non garatu eta horren arabera.
- e. Hirigintza-planen betearazpenean esku hartzeagatik, eskala-tipoaren %10 jasoko da, betearazpen materialerako aurrekontuaren balioaren gain kalkulaturik eta, halakorik ez dagoenean, higiezinaren balioaren gain kalkulaturik. Higiezinaren balio hori zehaztuko da higiezina zein lurraldetan egon eta bertako Foru Ogasuneko kasuan kasuko zerbitzuek zerga-egiaztapenerako egindako balorazioaren arabera, zamak egoteagatik zuzenketarik egin gabe.
- f. Partzelazio-, birpartzelazio- eta konpentsazio-proiektuetan esku-hartze profesionala egiteagatik, antolamendua, azterketa eta tituluak, eragiketaren garapen teknikorako jarraibideak eta berori planera egokitzea, proiektuak idatzi eta espedientea behin betiko ebazpeneraino gidatzea barne hartuta. Eskala-tipoaren %30 aplikatuko da ukitutako lursailen hasierako balioaren gain.

#### **428. Konpentsazio-batzordea.**

- a. Estatutuen Proiektuak eta Jarduteko Oinarriak idaztea, kasuan kasuko izapideen espedientean aholkuak ematea, hirigintza-erakundea eratzeko eskrituran esku hartzea eta Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan izena ematea, Konpentsazio Batzordearen aholkularitza juridiko orokorra, desegitea kasuan kasuko erregistroan inskribatzea. Ordainsariak kalkulatzeko, 427. f. baremoetan lortutakoari %30 aplikatuko zaio.
- b. Horrez gain abokatuak Konpentsazio Batzordeko idazkaria balitz, Merkataritza Sozietateko idazkariarentzat orientazio gisa ezarritako ordainsariak jasoko dira.

**429.** Aurreko ataletan ezarri gabeko hirigintza-izaerako jardun guztietan, analogiaz, jardun horri hobekien egokitzen zaizkion irizpide edo baremoak aplikatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

#### ***Jabetza nahitaez kentzea***

**430.** Onura publikoko edo okupazio-beharrizaneko deklarazio-fasean esku hartzea:

- a. Alegazioen idazkia, akatsak ongituz, 100 €.
- b. Okupazio-beharrizanari aurka egiteko idazkia. Ordainsariak zehazteko, zein ondasunen gaineko jabetza kendu eta horren balioaren gain eskala-tipoaren %25 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**431.** Balioespen fasean esku hartzea:

- a. Balioespena adostasunez finkatzen bada, eskala-tipoaren %10 aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da balorazio hori, beste jardun batzuegatik jaso behar diren ordainsariei kalterik egin gabe. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.
- b. Esku-hartze profesionala balioespena finkatzeko pieza bananduan, prezamendu-orriaren idazketa barne hartuta, alegazioen idazkia eta administrazio-bidea amaitzeko ezinbestekoak diren gainerako jardun edo eginbideak. Eskala-tipoaren %50 aplikatuko da, eta kalkulatzeko oinarri moduan hartuko da Administrazioak emandako prezioaren eta jabetza kendu zaionak eskatutako prezioaren arteko aldea. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 330 €.
- c. Jabetza kendu zaionak Epaimahiak finkatutako balorazioa onartzen badu, abokatuak balioespenaren fase osoaren izapideak eginda, zenbatekoa aipatu balorazioak zehaztuko du, korrituak barne hartuta, eta eskala-tipoaren %30 aplikatuko da.

**432.** Okupazio aurreko aktan, okupazio-aktan eta jabetza kentzen duen administrazioan egindako gainerako esku-hartze pertsonaletan laguntzea. Jardun horien minuta banaka egingo da, eta erreferentzia moduan epaiketaz kanpoko jardunen baremoak hartuko dira.

**433.** Jabetza kentzeko jardun guztietan esku hartzeagatiko ordainsariak ez dira izango eskala-tipoaren %100 baino handiagoak, eta horiek kalkulatzeko oinarri moduan hartuko da administrazioak eskainitako prezioaren eta jabetza kendu zaionak eskatutako prezioaren arteko aldea.

### ***Atzerritartasuna eta asilo-eskubidea***

**434.** Atzerritarren egoitza- eta lan-baimena izapidetu edo lortzea. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, 300 €.

**435.** Atzerritarrak Espainian sartu, bertan egon eta bertatik irteteko ebazpenen aurkako administrazio-errekurtsoak, 300 €.

**436.** Espainian asilo-eskubidea lortzeko jardunak eta errekurtsoak eta errefuxiatu-izaera homologatzea. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, 400 €.

### ***Bestelako jardunak***

**437.** Esku-hartze profesionala kontrabandoari buruzko espedientean Aduana Administrazioan pertsonatze-idazkiarekin, kargu-agiriaren erantzunarekin, alegazioekin —frogak proposatuta zein proposatu gabe—. Eskala-tipoaren %50 aplikatuko da ebazpen-proposamenera bildutako isunaren eta/edo konfiskazioaren zenbatekoaren oinarriaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

**438.** Interesdun bat baino gehiago aldi berean defendatzea. Ordainsariak %25 gehituko dira interesdun bakoitzeko, eta ordainsariak haien artean hainbanatuko dira zati berdinetan edo formulatutako zehapen-proposamenekiko modu proportzionalean.

**439.** Gora jotzea alegazioekin eta frogekin, hala denean, Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, Aduana Administrazioak espedientean emandako epaitzaren aurka:

a. Espedientearen gidaritza juridikoa egin bada, eskala-tipoaren %20 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

b. Espedientean esku hartu ez bada, eskala-tipoaren %25 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 700 €.

Bi kasuetan, ebazpen-proposamenera bildutako isunaren eta/edo konfiskazioaren zenbatekoa oinarri moduan hartuko da.

**440.** Erantzule zibil subsidiarioa laguntzen duen abokatuak ordainsarien minuta aurreko atalen arabera egingo du.

**441.** Inputatuaren/inputatuen eta erantzule zibil subsidiarioaren gidaritza juridikoa aldi berean eta batera eginez gero, ordainsariak %25 gehiago gehituko dira.

### ***Enkantea, lehiaketa eta lehiaketa-enkantea***

**442.** Oinarria lizitazio tipoak osatuko du. Hori oraindik zehaztu gabe badago edo lizitazioa tiporik gabe egiten bada, orduan xedapen orokorretan minuta egiteko irizpideetan ezarritakoa aplikatuko da.

**443.** Jendaurrean jarritako proiektuak edo baldintzen agiriak aurkaratzea, lizitazioa horiei buruzkoa izango baita. Eskala-tipoaren %10 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**444.** Lizitaziora joateko dokumentazioa prestatzea, baldintza-agirien eta espediente osoaren azterketa barnean hartuta. Eskala-tipoaren %5 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**445.** Alegazioak, gutun-azal itxiak irekitzeko ekitaldian, prozedurak hala uzten duenean; alegazioen idazkiak, gutun-azal itxiak ireki eta adjudikazioa egin bitartean, eta antzeko intzidentziak. Eskala-tipoaren %20 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

#### **Urak, meatzeak, kostaldeak, zerbitzu publikoak, administrazio kontratuak**

**446.** Erakunde publikoek zehazteko moduko zenbatekoa duten ekintza edo eskubideak aitortzen dituzten espedienteetan, eta aipatu gai bereziei edo antzekoei buruzkoak direnean, ordainsariak jasotzeko eskala-tipoaren %40 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

**447.** Zenbatekoa zehazteko modukoa ez bada, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoari erreparatuz finkatuko da, 400 €.

**448.** Emakidetan, zenbatekoa errentamenduetarako ezarritakoaren arabera zehaztuko da, eta erreferentzia moduan hartuko da finkatutako kanona, 400 €.

**449.** Kontratuak eta hitzarmenak:

- a. Kontratuak eta hitzarmenak adjudikatzeko prestakuntza-izapideak, 400 €.
- b. Kontratuen eta hitzarmenen idazketa. Kontratu pribatuak idazteko baremoak aplikatuko dira, 400 €.
- c. lus variandi delakoa, prezioen berrikuspena eta fidantzen inguruan sortutako arazoak eta kontratuen eta hitzarmenen ondoreak eta horiek azkentzea prozedura desberdinak izango dira kontratu eta hitzarmen horiek egitea eragin zuen prozedurarekin alderatuz gero, 400 €.

**450.** Baimenak edo lizentziak eta aginduak. Jarduera jarraitu bati buruzkoak direnean, prozeduraren zenbatekoa urteko oinarri ekonomikoaren bost urtekok zehaztuko dute, 400 €.

#### **Izaera orokorreko xedapenak**

**451.** Lege-proiektuen edo foru-arauen edo antzekoen testu artikulatuen gaineko lan tekniko-juridikoa, edo erregelamendua, eta horien izapideetan parte hartzea kasuan kasuko gobernu-organoak onetsi arte, 2.000 €.

**452.** Aurreko baremoan aipatutako testuei buruzko irizpenak ematea. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, 1.000 €.

#### **Lurreko garraioari buruzko adiskidetze- eta informazio-batzordeak**

**453.** Lurreko garraioari buruzko adiskidetze- eta informazio-batzordeak. Ordainsariak jurisdikzio zibilean adiskidetze-ekitaldietarako ezarritako berberak izango dira.

#### **Itsas arrantzako arau-hauste administratiboak**

**454.** Itsas arrantzako arau-hauste administratiboak. Eskala-tipoaren %75i dagozkion ordainsariak jasoko dira, eta oinarri moduan arau-haustearen zenbatekoa hartuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

## **Tributu arloko jarduna**

### **Eskabideak**

**455.** Jarduera hasi, aldatu edo amaitzeari buruzko errolda-adierazpenak errolda fiskaletan, 70 €.

**456.** Alta, aldaketa, uko egite edo bukatze eskabideak.

- a. Edozein zergatan, 70 €.
- b. Zenbatespen objektiboak PFEZen, 70 €.
- c. BEZaren araubide bereziak, 70 €.
- d. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, 70 €.
- e. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga edo Landa-kontribuzioa, 70 €.

**457.** Ordainketa luzatzeko, geroratzeko edo zatitzeko, sarrerak itzultzeko, zehapenak barkatzeko, edozein motatako tributuak direla bide salbuespenak edo zerga-arintzeak lortzeko eskabideak. Eskala-tipoaren %15 aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da luzatu, geroratu, zatitu, barkatu, salbuetsi edo arindu nahi den kopurua. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 70 €.

### **Aldizkako aitortpenak**

**458.** Aldizkako aitortpenak-likidazioak:

- a. Zatitutako ordainketak edozein zerga motatan, 100 €.
- b. Atxikipenak PFEZen eta Sozietateen Zergaren kontura, 100 €.
- c. BEZaren hiruhileko aitortpenak edo urteko aitortpena, 100 €.
- d. Atxikipenen hileko edo hiruhileko laburpenak, 100 €.
- e. Hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpena, 100 €.
- f. Jasotzaileen urteko aitortpena, 100 €.
- g. Sarreraren eta ordainketen urteko aitortpena, 100 €.
- h. Goian aipatu gabeko aldizkako edozein aitortpen-likidazio, 100 €.

### **Aitortpenak eta likidazioak**

**459.** Irizpide orokorra. Salbuespena, preskripzioa, etab. dagoen kasuetan, aplikatu behar den baremoak hartuko balu ordainsariak zehazteko oinarri moduan likidatutako kuota, orduan, kasu horietan, salbuespena, preskripzioa, etab. egon ez balira egokituko litzatekeen kopurua kontuan hartu behar da.

**460.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga:

Datuak lortzeagatik, aurrekariak aztertzeagatik eta, hala denean, zerga horren aitortpena aurkezteagatik, jasotako ordainsariei kalterik egin gabe, ordainsarien minuta egingo da seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera, baina modu subsidiarioan eskala-tipoaren %15 kontuan hartuko da zerga-oinarriaren gainean. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 110 €.

**461.** Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga: minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, 300 €.

**462.** Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, hala denean, autolikidazioarekin. Likidatutako kuotaren %3ri dagokiona jasoko da, 100 €.

**463.** Oinordetza eta Dohaintzari buruzko Zerga, hala denean, autolikidazioarekin. Likidatutako kuotaren %3ri dagokiona jasoko da, 200 €.

**464.** Sozietateen gaineko Zerga. Minuta zuhurtziaren arabera egingo da, hurrengo baremoko irizpideei erreparatuz.

**465.** Sozietate eta erakunde juridikoei emandako aholkularitza iraunkorra, zergei buruzkoa (sozietateen gaineko zerga izan ezik, kasu horretan, minuta modu independentean egingo baita). Urteko kopururik handiena jasoko da, taula honen arabera:

<b>Langileen kop.</b>	<b>Ibilgetuaren balioa</b>	<b>Fakturazioa</b>	<b>Ordainsariak</b>
50eraino	300.000 €-raino	600.000 €-raino	2.200 €
51tik 100era	300.001 €-tik 900.000 €-raino	600.001 €-tik 1.200.000 €-raino	2.860 €
101etik 200era	900.001 €-tik 1.500.000 €-raino	1.200.001 €-tik 3.005.000 €-raino	3.630 €
200 baino gehiago	1.500.00 € baino gehiago	3.005.000 € baino gehiago	4.400 €

**466.** Pertsona fisikoen aholkularitza, aitorpenak eta autolikidazioak. Aholkularitza orokorra (PFEZ, Ondarearen gaineko Zerga, BEZ, ordainketa zatituak, atxikipenak, erregistro ofizialak). Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, eta urtean kopuru hau gomendatzen da: 440 €.

#### **Jardunak Ogasun Ikuskaritzan**

**467.** Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, 300 €.

#### **Itzultze-espeditentak**

**468.** Bidezkoak ez diren sarrerak itzultzeko eskabideak eta espeditentak izapidetzea:  
a. Lege-oinarririk gabe. Eskala-tipoaren %5 aplikatuko da itzulketatik lortzen den kopuruaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 80 €.  
b. Lege-oinarriekin. Eskala-tipoaren %10 aplikatuko da itzulketatik lortzen den kopuruaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 160 €.

#### **Aurrekontuak eta zerga-ordenantzak**

**469.** Toki Administrazioaren aurrekontu eta zerga-ordenantzen aurka egindako erreklamazio edo aurkaratzeak, testu horiek jendaurrean daudenean edo beste edozein epe-muga baliodunetan. Eskala-tipoaren %15 aplikatuko da erreklamaturako edo aurkaraturako kasu konkrituaren zenbatekoaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.  
Minuta egiteko oinarria zehaztuko du erreklamazioaren zenbatekoak edo erreklamatu edo sartu nahi den aurrekontu-partidaren zenbatekoak; beraz, ez da kontuan hartuko aurkaraturako zergaren edo eztabaidaturako ordenantza ezartzean aurreikusitako erreklamazioaren kopuru osoa.

#### **Erreklamazio ekonomiko-administratiboak**

**470.** Erreklamazioa jartzeko idazkia, 90 €.

**471.** Espedientearen instrukzioa:

1. Espedientearen instrukzioa, alegazioen idazkia eta, hala denean, froga proposatzeko idazkia. Eskala-tipoaren %50 jasoko da erreklamazio-objektu den kopuruaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 220 €.
2. Minuta egiteko oinarria zehaztuko du erreklamazioaren zenbatekoak edo erreklamatu edo sartu nahi den partidaren zenbatekoak; beraz, ez da kontuan hartuko aurkaratutako zergaren edo eztabaidatutako ordenantza ezartzean aurreikusitako erreklamazioaren kopuru osoa.

**472.** Ordainsariak, modu orientatzailean, honela banatuko dira:

- a. %30 erreklamazioa jartzeko.
- b. %70 alegazioetarako eta frogetarako.

**473.** Gora jotzeko errekurtsioa Auzitegi Ekonomiko-Administratibo Zentralean.

Eskala-tipoaren %35 aplikatuko da erreklamazio-objektu den kopuruaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

### **Tributu eta zerga arloko ordezkariak**

**474.** Ordezkaritzagatik jaso beharreko ordainsariak eta ordezkariak dela-eta egindako jardunen ordainsariak independenteak izango dira.

**475.** Pertsona fisiko ez-egoiliarraren ordezkariak, 200 €.

**476.** Atzerrian egoitza izan eta establezimendu iraunkorrik ez duten pertsona juridikoen ordezkariak, 385 €.

## **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA**

### ***Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa***

#### **Irizpide orokorrak**

**477.** Hurrengo kasuetan, analogiaz, jurisdikzio zibilari dagozkion baremoak aplikatuko dira: amore ematea; atzera egitea; uzia prozesutik kanpo betetzea eta transakzio kasuak; gora jotzeko, kasazio, legearen intereserako kasazio eta berrikuspen errekurtsioak; eta epaiak betearaztea.

**478.** Doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsioen kasuan, analogiaz, lan arloko jurisdikzioari dagozkion baremoak aplikatuko dira.

#### **Prozedura arrunta**

**479.** Prozedura arrunta:

- a. Zenbateko zehatzekoa bada. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 935 €.
- b. Zenbateko zehaztugabekoa bada. Eskala-tipoa 18.000 €-ko oinarri adierazlearen gain aplikatuko da.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsio bati oro har dagozkion ordainsariak jasoko dira jardun profesionala errekurtsio osoari lotuta egiten denean, legearen arabera posible diren izapide guztiak egin ez arren. Bestela, banaketa hau hartuko da kontuan:
  - c.1. Alegazioen aldia, %70.
  - c.2. Errekurtsioaren gainerakoa, epaia arte, %30.

## **Prozedura laburtua**

**480.** Prozedura laburtua:

a. Zenbateko zehatzekoa bada. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

b. Zenbateko zehaztugabekoa bada. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

c. Ordainsariak honela banatu dira:

c.1. Auzi-jartzailearentzat:

Demandarekin, %70.

Epaiketa-ekitaldiarekin, %30.

c.2. Demandatuarentzat, %100 epaiketa-ekitaldiari egokituko zaio.

## **Bestelako prozedurak**

**481.** Bizilekuan sartzeko baimena emateko prozedurak. Konplexutasun berezirik ez badago, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**482.** Funtzionarioen zerbitzua banantzeari buruzko errekursoetan, minuta egiteko oinarria izango da bost urteko hartzekoen batura, kontzeptu guztiak kontuan hartuta. Banantzea aldi baterako balitz, oinarria izango da kontzeptu guztien batura etetealdian, baina aldi hori inoiz ez da izango bost urte baino luzeagoa. Edonola ere, komeni da kopurua erreklamazioaren izapideak zein prozedura motaren bidez egin eta horretarako adierazitako kopurua baino txikiagoa ez izatea.

**483.** Administrazioan funtzionario, bitarteko funtzionario, etab. moduan sartzeari buruzko errekursoetan, minuta egiteko oinarria izango da ordain gisako kontzeptu guztien bost urteko hartzekoen batura. Errekurtsoaren objektua beste talde, kategoria, etab. bati atxikitzea bada, orduan oinarria izango da kontzeptu guztiengatik jaso izan den kopuruaren eta uzia oniritziz gero jaso beharko litzatekeen kopuruaren arteko aldea, bost urteko tartean. Edonola ere, komeni da kopurua erreklamazioaren izapideak zein prozedura motaren bidez egin eta horretarako adierazitako kopurua baino txikiagoa ez izatea.

**484.** Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren Legeko 58. artikulua aurretiazko alegazioak edo horiei erantzutea. Eskala-tipoaren %20 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 135 €.

## **Kautela-neurriak**

**485.** Kautela-neurriak:

a. Aurkaratutako administrazio-egintzaren betearazpena eteteko intzidentean esku hartzea. Arazo nagusiari dagozkion ordainsarien %10 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 250 €.

b. Gainerako kautela-neurriak. Analogiaz, jurisdikzio zibilari dagozkion irizpideak aplikatuko dira.

## **Erregu-errekurtsoa**

**486.** Erregu-errekurtsoak probidentzien, autoen eta intzidenteen aurka. Arazo nagusiari dagozkion ordainsarien %15 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

### ***Jurisdikzio-gatazkak***

**487.** Herri Administrazioen eta Justizia Auzitegien artean sortutako jurisdikzio-gatazkak.

Kasu bakoitzean gatazkak zein prozesu judizialen bidez bideratu eta horretarako ezarritako ordainsarien %30 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 295 €.

# LAN ARLOKO JURISDIKZIOA

## EPAIKETAZ KANPOKO GAIAK

### ***Kontratazioa eta arauketa***

**488.** Lan-kontratuen idazketa. Ordainsariak kalkulatzeko, urteko alokairua oinarri moduan hartuko da eta horien zenbatekoari kontratuei dagokien baremoa aplikatuko zaio.

**489.** Plantila, lerrundegiak eta pertsonalaren sailkapena aztertzea. Minuta seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera egingo da. Komeni da kopurua hauek baino txikiagoa ez izatea:

- a. Gehienez 10 langile aztertuz gero, 600 €.
- b. 11 eta 50 langile artean aztertuz gero, 1.000 €.
- c. 51 eta 100 langile artean aztertuz gero, 2.000 €.
- d. 101 eta 500 langile artean aztertuz gero, 3.000 €.
- e. 500 langile baino gehiago aztertuz gero, 100 bakoitzeko edo 100eko zatiki bakoitzeko, zenbatekoa hau gehituko da: 250 €.

**490.** Enpresako itunak edo hitzarmenak, lan-loturen alde zehatzei buruzkoak direnean eta konplexutasuna dela-eta estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboak ez direnean, kasu horretan hitzarmen kolektiboek dagozkien baremoak aplikatuko baitira. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera finkatuko dira, plantila eta enpresaren garrantzia kontuan hartuta, aurreko baremoaren arabera. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.000 €.

**491.** Abokatuaren lana aurreko hitzarmen baten oinarritzko aldaketak egitea bada, orduan hitzarmen osoa idazteagatik egokituko litzatekeen kopuruaren %50 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

**492.** Lan-arriskuak prebenitzeko planak edo lan-arriskuak ebaluatzeko agiriak edo funtzionamendu-arauak idaztea. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera finkatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.000 €. Abokatuaren lana aurreko planen oinarritzko aldaketak egitea bada, orduan horiek osorik idazteagatik egokituko litzatekeen kopuruaren %50 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 500 €.

**493.** Mutualitateetarako, Kooperatibetarako, Elkarte Profesionaletarako eta Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetarako estatutuak idaztea. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, 1.000 €.

**494.** Hitzarmen kolektiboak:

494.1 Azterketa, aholkularitza, idazketa eta esku hartze lanak hitzarmen kolektiboan eztabaidan eta eraketan. Minuta egiteko, konplexutasuna, ukitutako langileen kopurua, enpresaren egitura-inguruabarrak, garrantzia eta hitzarmenaren lurralde-esparrua hartuko dira kontuan. Komeni da kopurua hauek baino txikiagoa ez izatea:

- a. Enpresa-hitzarmena bada, 2.500 €.
- b. Goragoko esparruko hitzarmena bada, 4.000 €.

494.2 Abokatu esku-hartzaileak, gainera, eztabaida-saio bakoitzaren minuta egingo du:

- a. Enpresa-hitzarmena bada, 120 €.
- b. Goragoko esparruko hitzarmena bada, 240 €.

**495.** Aholkularitza eta esku-hartzea, aurreko ataleko kasuetan eztabaida-batzordeko bileretara joanda, hitzarmenaren idazleak izan gabe. Ordainsariak seigarren xedapen

orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 350 €.

**496.** Hitzarmena interpretatzen duten batzorde mistoetara joatea, batzarren iraupenari, zailtasunari eta garrantziari erreparatuz, 240 €.

### ***Diziplina arloko jardunak eta bestelako komunikazio-egintzak***

**497.** Iraizpenen, falten edo zehapenen komunikazioak idaztea. Minuta egiteko, arazoaren garrantziari erreparatuko zaio. Komeni da kopurua hauek baino txikiagoa ez izatea:

a. Falta arina, 80 €.

b. Falta larria, 90 €.

c. Falta oso larria, 110 €.

**498.** Langileen aurkako espediente zehatzaileetan esku hartzea, sindikatu-izaerako hautapen bidezko karguak dituztenean: 275 €.

Zenbateko hori 100 € gehituko da bertan jaso behar den adierazpen bakoitzeko.

Abokatuaren eginkizun bakarra espedientea gidatzea bada, ordainsariak erdira murriztuko dira.

**499.** Kontratua arrazoi objektiboengatik eta diziplinakoak ez diren beste arrazoi batzuegatik azkentzeari buruzko komunikazioa, 200 €.

### ***Gatazka kolektiboak, greba eta ugazabek enpresa ixtea***

**500.** Arlo horietako aholkularitza eta esku-hartze kasuetan, epaiketako jardunen kasuan izan ezik, seigarren xedapen orokorraren arabera egingo da minuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.800 €.

### ***Jardunak Lan-ikuskatzailletzan***

**501.** Lan-ikuskatzailletzan aurkeztutako salaketa-idazkia idaztea, 90 €.

**502.** Lan-ikuskatzailletzan egindako agerraldia. Seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu da, 135 €.

**503.** Lan-ikuskatzailletzaren aktaren aurkako aurkaratze- edo deskargu-idazkia. Kopurua hurrengo atalen arabera finkatu da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

a. Zenbateko zehatza. Eskala-tipoaren %20.

b. Zenbateko zehaztugabea. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu dira.

**504.** Gizarte Segurantzako kuoten likidazio-akten aurkako alegazioen idazkia. Minuta aurkaratutako likidazioaren zenbatekoaren arabera egingo da, eta eskala-tipoaren %30 aplikatu da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 165 €.

**505.** Aurreko baremoan adierazitako aktek eragindako ebazpenen aurkako administrazio-errekurtsoak. Minuta egiteko, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsoak dituen baremoak kontuan hartuko dira.

**506.** Deskargu-idazkiak edo errekurtsoak lan-ordezkaritzetan edo izaera bereko beste agintari batzuen aurrean. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira, 135 €.

## ***Enplegu-erregulazioko espedientea eta kontratua etetea***

**507.** Iraizpen kolektiboa egiteko baimena eskatzen bada edo langileen ordezkariekin lan-kontratuak azkentzeko negoziazio-prozesuan edo prestakuntzan parte hartzen bada arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamenduari edo ekoizpenari lotutakoak direla bide, orduan xedapen orokorrean ezarritako eskalaren %20 aplikatuko da; oinarri moduan hartuko dira ukitutako langileen hamabi hileko alokairuak. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.500 €.

**508.** Lana aldi baterako etetea, lanaldia murrizteko, etab. baimena eskatzen bada, eskala-tipoaren %20 aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da etetea edo lanaldiaren murrizketa zein tarterri buruzkoa izan eta tarte horretan ukitutako langileek dituzten alokairuak: 1.500 €.

**509.** Enpresa edo langileak lekuz aldatzeko baimena eskatzen bada, zenbatekoa zehaztuko du kontratua azkentzea hautatzen duten langileen kalte-ordainen zenbatekoak eta gainerakoen oinarriko alokairuaren urteko baten zenbatekoak. Eskala-tipoaren %20 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.000 €.

**510.** Saillkapen profesionalari buruzko prozedurak. Oinarri moduan eztabaidatutako saillkapenak alokairuaren ikuspegitik duen aldea hartuko da, bostekin biderkatuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 535 €.

**511.** Baremo hauetan zehazki arautu gabeko lan-loturaren beste edozein aldaketaren inguruko minuta egiteko (txandak...), seigarren xedapen orokorra hartuko da kontuan. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 250 €.

## ***Jardunak Alokairuak Bermatzeko Funtsean***

**512.** Zorpetutako kopuruak FOGASAn eskatzeko prozeduraren izapideak egitea. Kopurua erreklamatzeko lan-epaiketaren baremoko %15 aplikatuko da. Komeni da, ukitutako langile bakoitzeko, kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 120 €.

**513.** Berreskuratze-hitzarmeneko edo aurrerakinak itzultzeko espedienteen izapideak egitea. Minuta egiteko, eskala-tipoaren %30 aplikatuko zaio FOGASAk emandako aurrerakinen oinarriari, 550 €.

## ***Jardunak Gizarte Segurantzaren arloan***

### **Prestazio arruntak eskatzea**

**514.** Kudeaketa Erakundeetan jardunak abiatzeko idazkia, 135 €.

**515.** Alegazioen idazkia Kudeaketa Erakundeetan, 90 €.

**516.** Froga proposatzeko idazkia Kudeaketa Erakundeetan, 55 €.

**517.** Jurisdikzio-bidearen aurreko erreklamazioa, 140 €.

Aurretiako erreklamazio horrek arrazoibide juridikoak baditu eta idazterakoan eztabaidatutako gaia aztertzen bada, honela egingo da minuta:

a.1. Eskala-tipoaren %30, erreklamazioa baztertzen bada; oinarri moduan hartuko da Gizarte Segurantzako prozesuei dagozkien baremoak aplikatuzetik ateratzen dena. Edonola ere, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

a.2. Eskala-tipoaren %80, erreklamazioa onartzen bada; oinarri moduan hartuko da aurreko atalean adierazitako kopurua. Edonola ere, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 300 €.

### **Lanean segurtasun- eta higiene-neurriak ez egotea**

**518.** Alegazioen idazkia Kudeaketa Erakundeetan, 90 €.

**519.** Froga proposatzeko idazkia Kudeaketa Erakundeetan, 55 €.

**520.** Jurisdikzio-bidearen aurreko erreklamazioa, 275 €.

**521.** Administrazio-ebazpen irmoak enplegatuari kasuan kasuko erreklargua ezartzen dionean, langilearen abokatuaren ordainsariak modu honetan zehaztuko dira:

a. Baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak. 557. baremoan ezarritakoaren %50 aplikatuko da, 90 €.

b. Aldi baterako ezintasuna, itxaronaldi-, laguntza- edo heriotza-sorospenak. Ordainsariak 555. baremoan ezarritakoaren %50 aplikatuz kalkulatuko dira, 90 €.

c. Ezintasun iraunkor partziala. Ordainsariak 558. baremoan ezarritakoaren %50 aplikatuz kalkulatuko dira, 135 €.

d. Ezintasun iraunkor osoa. Ordainsariak 559. baremoan ezarritakoaren %50 aplikatuz kalkulatuko dira, 135 €.

e. Ezintasun iraunkor absolutua. Ordainsariak 560. baremoan ezarritakoaren %50 aplikatuz kalkulatuko dira, 155 €.

f. Baliaezintasun handia. Ordainsariak 561. baremoan ezarritakoaren %50 aplikatuz kalkulatuko dira, 190 €.

g. Heriotza. Ordainsariak 566. baremoan ezarritakoaren %50 aplikatuz kalkulatuko dira, 220 €.

521.1. Administrazio-ebazpen irmoak enplegu-emaileari erreklargua ezartzen ez dionean, langilearen abokatuaren ordainsariak aurreko atalaren arabera dagozkienekin alderatuz %50eraino murriztuko dira.

**522.** Administrazio-ebazpen irmoak langileak edo horren eskubidedunek eskatutako kasuan kasuko erreklargua ukatzen duenean, enpresa defendatzen duen abokatuari dagozkion ordainsariak aurreko baremoen arabera kalkulatuko dira, %30 gehituta, 385 €.

**523.** Administrazio-ebazpen irmoak langileak edo horren eskubidedunek eskatutako erreklargua osorik edo zati batean onartzen duenean, enpresa defendatzen duen abokatuari dagozkion ordainsariak zuhurtziaren arabera kalkulatuko dira, egindako lana eta lortutako erreklarguaren garrantzi ekonomikoa kontuan hartuta, 385 €.

### **Gatazka kolektiboak ebazteko epaiketaz kanpoko prozedurak**

**524.** Aholkularitza eta laguntza Lan Harremanen Kontseiluan, gatazka kolektiboak ebazteko prozeduraren izapideak egiteko:

a. Tartekaritza edo bitartekaritza egitea. Tartekaritzari dagozkion baremo orokorrak aplikatuko dira, 1.500 €.

b. Adiskidetzea Lan Harremanen Kontseiluan. Jurisdikzio-bidearen aurreko erreklamazioei dagozkien baremoak aplikatuko dira, 750 €.

c. Tartekaritza arloko erreklurtsoetan, ordainsarien minuta jurisdikzio zibilean apelazio-erreklurtsoarako ezarrita dauden baremoen arabera egingo da.

## ***Jurisdikzio-bidearen aurreko erreklamazioak***

**525.** Adiskidetze-ekitaldiak SMACen:

a. Adiskidetze-idazkia idaztea, 70 €.

b. Ekitaldira joatea:

b.1. Ondorerik ez badago edo bat-etortzea lortzen ez bada, orduan ordainsariak zuhurtziaren arabera finkatuko dira, arazoaren garrantziari eta negoziazioan izandako esku-hartzeari erreparatuz, 110 €.

b.2. Bat-etortzea lortzen bada eta kopurua ordaindu, orduan transakzioak arautzen dituzten baremoak aplikatuko dira, 185 €.

Negoziazioaren helburua kopuruak ordaintzea dakarren arazoa ez bada, orduan ordainsariak zuhurtziaren arabera finkatuko dira, arazoak bezeroarentzat edo transakzioa egiten duten hirugarrenentzat izan ditzakeen garrantzia eta interesa kontuan hartuta, 185 €.

**526.** Lan arloko jurisdikziora jo aurreko erreklamazioa. Eskala-tipoaren %30 aplikatuko da; Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalan (INSS), OSAKIDETZAn edo bestelako erakundeetan egindako erreklamazioen kasuan oinarri moduan hartuko dira prestazioaren zenbatekoa edo prestazioaren urteko bat, aldizkako izaerakoa balitz, 275 €.

## **EPAIKETAKO GAIAK**

### ***Intzidentziak eta bestelako jardunak***

**527.** Lan arloko jurisdikzioak eskumena izateko arrazoiak zein diren argitzea eskatzen duen idazkia, Auzitegi Gorenari edo Auzitegi Nagusiari zuzenduta, horiek ardura duten arazoen inguruan, 185 €.

**528.** Lan arloko jurisdikzio organoen arteko eskumen-arazoak, 110 €.

**529.** Autoak metatzea eskatzen duen idazkia, 70 €.

**530.** Demanda zabaltzea. Kopurua erreklamatzeko bada, zein demanda zabaltzeko eskatu eta horren oinarriari gehituko zaio. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 70 €.

**531.** Magistratuen, idazkarien, ofizialen, laguntzaileen, eta abarren ezespena. Minuta egiteko, jurisdikzio-ordena zibilean ezespenerako ezarritakoa hartuko da kontuan, 185 €.

**532.** Jurisdikzio bideari ekin orduko arazoak edo epaitu aurreko arazoak, idatziz egiten badira, 90 €.

**533.** Lege-gordailuen ordezeko aseguratzea, 75 €.

**534.** Hirugarrengotzak. Jurisdikzio zibilari dagozkion baremoak aplikatuko dira.

**535.** Agerraldi bidez ordezkari itza egilestera bertaratzea, edo berori edo defentsa izendatzeko idazkia, 45 €.

**536.** Eten edo geroratzen den epaiketara joatea, 70 €.

**537.** Demandatzaileak demandan atzera egiten badu, 74. baremoa aplikatuko da.

**538.** Demandatuak demandari amore ematen badio, 73. baremoa aplikatuko da.

**539.** Irizpide orokorra. Epaiketa bati oro har dagozkion ordainsariak jaso ahal izango dira jardun profesionalak epaiketa osoan egiten direnean, legearen arabera posible diren izapide guztiak egin ez arren. Bestela, banaketa hau hartuko da kontuan:

a. Demanda edo alegazioen aldia: %40.

b. Gainerakoa, epaia eman arte: %60.

### ***Prestatzeko egintzak eta zuhurtziazko neurriak***

**540.** Alderdien aurretiazko galdeketa eskatu eta gauzatzea, 155 €.

**541.** Lekuko bidezko aurretiazko froga eskatu eta gauzatzea, 155 €.

**542.** Liburuak eta kontuak eskatu eta aztertzea edo horien komunikazioa epaiketa sustatu aurretik, 155 €.

Aurreko baremoetan ezarritakoari aurka egiten bazaio eta zenbatekoa zehatza bada, eskala-tipoaren %25 aplikatuko da.

**543.** Administrazio-bidean egindako aurretiazko erreklamazioak, Estatuan edo horren menpekoak diren organismoetan eta tokiko erakundeetan, plantilako pertsonalari dagokionez, 275 €.

Ondorengo demanda beharrezkoa ez bada edo beste abokatu batek idazten badu, auzia bukatuz gero egokituko liratekeen ordainsarien gain %30 aplikatuko da, 110 €.

**544.** Aurreneurritzko enbargoaren eskaera. Eskala-tipoaren %15 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 110 €.

### ***Lan-kontratua azkentzeari eta zehapenei buruzko epaiketa***

**545.** Iraizpenari buruzko epaiketa.

**545.1** Irizpide orokorra: ordainsariak seigarren xedapen orokorraren arabera kalkulatu dira, eta modu berezian hartuko dira kontuan irazpena eragin duten egitateen garrantzia, arazoaren konplexutasuna eta epaian aitortutako langilearen alokairua eta bestelako aldibereko inguruabarrak. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 425 €.

**545.2** Epaian kalte-ordaina eta izapidetze-alokairuak adierazten badira, nahiz eta kalte-ordaina hautazko izaerarekin finkatu, ordainsariak arautzeko, kopuru osoaren gain eskala-tipoaren %100 aplikatuko da; edonola ere, kasu guztietan, aurreko baremoko irizpideei eutsiko zaie.

**545.3** Iraizpena deuseza izan dela adieraziz gero eta langilea berriz hartu behar bada, orduan bidegabeko irazpenaren kasuan egokituko litzatekeen kalte-ordainaren oinarriaren gain baremo bera aplikatuko da, izapidetze-alokairuak gehituta; edonola ere, **545.1** baremoko irizpideei eutsiko zaie.

**545.4** Enpresaburuak langilea berriz hartzen ez badu eta auzi-jartzaileak epaia betearaztea eskatu behar badu, gainera, intzidentearen eta agerraldiaren minuta egingo da.

**545.5** Iraizpena bidezkoa dela adieraziz gero, baremo bera aplikatuko da kalte-ordainaren oinarriaren eta egokitu daitezkeen izapidetze-alokairuen gain. Edonola ere, **545.1** baremoko irizpideei eutsiko zaie.

**545.6** Iraizpenaren aurretik espediente behar duen pertsonala bada, ordainsariak %10 gehituko dira.

**545.7** Prozedura bakarrean metatutako demandak direnean edo demandatzaile eta demandatu bat baino gehiago daudenean, kasuan kasuko ordainsariak kalkulatzeko, berriz ez hartzearen intzidentea ebazteko autoan edo epaian finkatutako kalte-ordain guztiak batuko dira; batura horri eskala-tipoaren %100 aplikatuko zaio, eta emaitza bezero kopuruarekin zatituko da horien interesaren arabera; edonola ere, **545.1**

baremoko irizpideei eutsiko zaie eta hamaseigarren xedapen orokorra aplikatzeari kalterik egin gabe.

545.8 Idazkia idatzi eta aurkeztea, aukera egikaritzuz, bidegabeko irazpenaren kasuan, 110 €.

**546.** Langilearen eskariz lan-kontratua azkentzeari buruzko epaiketak. Ordainsariak irazpen-epaiketei buruzko 545.1 eta 545.2 baremoen arabera arautuko dira.

**547.** Elkarlaneko kooperatibetako edo antzekoetako langile-bazkidea egozteagatiko prozesuak. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko zaio epaian adierazitako kalte-ordainaren oinarriari. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**548.** Irazpena ez diren zehapenei buruzko epaiketak:

548.1 Eduki ekonomiko eta ebaluatzeko modukoa dutenak. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa izatea: 440 €.

Arazoaren zenbatekoa zehaztuko du zehapenaren aldian jaso ez diren edo agian jasoko ez diren sarien zenbatekoak.

Ezarritako zehapenaren izaera dela-eta kalkulua ausazkoa denean edo agian errealitatera egokitzen ez denean (kategoria igotzeko aldi baterako desgaiakuntza, kategoria edo lerrundegiko postuak galtzea, etab.), zenbatekoa urteko alokairuaren %50 izango da; zehapena igotzeko behin betiko desgaiakuntza edo antzekoa bada, orduan zenbatekoa urteko soldataren %80 izango da.

548.2 Gainerako kasuetan, ordainsariak seigarren xedapen orokorraren arabera finkatuko dira, batez ere ezarritako zehapenaren eraginari eta garrantziari erreparatuz. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**549.** Aurreko baremoei buruzko epaiketa adiskidetze bidez bideratzen bada:

549.1 Bat-etortzea kopurua ordaintzeari lotuta badago, transakzioei buruzko baremoak aplikatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 185 €.

549.2 Bestelako kasuetan, ordainsariak seigarren xedapen orokorrera bildutako irizpideei erreparatuz finkatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 185 €.

### ***Kopuru-erreklamazioari buruzko epaiketak***

**550.** Kopuru-erreklamazioari buruzko epaiketa. Erreklamaturako kopuruaren gain eskala-tipoaren %100 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**551.** Aldizkako kopuruak badira, balioa kalkulatzeko, urteko bati dagokion zenbatekoa bostekin biderkatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**552.** Aurreko baremoetan adierazitako epaiketa adiskidetze bidez bideratzen bada, transakzioei buruzko baremoak aplikatuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 185 €.

### ***Plantila osatzeari buruzko epaiketak***

**553.** Plantila osatzeari buruzko epaiketak.

Eskala-tipoaren %20ren minuta egingo da, eta oinarri moduan hartuko dira ukitutako langileen 12 hilabeteko alokairuak. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

### ***Gizarte Segurantzako prozesuak***

**554.** Asegurudunari administrazio-bidean ezgaitasun maila jakin bat aitortu bazaio, oinarria kalkulatzeko, aitortutako pentsioaren eta eskatutako pentsioaren arteko aldea hartuko da kontuan.

**555.** Aldi baterako ezgaitasuna, amatasuna eta haurdunaldiko arriskua dagoen bitartean prestazio ekonomikoak, itxaronaldi-, laguntza- eta heriotza-sorospenak erreklamatzeko epaiketak. Ordainsariak kalkulatzeko, eskala-tipoaren %70 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**556.** Osasun-prestazioak erreklamatzeko epaiketak. Minuta zuhurtziaren arabera egingo da, prestazioek ekonomikoki ebaluatu daitekeen edukia dutenean izan ezik, kasu horretan eskala-tipoaren %70 aplikatuko baita. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**557.** Baremoen arabera kalte-ordainak jaso ditzaketen lesio, mutilazio, deformazioei buruzko epaiketak. Eskala-tipoaren %100 aplikatuko da erreklamaturako kopuruaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**558.** Ezintasun iraunkor partzialari buruzko epaiketak. Eskala-tipoaren %80 aplikatuko da epaian aitortutako alokairuaren hogeita lau hilekoen gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**559.** Ezintasun iraunkor osoari buruzko epaiketak. Eskala-tipoaren %80 aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da administrazio-bidean aitortutako pentsioaren eta eskatutakoaren artean dagoen aldea, berrogei hilekorekin biderkatuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**560.** Ezgaitasun iraunkor absolutuari buruzko epaiketak. Eskala-tipoaren %80 aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da administrazio-bidean aitortutako pentsioaren eta eskatutakoaren artean dagoen aldea, lau urtekorekin biderkatuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 525 €.

**561.** Baliaezintasun handiari buruzko epaiketak. Eskala-tipoaren %80 aplikatuko zaio administrazio-bidean aitortutako pentsioaren eta eskatutakoaren artean dagoen aldearen oinarriari, bost urtekorekin biderkatuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 785 €.

**562.** 558-561 baremoetako epaiketetan, horietarako ezarri ordainsariak %50 murriztuko dira, uziaren oniritzia lortzen ez bada.

**563.** Ezgaitasunak berrikusteko epaiketak:

563.1. Epaiketa horien zenbatekoa kasuz kasu zehaztuko da hurrengoak kontuan hartuz:

a. Hasieran ezarritako pentsioaren eta kalifikazio berria dela bide jaso behar den pentsioaren artean dagoen aldea kontuan hartuz, gorantz edo beherantz, bost urtekoren gain kalkulatu.

b. Lesioei, ezgaitasun iraunkor partzialari edo osoari buruzko epaiketetako baremoak aplikatuz, aipatu ezgaitasuna dela bide oroharreko zenbatekoa jaso denean.

c. Hasieran eta berrikuspenaren ondorioz finkatutako oroharreko zenbatekoen arteko aldea kontuan hartuz, gorantz edo beherantz.

563.2. Finkatutako oinarriaren gain, eskala-tipoaren %80 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**564.** Langabeziari dagokionez, eskala-tipoaren %100 aplikatuko zaio emandako eta erreklamaturako egunen eta/edo zenbatekoen arteko aldearen oinarriari.

**565.** Alarguntasuna dela bide biziarteko pentsioa erreklamatzeko epaiketak. Eskala-tipoaren %70 aplikatuko da aitortutako kopuruaren bost urtekoren oinarriaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**566.** Alarguntasuna dela bide aldi baterako sorospena erreklamatzeko epaiketak. Eskala-tipoaren %70 aplikatuko zaio aitortutako kopuruaren bost urtekoren oinarriari. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**567.** Oroharreko zenbatekodun kalte-ordainak erreklamatzeko epaiketak heriotza dela bide. Eskala-tipoaren %70 aplikatuko da erreklamaturako kopuruaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**568.** Umezurtz-pentsioa edo familiakoen aldeko prestazioak erreklamatzeko epaiketak, 440 €.

a. Iraupen zehaztugabekoak edo onuradunak 10 urte baino gutxiago dituenen. Eskala-tipoaren %70 aplikatuko da erreklamaturako pensioaren hiru urtekoren zenbatekoaren gain.

b. Aldi baterako prestazioa edo onuradunak adin jakin bat betetzean amaitzen dena. Eskala-tipoaren %70 aplikatuko da pensioaren urteko baten gain.

**569.** Jubilazio-pentsioa erreklamatzeko epaiketak. Eskala-tipoaren %70 jasoko da bidezko pensioaren bost urtekoren oinarriaren gain. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**570.** Gizarte Segurantzaren arloko betearazpenari aurka egiteko prozedurak. Eskala-tipoaren %70 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**571.** Aurreko ataletan aipatu arazoetan kodemandatuak diren enpresei laguntzen dieten abokatuak haietan ezarritako ordainsarien %50 soilik jasoko dute, salbu eta demandan edo epaiketaren ikustaldian enpresa-erantzukizuna dagoela planteatzen denean. Kasu horretan, ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira, 440 €.

**572.** Lanean segurtasun- eta higiene-neurriak ez egoteagatik prestazioaren errekaruari buruz egiten diren prozesuetan, ordainsariak izango dira zein prestazioren inguruan aritu eta horiei dagozkien baremoetakoak.

Abokatuak enpresa defendatzen duenean, ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

### ***Bestelako lan-prozedurak***

**573.** Gatazka kolektiboei buruzko prozesuak:

573.1. Eztabaidatutako eskubidearen ondoreak ekonomikoki ebaluatzeko modukoak badira, orduan ordainsariak kopuru-erreklamazioei dagozkien baremoen arabera kalkulatu dira:

a. Ukitutako langileak gehienez 25 badira, 1.600 €.

b. Ukitutako langileak gehienez 50 badira, 2.000 €.

c. Ukitutako langileak gehienez 100 badira, 2.400 €.

d. Ukitutako langileak 100 baino gehiago badira, 3.200 €.

Epe luzerako ondoreak dituen eduki ekonomikodun eskubideari buruz eztabaidatzen den kasuan, oinarri ekonomikoa lortzeko, eztabaidatutako zenbatekoa hiru urtekorekin biderkatuko da.

573.2. Gainerako kasuetan, minuta seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera egingo da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**574.** Adiskidetzan lortutako bat-etortzearen baliozkotasuna aurkaratzeko epaiketak, 440 €.

574.1 Zenbateko zehatzekoa bada, kopuru-erreklamazioari buruzko baremoak aplikatu dira.

547.2 Gainerako kasuetan, minuta seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera egingo da.

**575.** Ofiziozko prozedura:

575.1 Zenbateko zehatza. Eskala-tipoaren %70 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

575.2 Zenbateko zehaztugabea. Minuta seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera egingo da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

575.3.a. Lan arloko Epaitegian egiten bada adiskidetzeara eta bat-etortzeak ebaluatzeko moduko eduki ekonomikoa badu, eskala-tipoaren %60 aplikatuko da, 185 €.

b. Bat-etortzeak ebaluatzeko moduko eduki ekonomikoa ez badu, ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu dira.

**576.** Prozedura sindikatu-hauteskundeak direla bide. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu dira, egitatearen garrantzia, burututako froga eta epaiketaren iraupena kontuan hartuta. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**577.** Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren aurka medikuaren alta aurkaratzeko egindako prozedurak. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**578.** Oporrez gozatzeko data —langile batena nahiz batzuen— finkatzeko prozesuak. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu dira, arazoaren garrantzi ekonomikoren arabera. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**579.** Enplegatuen mugikortasun funtzional eta geografikoari buruzko prozesuak. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**580.** Lan-baldintzen oinarritzko aldaketei buruzko prozesuak. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideekin kalkulatu dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**581.** Bularra emateko baimenari eta familia-arrazoiengatik lanaldi-murrizketari buruzko prozesuak. Ordainsariak seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera kalkulatu dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**582.** Lan-lotura mugagabea aitortzeari buruzko prozeduretan edo, hala denean, enpresan finko izateari buruzkoetan, oinarria zehaztuko dute langileak jaso izan duen alokairuaren hiru urtekoak. Eskala-tipoaren %70 jasoko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 440 €.

**583.** Aurretik zehaztu ez den beste edozein lan-epaiketa. Minuta beste epaiketa batzuetarako ezarritakoen analogiaz egingo da. Epaiketa horiek jurisdikzio honetakoak zein analogia duen beste batekoak izan daitezke.

Lan arlokoak izan eta Merkataritza arloko Epaitegian izapidetutako jardun eta/edo erreklamazioen minuta egiteko, analogiaz, lan arloko jurisdikziorako ezarritako baremoak erabiliko dira; hala ere, beste jurisdikzio bati dagozkion baremoak erabiliko dira, jardun eta/edo erreklamazioen izaera kontuan hartuta, egokiagoak badira.

## **Errekurtsoak**

**584.** Ordezko moduan, jurisdikzio zibileko jardunei dagokiena aplikatuko da.

**585.** Birjartze-errekurtsoa. Errekurtsoa zein arazok eragin eta horri dagozkion ordainsarien %15 jasoko da. Komeni da kopuruak hauek baino txikiagoak ez izatea:

- a. Izapide hutseko probidentzien aurka, 90 €.
- b. Gainerako ebazpenen aurka, 130 €.

**586.** Erregutze-errekurtsoa.

586.1. Errekurtsoa jarriko dela iragartzen duen idazkia, 55 €.

586.2. Formalizazio- edo aurkaratze-idazkia:

- a. Epaiak ez diren ebazpenen aurka, 165 €.
- b. Epaien aurka, 330 €.

Errekurtsoa lehen auzialdian arazoaren ardura zuen abokatu berak egiten badu, lehen auzialdian arazorako adierazitako ordainsarien %60 jasoko da.

Errekurtsoa lehen auzialdian arazoaren ardura zuen abokatuak barik beste batek egiten badu, lehen auzialdian arazorako adierazitako ordainsarien %70 jasoko da.

**587.** Ebazpen judizialak argitu edo zuzentzea. Jurisdikzio Zibileko 259. edo 260. baremoak aplikatuko dira.

**588.** Kasazio-errekurtsoa eta doktrina bateratzeko kasazioa Auzitegi Gorenean. Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira. Errekurtsoa iragartzen duen idazkia, 300 €.

**589.** Justizian entzuna izatea, diziplina-zehapenen aurka. Ordainsariak seigarren xedapen orokorraren arabera jasoko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa izatea: 200 €.

**590.** Berrikuspen-, erregu- eta kexa-errekurtsoa. Jurisdikzio Zibilean eta/edo Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremo edo irizpideetan ezarritakoaren arabera egingo da minuta.

**591.** Babes-errekurtsoa. Minuta Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremo edo irizpideetan ezarritakoaren arabera egingo da.

## ***Epaien eta adiskidetze-ekitaldien betearazpena***

**592.** Epaiak eta adiskidetze-ekitaldian hitzartutakoa betearazteko irizpide nagusia:

592.1. Atal honetan ezarri ez diren kasuetan, analogiaz, jurisdikzio zibilean ezarritako baremoak aplikatuko dira, arazoaren eraginera eta garrantzira egokituta, eta horien konplexutasuna eta egindako lana kontuan hartuta.

592.2. Betearazpen guztietarako, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

592.3. Edonola ere, premiamendu-bideari dagokion atalean ezarritakoa hartuko da kontuan.

**593.** Behin-behineko betearazpenak irazpen-epaiketetan. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera finkatuko dira, 200 €.

**594.** Irazpen-epaiketetan emandako epaiak betearaztea:

594.1. Betearazpena egikaritzeko idazkia edo agerraldia, 200 €.

594.2. Langilea berriz ez hartzearen ondorioz sortutako intzidentek:

- a. Emandako autoan kalte-ordaina finkatu bada, eskala-tipoaren %70 aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 90 €.
- b. Baina abokatua epaiketara joan zen bera bada, eskala-tipoaren %25 aplikatuko da.

**595.** Langilea erabiltzen duen bizilekutik irtenarazteari eta botatzeari buruzko betearazpenak, iraungitzat jotako lan-kontratua dela bide. Ordainsariak jurisdikzio zibileko baremoen arabera finkatuko dira.

**596.** Kopuru likidoa duten betearazpenak. Ordainsariak jurisdikzio zibileko baremoen arabera arautuko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 200 €.

**597.** Behin-behineko betearazpenak Gizarte Segurantzako prozesuetan:

597.1. Lan arloko jurisdikzioan behin betiko betearazpenaren baremo orokorretarako ezarritako ordainsariak jasoko dira.

597.2. Prestazioa eskatzen duen erreklamatzailerentzat epaia hobetzen bada, behin betiko betearazpenaren baremo orokorrak aplikatuko dira, oinarri moduan hobetutako aldea hartuta.

**598.** Gizarte Segurantzako prozeduretan emandako epaiak betearaztea. Ordainsariak kalkulatzeko eskala-tipoaren %30 aplikatuko da, eta oinarri moduan hartuko da kasuan kasuko baremoetan adierazitakoa, betiere betearazitako ebazpenean aitortutako prestazioen zenbatekora eta motara egokituta. Komeni da kopuruak hauek baino txikiagoak ez izatea:

598.1. Epaian aitortutako prestazioa ezgaitasun iraunkorra, partziala, osoa, absolutua edo baliaezintasun handia bada, 200 €.

598.2. Mutilazioengatiko prestazioak, baremoen arabera kalte-ordainak dakartzaten deformazioak, edo alarguntasunagatiko aldi baterako sorospena aitortzen badira, 200 €.

598.3. Gizarte Segurantzako gainerako prestazioak badira, 150 €.

**599.** Itzuli beharreko aurrerakinak. Eskatutako kopuruaren gain eskala-tipoaren %40 aplikatuko da.

### ***Kostuen tasazioa***

**600.** Kostuen tasazioa.

Ordainsariak jurisdikzio zibilari dagozkion baremoen arabera arautuko dira.

Alderdi interesdunak eskatuta, premiamendu bidezko ordainarazpena gertatuz gero, arlo zibileko jurisdikzioaren premiamendu-bideari dagokion baremoa erabiliko da.

## **BESTELAKO AUZITEGI ETA ERAKUNDEAK**

### **JARDUNAK KONSTITUZIO AUZITEGIAN**

**601.** Jardunak Konstituzio Auzitegian.

Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.

#### ***Konstituzio-aurkakotasun arazoa***

**602.** Konstituzio-aurkakotasun arazoa.

Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.

#### ***Gatazkak eta aurkaratzeak***

**603.** Gatazkak eta aurkaratzeak.

Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.

Prozesu horien aurreko agindeien gain administrazio-prozedura arruntaren arauak aplikatuko dira, eta prozesuek eratorritako beste agindeien kasuan, aldiz, ez.

#### ***Babes-errekurtsoa***

**604.** Babes-errekurtsoa.

Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko baremoak edo irizpideak aplikatuko dira.

Botere publikoek emandako administrazio-egintza etetearen intzidentea izapidetzea, administrazio-egintza hori babes-errekurtsoaren bidez aurkaratu denean. Errekurtsoari dagozkion ordainsarien %15 jasoko da.

Agintari publikoen egintza etetea ukatu edo onartzearen ondoriozko kalteen kalte-ordainari buruzko intzidentek. Kasuan kasuko epaiketa adierazlerako adierazitako ordainsariak jasoko dira.

### **JARDUNAK NAZIOARTEKO ORGANO ETA JURISDIKZIOETAN**

#### ***Irizpide orokorrak***

**605.** Hizkuntzak jakitea. Abokatu jarduleak Estatuko hizkuntza ofiziala ez den beste bat erabili behar badu eta egoera horretan berak dakienaz eta itzultzailearik gabe moldatzen bada, orduan ordainsariak %20 gehituko dira.

#### ***Europako jurisdikzioa giza eskubideen arloan***

##### **Giza Eskubideen Europako Batzordea**

**606.** Giza Eskubideen Europako Batzordea.

Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera jasoko dira. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 2.000 €.

##### **Giza Eskubideen Europako Auzitegia**

**607.** Prozedura osorik izapidetzeagatik epaia eman arte, 2.640 €.

**608.** Banaketa.

Aurreko baremoko ordainsariak honela banatuko dira:

a. Demanda-idazkia, %50.

b. Adiskidetzera bertaratzea, %10.

Bat-etortzea badago, une horretara arte jasotako ordainsariei gehituko zaie hurrengo kopuruetatik handiena:

Ordu arte jaso beharreko ordainsarien %20.

Arazoaren zenbatekoaren gaineko eskala-tipoaren %25, arazoak eduki ekonomikoa badu.

c. Froga-aldia, %20.

d. Ikustaldira joatea eta txostena, %20.

**609.** Eduki ekonomikoa duen epaia betearaztea. Ordainsariak kalkulatzeko, lortutako kopuruari eskala-tipoaren %60 aplikatuko zaio.

Betearazpenaren adiskidetze-fasean bat-etortzea badago, adostutako kopuruaren gain eskala-tipoaren %40 aplikatuko da.

### ***Europako Erkidegoko zuzenbidea***

#### **Batzordean izapidetzen diren gaiak**

**610.** Edozein errekurtsio jartzea edo alegazio idatziak formulatzea. Minuta egiteko, seigarren xedapen orokorreko irizpideak hartuko dira kontuan. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.980 €.

#### **Lehen Auzialdiko Auzitegian izapidetzen diren gaiak**

**611.** Deuseztatze, ez-egite eta kontratuz kanpoko erantzukizunari buruzko errekurtsioak. Auziaren balioaren gain eskala-tipoa aplikatuko da. Komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 3.575 €.

**612.** Langileen inguruko arazoak, 1.210 €.

**613.** Legeaurkakotasun-salbuespena. Arazo nagusiari dagozkion ordainsarien %10en minuta egingo da.

**614.** Aurkaratutako egintza eteteko presako prozedura eta gainerako behin-behineko neurriak bide sumariotik. Ordainsariak arazo nagusiari dagozkion ordainsarien %20arekin gehituko dira.

**615.** Hirugarrengotza- eta berrikuspen-errekurtsio bereziak. Ordainsariak seigarren xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.800 €.

**616.** Atxikimenduzko esku-hartzea. Epaiketa nagusiari dagozkion ordainsarien %10en minuta egingo da.

**617.** Auzi-iheslariari entzuteko, akats materialak zuzentzeko eta interpretatzeko errekurtsioak. Arazo nagusiari dagozkion ordainsarien %5en minuta egingo da.

#### **Justizia Auzitegian izapidetzen diren gaiak**

**618.** Lehen Auzialdiko Auzitegiaren epaien aurkako apelazio-errekurtsioak. Arazo nagusiari dagozkion ordainsarien %60 aplikatuko da.

**619.** Kasazio-errekurtsioa. Kasazio zibilar dagokion baremoa aplikatuko da, %30 handituta.

Ordainsariak honela banatuko dira:

a. Idatzizko fasea, %60.

b. Ahozko fasea, %40.

## **Erromako Ituna edo Europako Konbentzioa**

**620.** Auzitegiek proposatutako epaitu aurreko arazoetan esku hartzea Erromako Itunaren 17. artikulua edo epaiak aitortu eta betearazteari buruzko Europako Konbentzioa oinarri hartuta. Eskala-tipoaren %50 aplikatuko da; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.800 €.

## **Estatu kideen ez-betetzeak**

**621.** Estatu kideen ez-betetzeengatik sortutako arazoetan esku hartzea, Luxenburgoko Auzitegiko epaiak ez betetzea barne hartuta, eta Erromako Ituneko 228 eta 238. artikuluetako aginduzko irizpenetan edo EURATOM Itunaren 103. artikuluko eztabaidan. Ordainsariak kalkulatzeko, seigarren xedapen orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.800 €.

## **Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegia**

**622.** Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegia. Ordainsariak arazoaren konplexutasunari eta garrantziari erreparatuz kalkulatu dira, seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.800 €.

## **NBEko Giza Eskubideen Batzordea**

**623.** NBEko Giza Eskubideen Batzordea. Ordainsariak arazoaren konplexutasunari eta garrantziari erreparatuz kalkulatu dira, seigarren xedapen orokorreko irizpideen arabera; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 3.575 €.

## **ELIZ AUZITEGIAK**

### ***Elizbarrutiko Auzitegia***

**624.** Eliz deuseztasuna. Lehen auzialdian, erregela hauek aplikatuko dira:  
a. Prozedura sumarioa edo agiri-prozedura. Gomendatutako kopurua: 1.000 €.  
b. Prozedura arrunta. Gomendatutako kopurua: 2.000 €.  
Aurka-egitea edo errekonbentzioa dagoenean, gomendatutako kopurua %50 gehituko da.

### ***Metropoliko Auzitegia edo Nuntziatura Apostolikoaren Rotako Auzitegia***

**625.** Metropoliko Auzitegian edo Nuntziatura Apostolikoaren Rotako Auzitegian. Auzitegiak azpiko organoak emandako eliz epaia dekretu bidez berretsiz gero, ordainsariak lehen auzialdian jasotakoaren %20 izango dira. Auzia bigarren edo ondorengo auzialdietan bide arruntetik aztertuz gero, ordainsariak lehen auzialdian jasotakoaren %60 izango dira auzialdi bakoitzeko.

**626.** Ezkontza egin baina burutu gabeko lekopen pontifikaleko prozeduretan, ordainsariak seigarren xedapen orokorraren arabera finkatuko dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.600 €.

### ***Bestelako gaiak Eliz Auzitegietan***

**627.** Heriotzaren ziurtasun morala eta bestelako gaiak Eliz Auzitegietan.

Minuta analogiaz egingo da jurisdikzio zibileko irizpideei jarraituz eta, halakorik posible ez balitz, komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 400 €.

### **GORTE NAGUSIAK, EUSKO LEGEBILTZARRA, BATZAR NAGUSIAK, ETAB.**

**628.** Organismo horietan egindako jardunak kalkulatzeko, Administrazio Publikoari dagozkion baremoak erabiliko dira, analogiaz.

### **HERRI-DEFENDATZAILEA, ARARTEKOA ETA ANTZEKO ERAKUNDEAK**

**629.** Organo horietan egindako jardunengatik gaiaren ondorioz kasuan-kasuan dagozkion administrazio-prozeduraren zenbatekoaren %35 jasoko da.

### **KONTUEN AUZITEGIA, HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA ETA BESTE ERAKUNDE BATZUK**

**630.** Organo horietan egindako jardunen inguruan arau hauek aplikatuko dira:

630.1 Fiskalizazio lanari dagokionez, analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Publikoari buruzko baremoen bidez; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.000 €.

630.2 Kontabilitateko erantzukizunen balorazio lanari dagokionez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagozkion baremoen bidez, analogiaz aplikatu daitezkeenak; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.000 €.

### **TARTEKARITZA BATZORDEAK (EUSKADIKO ESTATUTUAREN 39. ART.)**

**631.** Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Lurralde Historiko baten artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak konpontzeko Bitartekaritza Batzordeetan egindako jardunak Administrazio Publikoan egindakoak arautzen dituzten baremoen arabera arautuko dira; komeni da kopurua hau baino txikiagoa ez izatea: 1.920 €.